



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

POBREZIARI ETA GIZARTE- DESBERDINTASUNEI BURUZKO INKESTA PGDI-2016

Emitza nagusiak
2017ko urtarrilak 31

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren
Estatistika Organo Espezifikoa



0. Emaiza nagusien laburpena

Dokumentu honetan Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2016ko Inkestaren (PGDI-2016) emaitza nagusiak bildu dira. Inkestaren helburua nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko pobreziaren eta ongizate-gabeziaren adierazleak aztertzea, lehentasunez nabarmenduta Europar Batasunean Eurostat metodotik hartuta erabiltzen direnak, bai eta PGDI-n berariaz sartutakoak ere.

Biztanleen arteko baliabideen banaketari epe ertain eta luzean eragiten dioten egiturazko joera nagusiak ere kontuan hartzen ditu txostenak, batez ere 2008-2016 epeari dagozkionak. Era berean, pobrezia eta prekarietatea Euskadiko hiru lurraldeetan eta eskualdeetan nola banatzen den ere aztertzen da. Txostena irakurterrazago egiteko, aldaketa nagusien laburpen bat egin dugu hasierako kapitulu honetan¹.

PGDI-2016 modulua aplikatzearen emaitza nagusiak honela laburbil daitezke:

2014 eta 2016 artean, krisian zehar benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren eragina areagotu zuten faktoreek ez dute hain eragin handia izan, benetako pobrezia-egoeretatik hurbilen dauden taldeetan izan ezik.

Diru-sarreraren alderdian murriztu egin dira arrisku-egoerak (mantentzea), pobrezia larriari buruzko Eurostat adierazlearen salbuespen bakarrarekin.

2014 eta 2016 artean, EAEko etxeetako errenta-mailak lehengoratzek berekin ekarri du, oro har, diru-sarrera nahikorik ez izateari lotutako pobrezia-arriskuaren eta mantentze-ongizaterik ezaren adierazleek argi eta garbi hobera egitea². Hobetze horrek, ordea, ez du guztiz konpentsatzen 2008 eta 2014 artean nabaritutako gehikuntza. Are gehiago, pobrezia larriari buruzko Eurostat adierazleak agerian uzten du pobrezia-adierazpen latzenak egonkortu egin direla 2014 eta 2016 artean.

¹ Komeni da zehaztea ondoren aurkezten diren datuak familia-etxebizitzetan bizi diren herritarrei buruzkoak direla. Beraz, ez dira kontuan hartzen establezimendu kolektiboetako herritarrak eta bizilekurik gabekoak (Euskadin bizi ohi diren edo iragaitzaz dauden kolektiboak izanda zein ez).

² Mantenuko pobreziako eta prekarietate-arriskuko egoerak, edo sarrera-pobreziarenak, honako hauekin lotzen dira: etxeguneetan oinarritzko beharrei aurre egiteko sarrera nahikorik ez edukitzearekin (pobrezia) edo —edo adierarik zabalenean— EAEkoa bezalako gizarte batean espero den gutxieneko ongizate-mailari eusteko behar diren gastu-beharrei aurre egiteko sarrera nahikorik ez edukitzearekin (ongizaterik eza).

Pobreziari dagokionez, 2004ko % 5,6tik eta 2008ko % 5,7tik 2012ko % 7,3ra handitu zen, eta ehunekorik handienera iritsi zen 2014an, % 8,2ra, baina PGDI pobrezia-arriskua % 7,1era jaitsi da 2016an. 2008koa baino 1,4 puntu handiagoa izan arren, 2016ko tasa 2012koaren eta 2014koaren azpitik geratu da, bai eta 2000. urteko % 7,9aren azpitik ere. Diru-sarrereren medianaren % 40ko atalasearen azpitik dauden pertsonen proportzioa (Eurostat pobrezia-tasa larria) % 4,9 da orain ere, 2014an lortutako ehunekoa; hau da, 2008ko % 3,1 baino 1,8 puntu handiagoa.

Hobekuntza askoz deigarriagoa eta agerikoagoa da ongizaterik ezaren adierazleei dagokienez. Ongizaterik ezaren PGDI arriskua % 21,9tik % 18,4ra jaitsi da 2014 eta 2016 artean³. Oraindik ere 2008ko % 16,4 baino 2 puntu handiagoa da, baina 1986tik izandako bigarren ehunekorik onena da, eta 2004ko % 21,9aren eta 2012ko % 19,9aren azpitik dago.

EAEko diru-sarrereren medianaren % 60tik behera dauden pertsonen Eurostat proportzioa ere nabarmen jaitsi da, eta 2014. urteko % 18,5etik 2016. urteko % 16,4ra aldatu da; hau da, 1,6 puntu dago 2008ko % 14,8aren gainetik. EBko pobrezia- eta bazterketa-arriskuaren adierazlea sintetikoak (AROE adierazlea) antzeko bilakaera erakusten du. 2008ko % 17,9tik 2014ko % 22,7ra handitu ondoren, tasa % 20,6ra jaitsi da 2016an⁴.

Epe luzeko bizi-baldintzekin zerikusia duten pobrezia eta prekarietateak (metaketa) behera egiten dute, harik eta maila historikoki minimoetara iritsi arte.

2012-2014 biurtekoan pilaketako PGDI pobrezia-adierazlean gertatu zen gorakadaren ondoren (% 1,4tik % 2ra), 2014-2016 aldiko dinamikak adierazten du 1996 eta 2012 artean adierazle honen ezaugarria izandako beheranzko ildo berreskuratu egin dela⁵. 2016ko % 1,6, beraz, EAEn izandako maila apalenetara hurbildu da berriz; hau da, 2008ko eta 2012ko % 1,4 eta % 1,5 artekoetara.

Oro har, ongizaterik eza pilaketa-alderdian agertzen den moduek herritarren % 17ri eragiten diote 2016an, eta guztiz aldatzen da adierazleak 2008 eta 2014 artean izandako goranzko ildo. 2014an, mantenu-alderdian ongizaterik ezaren tasa % 20 baitzen, 1996ko % 25,3aren azpitik baino ez zegoen. 2016ko zenbatekoa, ordea, segidako mailarik apalena da, 2012ko % 17,5aren eta 2000ko % 17,2aren azpitik.

³ Tasek pobrezia-arriskuko egoeran dauden herritarrak barruan sartzen dituzte.

⁴ AROPE adierazlean, pobrezian erortzeko arrisku-egoerak ez ezik (medianaren % 60), lan-intentsitate txikiaren eragina eta oinarrizko ondasun edo zerbitzu batzuk eskuratzeko aukerarik eza ere kontuan hartzen dira.

⁵ Pilaketako pobrezia- eta prekarietate-egoerek zerikusia dute gaitasunik ez izatearekin honako hauek egiteko: bizi-baldintza onargarriak finkatzea epe ertain eta luzean, eta erreserbako gutxieneko ondarea izatea ezohiko gastu-beharrei aurre egiteko bezala diru-sarrerarik eza erremediatzeko ere. Kontuan hartuta etxebizitzetako instalazioetan eta ekipamenduan zer gabezia dauden, zer neurritan den nahikoa balia daitekeen erreserbako ondarea eta ohiko beste ondasun edo zerbitzu batzuk erabiltzeko aukera (norberaren ibilgailua, oporrak izateko aukera eta abar), PGDI inkestak lau maila ditu pilaketako pobrezia/ongizate-eskalan: pobrezia, ongizaterik eza, gutxieneko ongizatea eta guztizko ongizatea.



Horren emaitza da 2016an ongizaterik gabeko benetako egoerek nabarmen egitea behera; beherakada hori, ordea, askoz moderatuagoa da benetako pobrezia adierazleari dagokionez.

Deskribatutako prozesuek berekin ekarri dute pobrezia eta benetako ongizaterik ezaren tasek beherantz egitea 2014tik aurrera⁶. Hala ere, oso murrizketa txikia ikusten da benetako pobrezia 2014-2016 biurtekoan izandako eraginean; % 5,9tik % 5,7ra baino ez. Hala ere, 2016ko adierazlea 2012ko % 5,3ra edo 2000. urtean izandako % 5,1era hurbiltzen da. 2016ko pobrezia eraginak, ordea, argiago gaitzen ditu 2004 eta 2008rako kalkulatu ziren zenbatekoak; % 4,5 eta % 4,2, hurrenez hurren. 2008. urteari dagokionez, eragindako pertsonen kopurua % 36,6 handiagoa da 2016an (122.566; 2008an, berriz, 89.706).

Murrizketa-ildoak askoz adierazgarriagoa da ongizaterik gabeko benetako egoerei dagokionez. Hertsiki benetako pobrezia diren egoerak kontuan hartuta, problematika horien eragina % 11,5etik % 10,8ra jaitsi da 2014 eta 2016 artean. Tasa, horrenbestez, 2012ko % 10,1era hurbiltzen da, eta 1986 eta 2004 artean izandako mailen azpitik geratzen da; epe horretan, gutxienez 2000koa izan zen: % 11. Eragina 2008an izandako % 8,2ko gutxienez baino ez da urruntzen argi eta gabi. Urte horri dagokionez, eragindako pertsonen kopurua % 31,2 handitu da 2016an, eta 175.668tik (2008) 230.516ra (2016) aldatu da.

Nolanahi ere, 2014-2016 aldiaren eten egin da 2012 eta 2014 artean Euskadin izandako beheranzko mugikortasun-dinamika finkatzeko arriskua.

2014 eta 2016 artean, benetako pobrezia-egoeren edo ongizaterik ezaren eragina txikitzearekin batera, beste prozesu garrantzitsu bat izan da: prekarietate handieneko errealitateen eraginak behera egin du. Hartara, biurteko horretan muga-taldearen pisu erlatiboa gutxitzeko ildoari berrekin zaio; izan ere, muga-talde horren ezaugarria zen ongizate-osagaiak nagusi izatea, baina lotutako arrisku batzuk ere egotea.

Emaitza, eta 2014-2016ko berritasun nagusia, hau da: parte-hartze nabarmenki txikiagoa dute pobrezia eragindako taldeek, ongizaterik ezaren beste agerbide batzuek eta ongizatea izatea mugatzen duen arriskuren baten presentziak. Egoera multzo horren pisu erlatiboa 1986. urteko % 65,6tik 2008ko % 27,5era jaitsi ondoren, gorakada izan zuen 2008 eta 2014 artean, eta herritarren %31,1en ezaugarria izan zen 2014an. 2016an, ordea, proportzioa % 25,4ra jaitsi zen: ehuneko txikiagoa 1986tik. 2008an, boom ekonomikoaren unerik gorenean, izandakoa baino 2,1 puntu txikiagoa da.

⁶ Benetako ongizate-gabeziaren eta pobrezia adierazleen bidez, fenomeno horiek duten benetako eraginera hurbildu nahi da, diru-sarreraren dimentsioan (mantenuko pobrezia edo estutasuna, prekarietatea) edo epe luzerako bizi-kondizioetan eta etxeguneetako erreserbako ondarean (pilaketako pobrezia edo prekarietatea) arrisku-faktoreak egoteaz haraindi. Pobrezia/benetako ongizatearen egungo PGDI adierazleak bost egoera bereizten ditu: pobrezia, ongizaterik eza, arrisku-elementuak ongizate-elementuekin nahasita (ongizate-faktorea nagusi izanda), ia guztizko ongizatea eta guztizko ongizatea.

2012-2014ko etenaren ondoren, hau da, EAEko gizartean 1996. urteaz geroztik beheranzko mugikortasun-prozesuak lehenengoz nagusi izan ziren epearen ondoren, gizartean pobrezia- eta ongizate-eskalaren goialderanzko ildoari berrekin zitzaien argi eta garbi 2014 eta 2016 artean. Hartara, aldi horretan % 31,1etik % 25,4ra jaitsi zen gabeziak edo arrisku motaren bat zituzten pertsonen proportzioa (-5,7 puntu), baina horrekin batera portzentajezko 4 puntu inguru egin zuen gora ia guztizko ongizatea zuen taldeak (% 30,2tik % 34,1era), eta 1,8 puntu egoera onenean zegoen taldeak, guztizko ongizatea zuenak (% 38,7tik % 40,5era). Harrigarria izan badaiteke ere, 2016an inoiz baino herritar gehiago egon zen Euskadin ongizate-egoeran (guztizkoa edo ia guztizkoa), bai erlatiboki bai egoera horretan zeuden herritarren kopurua kontuan hartuta (1,60 milioi pertsona 2016an; 1,56, berriz, 2008an eta 2012an).

Hala ere, gogorarazi behar da ezen, 2008az den bezainbatean, guztizko edo ia guztizko ongizate-egoeran zeuden biztanleen pisu handiago hori bateragarria dela benetako pobrezian dauden edo batere ongizaterik ez duten pertsonen ehunekoa handiagoa izatearekin; 2,6 puntu handiagoa (% 8,2tik % 10,8ra 2008 eta 2016 artean). Gehikuntza hori, gainera, handiagoa da benetako pobrezian: +1,6 puntu (% 4,2tik % 5,7ra); +1,0, berriz, pobrezia-egoeran egon gabe ongizaterik ez dutenen taldean (% 4tik % 5era),

Beraz, EAEko gizartean hobekuntza orokorra izan da ongizate handiagoko egoeretaranzko bidean, baina prozesu hori bateragarria izan da 2016an benetako pobrezia eta ongizaterik ezaren eragin handiagorekin.

2014 eta 2016 artean desberdintasun-adierazleak murrizteko prozesuari berrekinda ere, EAEn, 2016. urtean eta krisiaren ondorioz, desberdintasuna oraindik ere 2012koa baino zerbait handiagoa da, eta eragin berezia du talde txiroenetan.

Benetako pobrezia eta prekarietatearen eragin handiagoa Gini koefizientearen adierazten da, handiagoa baita 2016an 2008-2012an baino (% 25,8 bateko, eta, hurrenez hurren, % 25,2 eta % 25,3 besteko). Hala ere, 2014 eta 2016 artean izandako prozesu onek desberdintasuna argi eta garbi murrizten lagundu dute; izan ere, Gini indizea 27,1 izan zen 2014an, baina gaur egun soil-soilik da 2008-2012 laurtekoan izandakoa baino handiagoa. Joera antzekoa da EAEko biztanlerian aberatsena den % 20aren diru-sarrerak eta pobreena den % 20arenak erlazioztatzen dituen ratioari dagokionez. Kasu honetan, ratioa 2014. urteko 4,2tik 2016. urteko 3,9ra jaitsi da (2004an izandako mailara). Berriz ere, 2008-2012ko balioak (3,6-3,7) baino ez dira gainditzen.

2014 eta 2016an desberdintasunean gertatutako jaitsiera nabarmenean, oso faktore garrantzitsua izan da diru-sarrera arrunten berreskuratze argia prekarietate handieneko egoeran dauden biztanleen deziletan. Gizartean behartsuena den % 30ean, diru-sarrerak % 7,2 eta % 9,9 artean handitu dira, epe horretan gizartearen gainerako zatietan baino gehiago (% 5,3tik % 6,7ra D4tik D6ra arteko deziletan; % 4,5 D7an; eta % 1,3tik % 2,2ra D8tik D10era artekoetan).



Hala ere, 2008-2016 aldi osoan, krisiaren eraginak oraindik dakar biztanleria-deziletan diru-sarrerren bilakaera oso desberdina izatea diru-sarrerren mailaz den bezainbatean. Biztanleko batez besteko diru-sarrera arrunt garbiak % 3 eta % 6 handiagoak dira 2016an 2008an baino gizartean behartsuena den % 80an, baina diru-sarrerren bigarren dezilean diru-sarrera arruntak % 0,7 baino ez dira handiagoak 2016an. Biztanleen arteko % 10 behartsuenean, are -% 7,2ko jaitsiera ere gertatu da.

Horrek baldintzatu egin du biztanleen diru-sarrera guztietatik EAEn bitarteko gutxien dituzten pertsonen % 10ari iristen zaion zatiaren bilakaera. 2000. urteko % 3,55etik 2008ko % 3,88ra igo ondoren, adierazlea % 3,75era jaitsi zen 2012an, eta % 3,41era 2014an. 2016an berriz igo arren % 3,48ra arte, 1996-2012 aldiko balioen azpitik jarraitzen du 2014an gertatu zen bezala (aldi horretan, baliorik txikiena 2000an izan zen: % 3,55).

DSBE/EPO/GLL sistemak bere eginkizuna betetzen jarraitzen du pobrezia-eraginearen adierazpide larrienek aurrera egitearen prebentzioan, baina muga batzuk ditu.

Euskadin, DSBE/EPO/GLL prestazio-sistema da pobrezia-eraginearen eta desberdintasunaren eragina txikitzen laguntzen duten faktore nagusietako bat. Sistemaren ondorio onuragarri nagusiak honako hauek dira:

- * 2016an, diru-sarrerak bermatzeko EAeko sistema pobrezia-arriskuan dauden biztanleen % 69,3rengana iristen da⁷: 134.563 pertsona; hau da, EAeko biztanle guztien % 6,3.
- * Laguntzei esker, 71.494 pertsona benetako pobreziatik kanpo geratzen dira; hau da, EAeko biztanleriaren % 3,3, eta 2016an arrisku-egoeran dauden biztanleen % 36,8. Hori % 75eko gehikuntza da 2008ko 40.858 pertsonekin alderatuta. Kontuan hartutako biztanleen % 74,6 pobretzat hartzen ez diren etxeetakoak da.
- * Aintzat hartzen diren eta DSBE/EPO/GLL sisteman sartuta ere pobreziatik ateratzea lortzen ez duten 63.069 pertsonen artean (EAeko biztanleen % 2,9), ordea, eta sistemaren prestazioei esker, balia daitezkeen diru-sarrerren eta mantenuko pobrezia-atalasearen arteko aldea murriztu egiten da % 74,2tik % 16,1era. DSBE/EPO/GLL sarrerak kolektibo horren sarrera guztien % 69,2 dira 2016an. Kontuan hartutako biztanleen % 73,3ren etxeak haien egoeraren pertzepzioetik urruntzen dira pobreziarik gorrienaren ikuspegitik; hau da, beren burua pobretzat edo oso pobretzat jota.

DSBE/EPO/GLL sistemak bermatutako babesak, beraz, laguntza erabakigarria ematen du 2008. urtearen ondoko krisiari lotutako prozesu sozial eta ekonomikoen ondorioak arintzeko. Bereziki aipatu behar da zer-nolako aldea dagoen 2008 eta 2016 artean etxean langabezia izateak eragindako biztanleen kopuruan gertatutako gehikuntzaren (% 102,2) eta benetako pobrezia-egoeran dauden pertsonen kopurua handitzearen artean, azken handitze hori askoz txikiagoa delako (+% 36,6). Geroago egiaztatuko

⁷ DSBE/EPO/GLL sisteman sartzeko aukera ematen duten gabezia-egoeretan eta benetako pobrezia-egoeran dauden biztanleak biltzen ditu arrisku-egoeran dagoen kolektiboak.

den bezala, Euskadi, diru-sarrerak bermatzeko politikari esker, Europako Hegoaldeko herrialde guztiek gaur egun ezaugarri dituzten pobrezia- eta desberdintasun-mailetatik oso urrun egon da.

Baina muga batzuk ditu.

2016ko PGDI inkestaren datuek, ordea, DSBE/EPO/GLL sistemak aurre egin beharreko benetako muga batzuk azaleratzen dituzte. Arazorik garrantzitsuena da etengabe handitu dela 2008tik prestazioen sisteman sartzen ez diren eta arrisku egoeran dauden biztanleen kopurua: urte hartan 47.542 pertsona izan ziren, baina 2016an, berriz, 59.497⁸. Artatu gabeko pertsonen proportzioa 2008koa baino askoz txikiagoa da erlatiboki (% 30,57 2016an; % 36,4, berriz, 2008an), baina 3 puntutik gora handiagoa da 2012-2014 aldikoa baino (% 27,4 eta %27,1, hurrenez hurren).

Badago beste arazo bat: balia daitezkeen diru-sarreraren eta diru-sarrerei lotutako pobrezia-atalasearen artean hautemandako aldea. Sistemaren barruan artatzen diren baina benetako pobreziatik ateratzea lortzen ez duten biztanleen kasuan, desoreka gutxieneko mugetan mantentzen da (% 16,1 2016an, 2014an bezala, eta, beraz, 2008ko % 17aren eta 2012ko % 19,7aren azpitik), baina mugok adierazgarriak dira. Benetako pobrezia-egoeran dauden eta sisteman sartzen ez diren pertsonen dagokionez, desoreka % 22,5koa da; beraz, artatutako biztanle txiroen artekoa baino handiagoa.

Benetako pobrezia-egoeren egonkortze-esparruaren barruan, desoreka horrek ondorio garrantzitsuak izan ditzake. Bereziki kontuan hartzen bada ezen, lehenago aipatutako bi taldeetan, biztanleen % 51,5 inguru bizi den etxeetan esaten dutela dauzkaten diru-sarrerak ez direla aski etxean dauden oinarrizko beharrei aurre egiteko

Errealitate hori, 2014 eta 2016 artean, oinarrizko beharrak betetzearekin zerikusia duten adierazleen egonkortzean eta, batzuetan, gehikuntzan nabaritzen da.

Aipatutako mugak pobrezia argiago lotutako adierazleetan, besteak beste benetako pobrezia PGDI adierazlean eta benetako pobrezia Eurostat adierazlean, 2014-2016 biurtekoan gertatutako egonkortzean islatzen dira. Bi kasuetan, 2016ko mailak, 2008koa ez ezik, 2012koa ere gainditzen du. Benetako pobrezia tasari dagokionez, 2016ko adierazlea 2012koa baino portzentajezko 0,4 puntu handiagoa da (% 5,7 eta % 5,3) eta 2008koa (% 4,2) baino 1,6 handiagoa. Pobrezia larriaren adierazleari dagokionez, 2014ko eta 2016ko % 4,9a 1,4 puntu handiagoa da 2012. urteko % 3,5 eta 1,8 puntu handiagoa 2008ko % 3,1a.

⁸ Soldata edo pentsio txikiak izatea da neurri handi batean pertsona horien etxeen ezaugarria. Hartara, % 82,5 diru-sarrera berekiak dituzten etxeetan bizi da, eta sarrera horiek lanetik datoz normalean, edo prestazioen eta pentsioen sistema orokorretik. Lanaren ondoriozko diru-sarreraren pisua gero eta erabakigarriagoa da, eta eragindako pertsonen % 52,4 horrelako diru-sarrerak dituzten etxeetan bizi da 2016an; horrenbestez, ehuneko horrek etengabe egin du gora 2008ko % 36,5az geroztik.



Aurrekoaren ildotik, pobreziaren neurketari lotutako gabezia-adierazle espezifiko gehienek egonkortzeko joera eta are handitzekoa ere erakutsi dute 2014 eta 2016 artean. Gabezia-mailak 2016an 2012koen oso gertu egonda ere, 2008. urtearekiko aldea funtsezkoa da oso. Bereziki eragiten dio bigarren eskuko jantziak baliatzeari (% 6,7 2016an, baina % 3,7 2008an: + portzentajezko 3 puntu), bai eta ordaindu gabekoei edo ordainketa-atzerapenei (% 6,3 2016an, baina % 2,9 2008an: + portzentajezko 3,4 puntu) eta, 2014ko % 11ko gehienekotik gertatutako beherakada handia gorabehera, neguko hiletan tenperatura egokia izateko zailtasunei ere (% 8,9 2016an, baina % 4,1 2008an: + portzentajezko 4,7 puntu).

Gabezia materialaren adierazle sintetikoaren bilakaeran joera berak daude. 2008. urtean % 2,7 izan zen, aurretik, 2014an, % 3,6ko gehienekoa izan ondoren, eta % 5,8ra igo zen 2012an, eta % 6,4ra, berriaz, 2016an⁹; hau da, portzentajezko 3,7 puntu 2008ko ehunekoaren gainetik.

2008. urtearekin alderatuta, 2016an egoera askoz motelago okertu da pobrezia-agerbiderik larrienei lotutako adierazle bereziei dagokienez, eta handitseek, orokorrean, ez dute argi gaintitzen portzentajezko puntu bateko gehienekoa. Hala gertatzen da hornidura-etenei lotutako gabeziekin (ura, argia, telefonoa), bai eta ondasunen bahiturari, jabetzen salmentari, etxebizitza/ikastetxea aldatzeari eta elikadura-arazo larriei lotutako gabeziekin ere.

Hala ere, adierazle horiek agerian uzten dute ezen, batzuetan, pobrezia-egoerak biztanleen artean eragin nabarmena izatearekin batera enkistatzen direla. 2016an, elikadura-arazo larri-larriek, adibidez, biztanleen % 3ri baino gehiagori eragin diote (% 3,1 FSS adierazlearen arabera, eta % 3,4 bi egunean behin janari proteiniko bat izateko ezintasunaren Eurostat adierazlearen arabera; hau da portzentajezko 1 eta 1,1 puntu artean 2008ko balioen gainetik).

Beste bi alderdik argi erakusten dute zer-nolako eragina duten pobreziaren ondorio kezkarriek EAeko biztanle-kolektibo handi samarretan. Alde batetik, ikusten da ezen, maila txiki samarretan egoten jarraitu arren, gastuak diru-sarrerak baino handiagoak izateagatik zorpetzeko arriskua % 2,4 dela 2016an, eta aurreneko gehienekoa gaintitzen duela, 2012ko % 2,1a. Bestalde, EAEn beren burua *pobretzat* edo *oso pobretzat* jotzen duten etxeetako pertsonen proportzioa % 2,6-% 3 mailetan mantendu da 2012 eta 2016 artean, eta, gainera, goranzko joera izan du 2014 eta 2016 artean.

⁹ Balio horiek gabezia materialaren PGDI adierazlerra egindako hurbilketa batean oinarritzen dira; izan ere, Eurostat adierazlea baino zurrunagoa da. Hartara, gabeziatzat hartzen du ez bakarrik autorik ez izatea, bai eta 10 urte baino gutxiago dituen auto bat ez izatea ere.

Pobreziaren gizarte-eraginean aldaketa handiak ikus daitezke. Aldaketa onen artean, haurren pobreziaren beherakada nabarmentzen da. Hala ere, kolektibo pobreen artean gora egin du biztanle nazionalen eta biztanle landunak dituzten etxeen presentziak.

Langabeziak garrantzi pixka bat galtzen du pobreziaren eragile nagusi moduan, biztanle landunak dituzten etxeetan arriskua handitzen delako testuinguruan.

2016an, benetako pobrezia-egoeren % 62,7 lau etxe mota bereziri dagokie: Europar Batasunetik kanpo etorritako atzerritarren etxeak (% 26,4); lan egonkorrik ez duten 45 urtetik gorako pertsonen familia-taldeak (% 13); aurreko familia-talde mota hori bera, lan egonkorrik gabeko pertsona titularra 45 urtetik beherakoa bada (% 12,6); eta lan egonkorrik gabeko eta 45 urtetik beherako emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiak (% 10,7). Pobrezia-tasa % 20ko atalasea gainditzen du ia kasu horietan guztietan, lan egonkorrik gabeko 45 urtetik gorako pertsonen familia-taldeetan izan ezik, berorietan % 8,6 baita, betiere argi eta garbi batez bestekoaren gainetik.

2016an ere benetako pobreziaren tasa handia da adin aktiboan dauden pertsonen talde batzuetan. Hartara, % 15a gainditzen da lan egonkorrik gabeko 45 urtetik gorako emakumeak buru dituzten familia bakarreko familietan, bai eta lan egonkorrik gabeko egoera berean eta bakarrik bizi diren pertsonen artean ere, 45 urtetik gorako edo beherako gizonezkoak edo emakumezkoak izanda ere. Horrelako familia motek beste % 17,2ko ekarpena egiten diete 2016an benetako pobreziako errealitatei.

Oro har, kontuan hartutako etxe motek benetako pobrezia-egoeren % 79,8 biltzen dute 2016an. Oso handia da kontuan hartutako taldeetan benetako pobreziaren batez besteko tasa. 2014ko % 22,2aren aldean txikitu arren, oraindik ere % 21 da 2016an. Maila horrek argi eta garbi gainditzen ditu 2008ko eta 2012ko maila jada handiak (% 15,8 eta % 18,7, hurrenez hurren).

Aldea bereziki nabarmena da pobreziak gutxien eragindako taldeei bagagozkie; izan ere, talde horietan lan egonkorra duten etxe-kategoriak, 65 urtetik gorako pertsonen etxeak eta gizon bat buru duten guraso bakarreko familiak sartzen dira. Talde horietan, oro har hartuta, benetako pobreziaren tasa % 1,5 da 2016an. 2014ko % 1aren aldean argi eta garbi gora egin arren, ehunekoak ia egonkor jarraitzen du 2008ko %1,4aren aldean.

Langabeziak benetako pobrezia-egoeretan daukan garrantzia puntu honetan nabarmendu beharreko beste alderdietako bat da. 2008 eta 2014 artean, kide aktibo guztiak langabezian zituzten etxeetako pertsona pobreak 2008. urtean egoera horien % 26,2 izatetik 2014an % 56,8 izatera aldatu ziren. Susperraldiaren hasierak, ordea, berekin ekarri zuen kolektibo horren pisuak nabarmen behera egitea; izan ere, 2016. urtean % 38,1 izan da, argi eta garbi 2014ko eta 2012ko mailak baino txikiagoa.



Hala ere, 2014 eta 2016 artean, pertsona landunak dituzten etxeen egoerak okerrera egin du. Etxe horietan gora egin dute benetako pobrezia-tasek, bereziki pertsona landunak dituzten arren, pertsona horietako inork lan egonkorrik ez duen etxeetan. Etxe horien kopurua handitzen ari delako testuinguruan, susperraldi ekonomikoaren ondorioz, landunak dituzten etxeak gero eta gehiago dira benetako pobrezia-kasuen banaketan. 2008. urteko % 51,8tik 2012ko % 42,8ra eta 2014ko % 31,5era jaitsi ondoren, etxe horietan bizi diren biztanleen proportzioa, benetako pobrezia-kasu guztien artean, % 47ra igo da 2016an.

Atzerritarren etxeetako pobrezia-tasa behera egiteak kolektibo pobreen artean biztanle nazionalak duten pisua handitzen lagundu du.

2014 eta 2016 artean, pertsona nagusia atzerritar bat den etxeetako biztanleen benetako pobrezia-tasa % 36,2tik % 30,7ra jaitsi da, eta soil-soilik da 2008ko % 27,7a baino handiagoa. Estatuko nazionalitatea duen pertsona bat buru duten etxeetako biztanleen artean, tasa % 2,9tik % 4ra handitu da 2008-2014 aldian, eta %4,1 inguruan egonkortu da 2016an.

EAEen dauden atzerritarrak bertatik gero eta gehiago joateko joera dagoen honetan, eta nazionalizazioak, gainera, ugaritzen ari direlarik, Estatuko nazionalitatea duten herritarrek pobrezian pisu erlatibo handiagoa izaten laguntzen du aipatu dinamika horrek. 2008. urteaz geroztik, alde horretatik, 2016an izan da handiena espainiar nazionalitateko biztanleek benetako pobrezia-egoeretan hartzen duten lekua (guztien % 71,6; % 67,6, berriz, etxeko erreferentziatzeko pertsonaren nazionalitatea kontuan hartzen bada).

Oraindik oraingo bilakaeraren alderdi onenari dagokionez, haurren pobrezia 2014 eta 2016 artean behera egiten hasi dela nabarmentzen da.

2008. urteko % 7,3tik 2012ko % 9,5era eta 2014ko % 11,2ra handitu ondoren, 2014 eta 2016 artean lehen beherakada gertatu da 2008. urteaz geroztik EAEko 14 urtez azpiko biztanleen arteko benetako pobrezia-egoeren eraginean. 2016an, haurren pobrezia-tasa % 10,6ra murriztu zen.

Haurren pobrezia-tasaren jaitsierak lotura du pobrezia-adierazlea murriztearekin seme-alabak dituzten bikoteetan. 2008ko eta 2012ko mailen gainera, tasa puntu bat jaitsi da 2014-2016 biurtekoan, % 5,5etik % 4,5era. Biurteko horretan, ordea, gora egin du benetako pobrezia-tasaren eraginak guraso bakarreko familietan, eta % 12,7tik % 13,4ra aldatu da. Azken ehuneko hori 2008ko % 13,2tik hurbil dago, baina 2012ko % 18,2a baino dezente txikiagoa da. Guraso bakarreko familiek benetako pobrezia-tasaren banaketan duten pisua % 23,6tik % 29,9ra handitu da 2014 eta 2016 artean, eta proportzio hori soil-soilik da 2012ko % 32,7a baino txikiagoa. Oro har, guraso bakarreko familiek eta seme-alabak dituzten bikoteek benetako pobrezia-kasuen % 72 bildu dute 2016an.

Garrantzitsua izan arren, mugatua da haurren pobrezia-tasan izandako jaitsiera, eta dauden mugak tasa horren bilakaera gainerako herritarrekin alderatzean nabaritzen dira. Hartara, 14 urtetik gorako biztanleen benetako pobrezia tasa 1,3 puntu handiagoa da 2016an 2008koa baino (% 5 eta % 3,7, hurrenez hurren), baina aldea 3,3 puntukoa da 14 urtetik beherako biztanleen kasuan (% 10,6 2016an eta % 7,3, berriz, 2008an). Adin txikiko biztanleen benetako pobrezia tasa, gainera, 14 urtetik gorako biztanleena halako bi baino handiagoa izaten jarraitzen du 2016an (% 10,6 eta % 5).

PGDI inkestak agerian uzten du zer-nolako eragin erabakigarria duen pobrezia bizitzeak adin txikikoen artean. Benetako pobrezia eragindako etxeetan, gabezia-egoerak errealitate nagusia dira, eta adin txikikoen % 5,3k soilik ez du inolako gabeziarik (oinarrizkoa edo adierazgarria) Oinarrizko gabeziak, gainera, nagusi dira kolektibo horretan, eragina dutelako elikadura egokia edo premia biziko beste ondasun batzuk izateko aukeran (oinetako edo janzki berriak), jolasteko ekipamenduan, etxean bezala kalean ere, prestakuntzarako behar den esparruan (adinari egokitutako liburuak izateko aukera, eta etxeko lanak egiteko leku egokia), edo egun bereziak ospatzeko aukeran. Etxe horietan, urte bat eta 15 urte artekoen % 66,1i eragiten diote horrelako arazoek, eta proportzioa oraindik % 33,3koa da ongizaterik ezaren beste adierazpideak dituzten etxeetan bizi diren adin txikikoen artean. Egoera horrek, ordea, ongizate-egoera (osoa edo ia osoa) duten etxeetan bizi diren adin txikikoen % 1i baino ez dio eragiten.

Diru-sarrerak bermatzeko politiken eraginari lotuta, datu ona da larritasun handieneko oinarrizko arazoak gutxienek ere izatea adin txikikoen artean benetako pobrezia-arazoak dituzten etxeetan. Hala eta guztiz ere, etxe horietako adin txikikoen % 25,5ek honako hiru gabezia larri hauetakoren bat izaten du: ezin du egunero janari proteinikorik izan (begetarianoa zein ez); ez du fruiturik edo barazkirik jaten egunero; edo ez du bi zapata-pare egokirik.

Araba Euskadin pobrezia gehien eragindako lurralde moduan finkatzen da, baina ñabardura osagarriren bat egin behar da baieztapen horretaz.

Lurraldeari dagokionez, 2016an nabarmentzekoa da Araban egoera okerragotu izana Bizkaiarekin eta Gipuzkoarekin alderatuta. Araban, bilakaera konparatiboki negatiboa izan da bi faktore osagarriren ondorioz. Alde batetik, lurraldeak ezaugarri du benetako pobrezia gehikuntza diferentziala gertatu izana 2008 eta 2014 artean. 2014 eta 2016 artean, bestalde, aurreko urteetako joera txarra luzatu egin da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, hoberako aldaketa izan baitute.

Hartara, benetako pobrezia tasa handitzen jarraitzen du barrualdeko lurraldean, eta 2014ko % 8,2tik 2016ko % 10,4a aldatu da; hau da, 2008ko % 4,1eko maila halako bi baino handiagoa da (portzentajezko 6,3 puntu handiagoa). Gipuzkoan, ordea, tasaren jaitsiera apala gertatu da, 2014ko % 4,2tik 2016ko % 4ra: oraindik ere portzentajezko 1,5 puntu 2008ko % 2,5aren gainetik. Bizkaiko lurraldeak izan du bilakaerarik onena, 2014ko % 6,4tik 2016ko % 5,5era jaitsi baita; ozta-ozta 0,3 puntu 2008ko % 5,2aren gainetik.



Prozesu horretan, benetako pobreziaren aldaketa txikiak edo moderatuak izan dira Bizkaian eta Gipuzkoan 2008 eta 2016 artean, baina oso nabarmenak Araban, eta emaitza da azken lurralde hori fenomenoak gehien eragin dion lurralde moduan finkatu dela 2016an: % 10,4; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 5,5 eta % 4, hurrenez hurren.

Eskualdeetako datuen azterketak argi uzten du egoerak nabarmen egin duela okerrera Gasteizko eskualdean. Eskualde horrek Bilbo eta Ezkerraldea gainditu ditu benetako pobreziaren eraginean 2014. urteaz geroztik, eta egoera hori 2016an mantendu da: % 10,6; Bilbon eta Ezkerraldean, berriz, % 7,7 eta % 5,2, hurrenez hurrez. Euskadiko eskualderik jendetsuenetan, Donostialdea eta Eskuinaldea dira oraindik ere pobrezia gutxien eragindako lurralde-esparruak (% 4 eta % 2,4, hurrenez hurren).

EAEen biztanle-kontzentrazio handiena duten eskualdeak alde batera utzita, Aiara eta Debarrena dira gehien eragindako eskualdeak (% 9,1 eta % 8,1). Beste muturrean, benetako pobreziaren tasa maila konparatiboki txikitzen dago Tolosa-Goierri eta Debagoienan (% 3,7 eta % 1,3). Bitarteko lekuan, baina askoz hurbilago egoera hobean dagoen eremu horretatik, tasak Durangaldeko % 4,7aren eta Bizkaia-Kostaldeko % 5,6aren artean aldatzen dira.

Araban eta Arabako eskualdeetan, ordea, bi aldetatik argitu behar da daukaten egoera. Alde batetik, adierazleak gehiago hurbiltzen dira batez bestekora pilaketako pobreziaren kasuan, eta horrek, oro har, larritasun-mailarik handiena adierazten du pobrezia-errealitateetan. Pobrezia mota horretan, Bilbok jarraitzen du izaten 2016an mailarik handiena, eta, gainera, goranzko joera du 2008tik (% 4; Gasteizen eta Ezkerraldean, berriz, % 2,4 eta % 2,1, hurrenez hurren).

Nabarmendu beharreko bigarren alderdiak lotura du honako honekin: Araban, pobrezia eta ezkutuko ongizate-gabeziak funtsean murriztera jo ohi dute azken urteetan¹⁰. Alde horretatik, 2016ko PGDI inkestak adierazten du ezkutuko problematika horiek oso eragin desberdina dutela lurralde historikoetan. 18 eta 44 urte arteko biztanleen artean, biztanleen % 10,9ri eragiten diote Bizkaian, % 5,5i Gipuzkoan eta soil-soilik % 2,2ri Araban. 2008 eta 2016 artean egoera horien eraginean etengabeko gorakada izan duten Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, Araban problematika horren eraginak oso jaitsiera deigarria izan du 2012 eta 2016 artean.

Ezkutuko pobrezia-arazoak dituzten 18-44 urteko biztanleen % 73 Bizkaia bizi da 2016an (% 73). Proportzio horrek gora egin du 2000ko eta 2004ko % 56-% 57ko mailen eta 2008ko eta 2012ko % 67-% 69ko mailen aldean. Guztiz bestaldean, aztertutako biztanleen % 4,3 baino ez da bizi Araban, eta gainerako % 22,6 Gipuzkoan bizi da.

¹⁰ PGDI inkestan, ezkutuko gabezia- eta pobrezia-arazoak dauden egoeretan, baliabide nahikorik ez izan eta hurrengo urtean egungo etxetik emantzipatzeko aukera buruan duten pertsonen pobreziarekin edo ongizaterik ezarekin zerikusia duten arazoei aurre egin beharko liekete gaur egun dauzkaten diru-sarrerekin, bizimodu beregaina egiten hasiz gero.

Hartara, 2008. urtearen geroztik batez ere industrian eta eraikuntzan gertatutako enplegu-krisiaren eragina erakusten du Arabako pobrezia-egoerak, baina bai eta beste errealitate berezi bat ere: ezkutuko pobrezia-aren fenomeno ia guztiz desagertu da; EAEko beste lurraldeetan, berriz, arazo hori goranzko aldaketa izaten ari da. Araban, beraz, pobrezia bere osoan agertzen da benetan eraturako etxeetan, Bizkaian eta Gipuzkoan ez bezala, lurraldeotan pobrezia-adierazpide ezkutuek neurri batean estaltzen dutelako arazoaren benetako garrantzia.

EAEen pobrezia- eta desberdintasun-adierazleek okerrera egin arren krisialdian zehar, Euskadi, Europako testuinguruan, fenomeno horiek eragin txikiena duten eremuan mantentzen da. 2014 eta 2016an, Europako hegoaldean duen lekua hobetu du.

Krisiak Europako hegoaldeko herrialdeetan duen eragin diferentziala dela-eta, nabarmen egin du okerrera Euskadik Europako testuinguruan pobrezia- eta prekarietate-adierazle konparatuetan duen posizioak. 2016an, pobrezia larriaren eta pobrezia erlatiboaren tasak (diru-sarreraren medianaren % 40 eta % 60) orokorrean % 30 handiagoak izan ohi dira Euskadin Benelux osatzen duten herrialdeetan (Belgika, Herbehereak eta Luxenburgoko), Europako iparraldeko herrialdeetan (Danimarka, Suedia eta Finlandia), Austria, Alemania eta Frantzia baino. Pobrezia larriaren tasa egonkortzeak (medianaren % 40) ere Euskadi ere urrundu du adierazle horretan sozialki aurreratuen dauden herrialdeetatik.

Hala eta guztiz ere, Euskadi leku konparatiboki onean dago Europa osoan. Bizi-baldintzen oraintsuko hobekuntza dela eta, 2016an EAEko pobrezia erlatiboaren tasa (medianaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituzten pertsonen ehunekoa) berriz ere kokatu da EBko herrialde guztiei dagokien mailaren azpitik: % 16,4; EB-28an, berriz, % 17,3 da, eta EB-15ean % 17. 2014an, EAEko tasak EB-28ko maila gainditu zuen ia bi puntutan (% 18,5 eta % 16,7, hurrenez hurren; % 16,5, berriz, EB-15aren kasuan).

Pobrezia- eta bazterketa-arriskurako AROPE adierazlea ere dago EAEen Europar Batasuneko batez besteko balioen azpitik. Hartara, Euskadik 2016an izandako % 20,6a 2,5 puntutik gora dago EBko batez besteko mailen azpitik (% 23,7 EB-28an, eta % 23,3 EB-15ean).

Pobrezia larriaren adierazlea egonkortu arren, EAEko pobrezia larriaren tasa ere izan da 2016an EB-28aren eta EB-15 ohiaren tasen azpitik (% 4,9 alde batetik, eta % 6,3 eta % 6 bestetik).

Euskadik Europan pobrezia- eta prekarietate-adierazleetan duen leku konparatiboki ona desberdintasunaren eraginari lotuta dago; izan ere, 2014 eta 2016 artean asko jaitsi ondoren, argi eta garbi dago EBko maila orokorrean azpitik. Bereziki, EAEko Gini koefizientea (25,8) 5 puntutik gora dago EB-28ko (31,0) eta EB-15eko (30,9) adierazlearen azpitik.



Aipatutako adierazle guztien artean, EAEko errealitateak nabarmendu egiten du Europako hegoaldeko herrialdeen testuinguruan daukan posizio konparatiboki ona, pobrezia larriaren arriskua eta erlatiboarena askoz txikiagoak direlako Euskadin. Pobrezia larriari dagokionez, eta Espainiako atalaseari erreparatuta, Euskadik, adibidez, % 2ko tasa dauka, baina estatu osoan % 11,2 da. Ildo beretik, erosteko ahalmenaren parekotasunetan baliokidea den atalaseak hiru bider baino gehiago kokatzen du Italiako pobrezia larria Euskadikoaren gaineratik (% 9 eta % 2,6, hurrenen hurren). Alde horiek noranzko bera dute ongizaterik ezaren adierazleei dagokienez (2016an, Euskadin, pertsonen % 8,4 dago diru-sarreraren medianaren % 60aren azpitik, eta Espainian, berriz, % 22,1, estatuko atalasearen arabera; Italian % 19,9 eta EAEn % 10,7, erosteko ahalmenaren parekotasun baliokideetan adierazitako Italiako atalasearen arabera.

Alde horiek desberdintasunak EAEn askoz eragin txikiagoa izatearekin dute zerikusia. Hartara, Euskadiko % 20 aberatsenaren diru-sarrerak % 20 txiroenaren diru-sarrerak baino 3,9 bider handiagoak dira, baina Italian 5,8 eta Espainian 6,9 bider handiagoak. EAEko biztanle txiroenen % 10ak bertako diru-sarreraren % 3,5 biltzen du, baina proportzio hori Italian % 2,1 eta Espainian % 1,7 baino ez da.



1. Pobreziaren eta prekarietatearen inpaktu orokorra

1.1. Mantenu-pobrezia eta -prekarietatea (diru-sarrera eskuragarriak)

1.1.1. Pobreziaren eta ongizaterik ezaren adierazleak

1.1.1.1. Eurostat adierazleak

* 2014 eta 2016 urteen bitartean, % 18,5etik % 16,4ra jaitsi da EAEko diru-sarreraren medianaren % 60tik behera zeuden pertsonen ehunekoa. Hala ere, ehuneko horrek gainditu egiten du, oraindik, 2008. urteko % 14,8a eta 2012. urteko % 15,4a. Bestalde, diru-sarreraren medianaren % 40ko langaren azpitik dauden pertsonen ehunekoak % 3,1etik % 3,5era igo zen 2008 eta 2012 urteen bitartean, eta 2016an, berriz, eutsi egin dio 2014. urtean erakutsi zuen % 4,9ari. Pobrezia erlatiboaren adierazleak hobera egin du, baina pobrezia larriarenak, berriz, 1986. urteaz gozotiko maila altuenetako bat izaten jarraitzen du.

Mant.1 taula
Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuaren bilakaera. Eurostat adierazleak. 1986-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
(Datu absolutuak)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua (Medianaren < % 60)	296.266	348.547	354.066	343.459	318.161	333.986	399.643	350.668	5,0	10,2
Pobrezia-arrisku larria (Medianaren < % 40)	69.578	79.643	98.938	77.428	66.540	75.166	104.942	104.177	38,6	56,6

(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua (Medianaren < % 60)	13,9	16,4	17,1	16,5	14,8	15,4	18,5	16,4	1,0	1,6
Pobrezia-arrisku larria (Medianaren < % 40)	3,3	3,8	4,8	3,7	3,1	3,5	4,9	4,9	1,4	1,8

Iturria: GEABA-86, PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharra: Diru-sarrera txikien/pobrezia erlatiboaren adierazleak pobrezia-arrisku larria duen taldea barne hartzen du.

Datu absolutuen atalean, bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2016an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Intzidentziaren atalean (%-tan), bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

1986ko datuak gutxi gorabeherakoak dira.

Pobrezia larriko arriskuan (medianaren % 40tik behera) dagoen biztanleria-ehunekoa % 56,6 handitu da 2008. urteaz geroztik; izan ere, 66.540 pertsona zeuden egoera horretan 2008an, eta 104.177 izan dira 2016an (37.637 gehiago), 2014an zeuden 104.942 pertsona baino zertxobait gutxiago. Alabaina, pobrezia erlatiboko egoeran (medianaren % 60tik behera) dauden ehunekoa % 10,2 handiagoa da (318.161 pertsona ziren 2008an, eta 350.668 pertsona 2016an, hau da, 32.507 pertsona gehiago).

- * Azken bi urteetan, pobrezia- eta bazterkeria-AROE adierazleak beheratu egin du 2014an iritsi zuen maximoa, % 22,7koa, eta % 20,6ko ehunekoa adierazi du 2016an. Orain, ehuneko hori ez da asko urruntzen 2000, 2004 eta 2012 urteen bitartean izan dituen % 19,6 eta % 19,9 bitarteko ehunekoetatik, baina, hala ere, 2008. urteko % 17,9tik nabarmen gora dago. 2016. urtean arrisku-egoeran dagoen biztanleria-ehunekoa 2008. urtekoa baino % 14,5 handiagoa da: 440.823 pertsona orain eta 385.087 orduan (55.736 gehiago).

2014 eta 2016 bitartean, beheranzko joera izan du AROPE pobrezia- eta bazterketa-adierazleak, eta horren arrazoia da onerako dinamika izan dutela pobrezia erlatiboak eta lan-intentsitate apaleko adierazleak (% 12tik % 10,2ra). Alabaina, gabezia materialaren adierazleak inoizko mailari handiena iritsi du 2016an (% 6,4ra iritsi da, eta aurreko maximoa % 5,8koa izan zen, 2012an).

Mant. 2 taula
Pobrezia- eta bazterkeria-adierazleen bilakaera. AROPE adierazleak. 2000-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
(Datu absolutuak)

Adierazleak	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Laneko intentsitate baxua	121.331	118.851	103.994	179.079	217.062	181.796	1,5	74,8
Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua	354.066	343.459	318.161	333.986	399.643	350.668	5,0	10,2
Gabetzea	41.663	74.556	58.487	125.549	112.856	136.765	8,9	133,8
Pobrezia- eta bazterkeria-AROE adierazlea	411.210	407.800	385.087	432.655	489.447	440.823	1,9	14,5

(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Laneko intentsitate baxua	6,6	6,4	5,6	9,9	12,0	10,2	0,3	4,6
Diru-sarrera txikiak / Pobrezia erlatiboaren arriskua	17,1	16,5	14,8	15,4	18,5	16,4	1,0	1,6
Gabetzea	2,0	3,6	2,7	5,8	5,2	6,4	0,6	3,7
Pobrezia- eta bazterkeria-AROE adierazlea	19,9	19,6	17,9	19,9	22,7	20,6	0,6	2,7

Iturria: PGDI 2000-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharrak: Laneko intentsitate txikiari buruzko adierazlea ikasleak ez diren 20 eta 59 urteko biztanleak oinarritat hartuta kalkulatu da.

Datu absolutuen atalean, bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2016an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Intzidentziaren atalean (%-tan), bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

Gabetze-adierazleari dagokionez, PGDIren irizpide historikoak erabiltzen dira, AROPEren adierazlearenak baino zorrotzagoak (adibidez, gabetzea ez da soilik auto baterako sarbide eza kontsideratzen, AROPE metodoak egiten duen moduan, baizik eta hamar urtez azpiko ibilgailurik ez izatea). 2014ko datuak AROPE-ren datu zorrotza jasotzen du.



1.1.1.2. PGDI adierazleak

- * Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak 1986tik aurrera egin zuen hurbilketa metodologikoa (PGDI metodoa) aintzat hartuta, mantenuko (diru-sarreraren esparruko) pobreziaren arriskua % 7,1koa da EAEn 2016. urtean, eta 151.112 pertsona daude egoera horretan. Ongizaterik ez izateko arriskuan dagoen pertsonen proportzioa, bestalde, % 18,4koa da, eta 394.266 pertsona daude, guztira, egoera horretan.

Mantenu-pobreziaren gaineko PGDI adierazleak erakusten du ageriko beherakada izan dutela pobreziak eta prekarietateak 2014 eta 2016 bitartean, baina horrek ez du konpentsatzen, hala ere, 2008 eta 2014 bitartean hautemandako gorakada. Pobrezia-tasa 2008. urtekoa baino 1,4 puntu handiagoa da 2016an; zehazki, % 5,6koa eta % 5,7koa izan ziren 2004an eta 2008an, eta % 7,1koa izan da 2016an. Hala ere, 2016ko tasa txikiagoa da 2012 eta 2014 urteetako baino (% 7,3 eta % 8,2), eta 2000. urtekoa baino (% 7,9). Urrun daude ehuneko horiek 1986 eta 1996 urteen bitartean izan ziren % 10etik gorako portzentajeetatik. Guztira, 151.112 pertsonak bizi dute mantenu-pobreziaren arriskua 2016an, hau da, 2008an baino 29.237 pertsona gehiagok (121.875 pertsona urte horretan). Igoera, beraz, % 24koa izan da.

Ongizaterik ezaren tasak behera egin du 2014 eta 2016 urteen bitartean, % 21,9tik % 18,4ra hain zuzen, baina 2008an izandako % 16,4koa baino bi puntu handiagoa da oraindik. Hala ere, 1986. urteaz geroztik izan den bigarren daturik onena da, 2012ko % 19,9koa baino hobea. Arriskuan dauden pertsonen kopurua 2008. urtekoa baino % 11,8 handiagoa da (394.266 orduan eta 352.550 orain, 41.716 pertsona gehiago) baina, bi urte horietan soilik, 2008an eta 2016an jaitsi da kopurua 400.000 pertsonatik.

Mant. 3 taula
Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuaren bilakaera
PGDI adierazleak.1986-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
(Datu absolutuak)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Ongizate-gabeziaren arriskua	1.263.504	769.433	512.359	455.703	352.550	432.936	473.260	394.266	-8,9	11,8
Pobrezia-arriskua	248.661	282.495	163.084	116.499	121.875	157.686	176.532	151.112	-4,2	24,0
(Intzidentzia %-tan)										
Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Ongizate-gabeziaren arriskua	59,3	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9	21,9	18,4	-1,5	2,0
Pobrezia-arriskua	11,7	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3	8,2	7,1	-0,2	1,4

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharrak: Ongizate-gabeziaren adierazleak bere baitan hartzen du pobrezia-arriskuan dagoen taldea.

Datu absolutuen atalean, bilakaeraren adierazleak haxe erakusten du: 2016an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Intzidentziaren atalean (%-tan), bilakaeraren adierazleak haxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

1.1.2. Gabezia-adierazleak

- * Ikus daitekeen moduan, pobreziaren eta prekarietatearen adierazle sintetiko batzuek hobekuntza nabarmenak izan dituzte 2014 eta 2016 urteen bitartean. Hori gertatzen da, berariaz, pobreziaren eta ongizaterik ezaren PGDI adierazleekin eta Eurostaten zenbait adierazlerekin, hala nola AROPE adierazlearekin eta % 60ko pobrezia erlatiboko tasarekin. Gabezia materialaren adierazle espezifiko batzuek berriki erakusten duten dinamikarekin lotzen da hobetze-joera hori.

Ongizaterik ezaren egoera orokorrak neurtzeko adierazle zuzenei erreparaturaz gero, deigarria da horietako batzuen hobekuntza nabarmena¹¹. Hori horrela, 2014 eta 2016 bitartean, % 22,6tik % 19ra jaitsi da arazo ekonomikoengatik astebeteko oporrak hartu ezin duten pertsonen ehunekoa. Horixe bera gertatzen da 800 €-ko ezusteko gastuei aurre egiteko ezintasuna adierazten duten etxeetako biztanleriarekin. Proportzioa % 22,5etik % 18,2ra jaitsi da 2014 eta 2016 bitartean. Bi adierazle horiek mailarik apalenak erakutsi dituzte PGDI inkestan jasotzen direnetik.

- * Zuzenean oinarrizko beharriaren estaldurari eta pobrezia-egoeraren gainditzeari begiratzen dioten berriazko adierazleei erreparaturaz gero, zenbait egoeretan antzeko joerak daudela ikus daiteke. Hori horrela, ikusten da, adierazitako epean, % 7,5etik % 6,7ra jaitsi dela PGDI inkestako Food Security Scale edo FSS eskalan aztertzen diren elikadura-ziurgabetasuneko arazoren bat izan duen biztanleria-ehunekoa. Hobetzeko joera etengabea da 2012an erregistratu zen % 7,7ko datutik, baina adierazle horrek 2000-2008 urteen bitartean izandako ehunekoetatik gora dago; izan ere, bitarte horretan, ehuneko datu handiena % 5,7koa izan zen, 2008an erregistratua. Azken urte horrekin alderatuta, elikadura-ziurgabetasuneko egoeran dauden pertsonen kopurua, 2016an, % 18,5 handiagoa izan da.

Hotz egiten duen hiletan etxea tenperatura egokian izateko zailtasunak ageri dituztenena da hobekuntza nabarmena ageri duen bigarren adierazlea. Egoera horretan dauden pertsonen ehunekoak ez zuen inoiz ere gainditu, 2008ra arte, % 5,5eko langa, baina krisiaren urteetan, nabarmen gora egin du, 2008ko % 4,1etik, 2012. urteko % 8,3ra eta 2014. urteko % 11ra¹². 2016an, egoera horretan dauden pertsonen proportzioa % 8,9koa da, 2012. urteko ehunekotik gertu. Hala ere, egoera horretan dauden pertsonen bolumena 2008koa baino % 114,2 handiagoa da.

¹¹ Adierazle hori PGDIrenak baino asmo handiagoko lan bati dagokio; hori horrela, pobreziaren azterketarekin lotutako adierazleei erreparatu die Gizarte Zerbitzuen Eskari Estatistikako Gizarte Beharriari buruzko Inkestaren PGDI moduluak. Horrenbestez, PGDIrekin alderatuta, ongizaterik ezaren arazoaren gaineko dimentsioari buruzko informazio gutxiago ematen da.

¹² Dena den, kontuan izan behar da aldatu egin dela galdera egiteko modua, eta hori izan daitekeela igoera handi horren erantzuleetako bat, EIN erakundearen galdera generikoagoa egiten baita 2014az geroztik. PGDI inkestak lehen erabiltzen zuen galderak zuzenean galdetzen zion herritarrari neguko hiletan hotza sentitzen ote zuen, baina galdera berriak, ordea, etxea tenperatura egokian izateko zailtasunak ote dituen galdetzen dio.



- * Hala ere, 2014 eta 2016 urteen bitartean, gabeziekin lotutako adierazleen bilakaeraren ezaugarri nabarmenena izan da egonkortzeko joera izan dutela pobrezia neurtzen duten adierazle gehienek, eta zenbaitek, gainera, handitzeko joera erakutsi dutela. Egoera hori koherentea da AROPE dimentsioetan hauteman diren igoerekin, gabezia materialak neurtzen dituzten aldetik; era berean, bat dator medianaren % 40ko pobrezia larriaren gainean Eustat adierazleak izan duen egonkortzearekin.

Adierazitako bilakaera horren ezaugarri dira, esaterako, elikadura-ziurgabetasunaren aldaera kezkarrienak. Hori horrela, elikadurarekin lotutako arazoen artean, beheranzko joera erakutsi dute arazo larriek (% 4,6tik % 3,6ra 2014 eta 2016 urteen bitartean). Elikadura-arazo oso larriek 2012ko maila maximoetan diraute 2016an, % 3,1ean. Ez da iristen 2008ko % 2,1era aurreko urteko uneren batean gosea sentitu duten pertsonen ehunekoa, baina, PGDI inkesta egiten denetik, inoizko bigarren datu handiena erakutsi du adierazle horrek, % 1,7koa. Egoera horretan dauden pertsonen kopurua 2008koa baino % 72,4 handiagoa da.

Elikadura-arazo larriekin ikusi ditugun datuekin koherentea da bi egunean behin proteinadun jatorduren bat egiteko aukerarik ez duten pertsonen ehunekoak 2014 eta 2016 urteen bitartean izan duen igoerak. Datua % 3,1etik % 3,4ra igo da bi urte horien bitartean, eta oso gertu dago 2012an iritsi zen % 3,6ko maximotik¹³.

Oro har, elikaduraren gaineko arazo larriek 0,7 eta 1,1 ehuneko-puntu bitartean gainditzen dituzte 2008ko datuak, baina 2012. urteko ehunekoetatik gertu geratzen dira, haiek gainditu gabe. Joera hori bera ikusten da zuzenean prekarietatearen eta pobrezia ekonomikoaren adierazpen larriekin lotzen diren beste adierazle batzuekin, hala nola horniduren mozketekin, ondasunen enbargoekin, jabetzen salmentarekin eta etxebizitzaren edo eskolaren aldaketekin.

Adierazle horietan guztietan, 0,4 eta 0,6 bitarteko puntutan gainditzen dira 2008ko datuak eta 0,2 eta 0,3 bitartean 2014koak; hala ere, 2012. urteko datuen antzekoak dira, eta, zenbaitetan, txikiagoak (esaterako, uraren, argindarraren edo telefonoen hornidurek izandako mozketak % 2 izan dira 2016an, eta % 2,4 izan ziren 2012an). Ez da aldaketa handirik ikusi jabetzen salmentan eta etxebizitzaren edo eskolen aldaketetan, % 1etik beherako datuak izan baitira 2016an, baina nabarmentzekoa da 2008arekiko igoera handia izan dutela salmenta eta aldaketa horiek biztanleria-kopuruaren ikuspegitik. Izan ere, arazo larri horiek izan dituzten etxeetan bizi diren pertsonen kopuruari begiratuta, enbargoek 2008an baino % 141,4 pertsona gehiago kaltetu dituzte, eta jabetzak saldu beharrean edo etxebizitzaz nahiz eskolaz aldatu beharrean izan dira urte horretan baino % 261,4 pertsona gehiago.

¹³ Uneko egoerari erreparatzen dio adierazle horrek 2014tik aurrera, baina azken hamabi hiletako egoerei erreparatu izan zaie 2012ra bitartean.

Horrez gainera, 2016an ikusi da herritarren % 6,7ren etxeetan bigarren eskuko arropak erabili behar izan dituztela azken hamabi hiletan, arrazoi ekonomikoengatik. Kopuruak 2014ko % 6,4tik gora egin du, 2012ko maximora, % 7,1era, gerturatzeko. Egoera horretan dauden pertsonen bolumena 2008koa baino % 79,1 handiagoa da.

- * Bestalde, ez da aldaketarik ikusten alokairuak, kredituak, maileguak edo ordainagiriak ordaindu ezinik dabilzan edo atzerapenekin ordaintzen dituzten pertsonen hondoratze-prozesu ageri-agerikoan. Arazo hori bizi zuen, 1986 eta 2008 urteen bitartean, biztanleriaren % 3k baino gutxiagok, baina % 5,9 izan ziren 2012an, % 6,2 izan ziren 2014an eta % 6,3 izan dira 2016an. 2016an, egoera horretan dauden pertsonen kopurua 2008an baino % 113,7 handiagoa da.
- * Aurkeztutako lerroek argi eta garbi adierazten dute zertxobait okertu direla oinarrizko beharizanen asebetetze etengabearekin lotutako bizi-baldintzak Euskadin egoera okerreanean dauden herritarren zati adierazgarri batengan. Oinarrizko beharriak estaltzeko arazo larrienak dituzten pertsonen jarraipena egiten duen adierazle espezifikoa erreparatzean behatu den joerak adierazten du 2016ko gabezia-datuak 2014koak baino handiagoak direla, bai eta, nabarmen, 2008koak baino handiagoak ere. Hori horrela, gaur egun oinarrizko gastuak estali ezinean dabilzala adierazten duten etxeetako pertsonen erreparatuta, ikusten da EAEko biztanleriaren % 5,5 izan dela egoera horretan 2016. urtean, hau da, 2008ko % 3,1a baino 2,4 puntu gehiago. Berariaz, % 77 handiagoa da egoera horretan dauden pertsonen bolumena. Proporzioari begiratuta, beraz, 2012ko datua (% 5,7) eta 2000ko datua (inoizko handiena, % 6,9koa) soilik dira handiagoak.

Oinarrizko gastuak murriztu beharrean izan diren etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoaren bilakaerak argi eta garbi erakusten digu oraindik oso urrun gaudela balizko susperraldi batek lekarkeen ongialdi ekonomikotik. Ehuneko hori, 2016an, % 16,5ekoa izan da, 2012an izan zen % 16,7tik oso gertu. Ehuneko oso handiak dira horiek, 1996-2008 epean izan ziren datuekin alderatuta (% 6,3 eta % 9,1 bitartean).

- * Horrez gainera, herritarren kontsumoari begiratuta, diru-sarreraren eta gastuen arteko doitze-adierazleak okertu direla ikus daiteke. Ehunekoak datu nahiko apalak ematen dituztela esan daiteke, baina, 2016an, inoizko ehuneko handiena erakutsi du diru-sarreraren eta gastuen arteko desoreka adierazten duen zorpetze-arriskuak; izan ere, datua % 2,4koa izan da, eta % 2,1ekoa izan zen 2012an. Egoera horretan dauden pertsonen kopuruari begiratuta, kopurua % 73,1 handitu da 2008. urtearekiko.



Mant. 4.a taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, diru-sarrerei/mantenuari dagokienez (pobrezia-adierazleak). 1986-2016

Datu absolutuak

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Oinarrizko gastuak murrizteko beharra	612.756	148.234	130.717	190.353	174.145	362.989	275.901	353.212	-2,7	102,8
Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen	ND	77.352	142.624	113.541	66.241	124.608	101.776	117.261	-5,9	77,0
Elikagaiak eskuratzeko arazoak										
FSS adierazleak										
Elikadura-arazo larriak	ND	ND	49.782	52.493	75.915	100.980	99.415	77.999	-22,8	2,7
Elikadura-arazo oso larriak	ND	ND	22.369	56.373	46.084	67.144	63.396	66.546	-0,9	44,4
Segurtasunik ezaren arazoak guztira FSS	ND	ND	72.151	108.866	121.999	168.124	162.811	144.545	-14,0	18,5
Gosez egon diren etxekoen unitateetan	ND	ND	17.289	26.477	21.271	46.122	25.834	36.680	-20,5	72,4
EU-SILC adierazleak										
Gutxienez bi egunean behin proteinarik jateko aukerarik ez	ND	ND	ND	70.687	49.845	78.038	66.503	72.556	-7,0	45,6
Arazoak ohiko betebeharrak eta gastuak estaltzeko										
Ez-ordaintzeak edo atzerapenak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak, etab.)	54.803	42.948	48.606	55.769	63.411	127.589	134.673	135.516	6,2	113,7
Hornidura-mozketak (ura, argia, telefonoa, etab.)	55.156	17.209	21.953	23.940	35.191	52.413	38.255	42.291	-19,3	20,2
Ondasunak enbargatzea	ND	3.801	12.680	7.284	7.130	17.270	10.679	17.208	-0,4	141,4
Ondasunak saltzea, etxebizitza- edo eskola-aldaketa	72.906	12.587	13.387	11.072	5.426	16.700	11.946	19.607	17,4	261,4
Bizirautearekin lotutako beste arazo batzuk										
Bigarren eskuko jantziak erabiltzea	ND	108.286	75.644	121.820	79.657	153.965	138.701	142.628	-7,4	79,1
Neguan tenperatura egokia mantentzeko arazoak	ND	88.668	110.669	113.664	88.611	180.210	237.526	189.805	5,3	114,2

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2016an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen adierazlea eta bi egunik behin proteina-dun jatordu bat eskuratzeari buruzko galdera alde batera utzita, gainerako kasuetan inguruabarrak inkesta egin aurreko urteko momenturen batean gertatu diren jasotzen du adierazleak.

Mant. 4.b taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, diru-sarrerei/mantenuari dagokienez (pobrezia-adierazleak). 1986-2016
Intzidentzia %-tan

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Oinarrizko gastuak murrizteko beharra	28,8	7,0	6,3	9,1	8,1	16,7	12,8	16,5	-0,2	8,4
Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen	ND	3,6	6,9	5,4	3,1	5,7	4,7	5,5	-0,3	2,4
Elikagaiak eskuratzeko arazoak										
FSS adierazleak										
Elikadura-arazo larriak	ND	ND	2,4	2,5	3,5	4,7	4,6	3,6	-1,0	0,1
Elikadura-arazo oso larriak	ND	ND	1,1	2,7	2,1	3,1	2,9	3,1	0,0	1,0
Segurtasunik ezaren arazoak guztira FSS	ND	ND	3,5	5,2	5,7	7,7	7,5	6,7	-1,0	1,1
Gosez egon diren etxekoen unitateetan	ND	ND	0,8	1,3	1,0	2,1	1,2	1,7	-0,4	0,7
EU-SILC adierazleak										
Gutxienez bi egunean behin proteinarik jateko aukerarik ez	ND	ND	ND	3,4	2,3	3,6	3,1	3,4	-0,2	1,1
Arazoak ohiko betebeharrak eta gastuak estaltzeko										
Ez-ordaintzeak edo atzerapenak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak, etab.)	2,6	2,0	2,3	2,7	2,9	5,9	6,2	6,3	0,4	3,4
Hornidura-mozketak (ura, argia, telefonoa, etab.)	2,6	0,8	1,1	1,1	1,6	2,4	1,8	2,0	-0,4	0,3
Ondasunak enbargatzea	0,0	0,2	0,6	0,3	0,3	0,8	0,5	0,8	0,0	0,5
Ondasunak saltzea, etxebizitza- edo eskola-aldaketa	3,4	0,6	0,6	0,5	0,3	0,8	0,6	0,9	0,1	0,7
Bizirautearekin lotutako beste arazo batzuk										
Bigarren eskuko jantziak erabiltzea	ND	5,1	3,7	5,8	3,7	7,1	6,4	6,7	-0,4	3,0
Neguan tenperatura egokia mantentzeko arazoak	ND	4,2	5,3	5,5	4,1	8,3	11,0	8,9	0,6	4,7

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Nota: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

Gaur egun ez ditu oinarrizko gastuak estaltzen adierazlea eta bi egunik behin proteinadun jatordu bat eskuratzeari buruzko galdera alde batera utzita, gainerako kasuetan inguruabarrak inkesta egin aurreko urteko momenturen batean gertatu diren jasotzen du adierazleak.



Mant. 5.a taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, mantenuari/diru-sarrerei dagokienez (ongizate-gabeziaren eta zorpetze-arriskuaren adierazleak).1996-2016
Datu absolutuak
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Adierazleak	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Arazo ekonomikoak direla-eta ezin dute oporraldirik egin (astebete behingoz)	589.745	401.184	411.281	436.551	457.864	488.082	407.679	-11,0	-6,6
Ezin diete aurreikusi gabeko gastuei aurre egin	ND	ND	823.150	748.792	475.913	486.136	390.698	-17,9	
Zorpetze-arriskua	33.468	22.233	27.172	30.013	46.359	36.750	51.957	12,1	73,1

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2016an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%).

Ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasuna jasotzen duen datuak zenbateko jakin baten erreferentziaren eragina du 2012tik aurrera (800 €).

Mant. 5.b taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera, mantenuari/diru-sarrerei dagokienez (ongizate-gabeziaren eta zorpetze-arriskuaren adierazleak).1996-2016
Intzidentzia %-tan
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Adierazleak	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Arazo ekonomikoak direla-eta ezin dute oporraldirik egin (astebete behingoz)	27,8	19,4	19,7	20,3	21,1	22,6	19,0	-2,1	-1,3
Ezin diete aurreikusi gabeko gastuei aurre egin	ND	ND	39,5	34,8	21,9	22,5	18,2	-3,7	-
Zorpetze-arriskua	1,6	1,1	1,3	1,4	2,1	1,7	2,4	0,3	1,0

Iturria: PGDI 1996-2012 eta GZE-GPI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

Ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasuna jasotzen duen datuak zenbateko jakin baten erreferentziaren eragina du 2012tik aurrera (800 €).

1.1.3. Tarte edo distantziako eta desberdintasuneko PDGI adierazleak

PGDI metodoan, pobreziaren eta ongizaterik ez izateko arriskuaren intzidentzia-tasarako indize osagarriak ematen dira. Izan ere, erabilgarri dauden baliabideen eta ezarritako pobreziaren eta ongizaterik ezaren atalaseen arteko tarteari lotutakoak (Sen indizea) aztertzen dira, baita beste indize konplexuagoak ere (FGT izenekoak), erreferentziako atalaseetarako tarteak eta arriskuan dauden kolektiboaren arteko barne-desberdintasunak aztertzen dituztenak. FGT indizea (2) bereziki interesgarria da, pobrezian eta ongizaterik gabeko egoeran izateko arriskuan dauden pertsonen biztanleria osoarengan izango luketen eragina zenbatesteko balio duelako, baldin eta benetako diru-sarreraren eta beharrezkoen artean gaur egun dagoen desfase hau guztia diru-sarrerarik ez duten pertsonen arabera zenbatetsiko balitz.

* Sen indizeari dagokionez, arrisku-egoeran dauden biztanleen diru-sarreraren eta pobreziaren atalasearen artean %25eko tarteak izan da 2016. urtean (eta %47,8ko tarteak ongizaterik ezaren mugarekiko). Hortaz, pobreziako arrisku-egoeran dauden etxeko unitateek erabilgarri dituzten diru-sarrerak pobrezia-arriskua gainditzeko behar direnen % 75 dira, eta gure gizartean espero diren gutxieneko ongizate-mailetara hurbiltzeko behar direnen % 52,2. Ongizate-atalaseari dagokionez, pobreak izan ez, baina ongizate-gabeziaren arrisku-egoeran dauden familia-unitateei eragiten dien desfasea % 27,0koa da.

Beste alde batetik, FGT indizeak (2) pobrezia absolutu eta metatuaren % 1,76ko datua jaso du 2016an (erabat pobreak diren pertsonak dira, 0 baliabide dutenak) Erreferentziako proportzioa % 4,97 da erabateko ongizate-gabezia duten pertsonen eraginean.

Datu horiek, lehen aldiz 2008. urteaz geroztik, aldaketa adierazgarri bat erakutsi dute FGT (2) indizeak urte horretatik aurrera izan duen goratze-joerarekiko. Pobreziaren alderdian, indizeak % 0,78tik % 2,18ra egin du 2008 eta 2014 urteen bitartean, eta % 1,76ra jaitsi da 2016an. Maila hori 2000 eta 2012 urteetako mailen antzekoa da (% 1,77 eta % 1,64), eta nabarmen behetik dituen bakarrak 2004ko % 1,18a eta 2008ko % 0,78a dira. Diru-sarreretako pobreziaren arriskua % 8,2tik % 7,1era jaitsi izana da 2014-2016 urteen bitartean izan den hobekuntzaren arrazoietako bat. Beste bat da jaitsi egin dela pobreziaren atalaserako tarteak edo distantzia neurtzen duen Sen indizea, % 26,6koa izan baitzen 2014an, eta % 25ekoa 2016an. Dena den, datuak konparatzen hasita, handia da Sen indizeak 2016an erakutsi duen balioa. 2014. urteko datuaren ondoren, inoizko bigarren datu handiena da (% 23,7), 1986an izan zenaren gainetik.

Ongizaterik ezaren edo gabeziaren egoera guztiei erreparatuta, FGT (2) indizeak gora egin zuen 2008tik (% 3,28) 2014ra (% 6,06), eta behera egin du berriro 2016an (% 4,97). Beherakada ehuneko puntu 1etik gorakoa izan da, eta ongizaterik ezaren tasa jaitsi izana da beherakada horren erantzule nagusia (% 21,9tik % 18,4ra). Atalasearekiko tarteak edo Sen indizea % 27,6tik % 27ra jaitsi da 2014 eta 2016 urteen bitartean.



2016an, FGT (2) indizeak, hala ere, maila nahiko apalak erakusten ditu datuak konparatuz gero; izan ere, 2012an izan zen % 4,92tik gertu dago, eta 2008ko % 3,28a soilik gainditzen du nabarmenki. Egoera horren arrazoietakoa bat da ongizaterik ezaren adierazle den tasak behera egin duela 2014 eta 2016 urteen bitartean, baina ez da bakarria; izan ere, Sen indizeak krisi-urteetan izan duen igoera ez da izan pobrezia-aren bezain handia, 2008ko % 20tik 2014ko % 27,6ra igo baita denbora-bitarte horretan (pobrezia-aren atalaserako tarteak, berriz, % 13,7tik % 26,6ra egin du denbora horretan).

Mant. 6.a taula

Mantenu-pobrezia-aren inaktuarekin lotutako estatistika-indizeak (mantenua). PGDI metodoa. 1986-2016
Pobrezia-tasa, Sen indizea, FGT (2) indizea, eta pobrezia-atalasearekiko baliabiderik gabeko lagun baliokideak

Urtea	Pobrezia-tasa	Sen indizea atalasearekiko distantzia	FGT (2) HI indizea	Baliabiderik gabeko lagun baliokideak	Etxekoen unitateen oinarria
1986	11,7	23,7	2,77	59.015	594.550
1996	13,3	22,0	2,93	62.207	674.954
2000	7,9	22,5	1,77	36.674	688.227
2004	5,6	21,1	1,18	24.541	742.753
2008	5,7	13,7	0,78	16.741	797.372
2012	7,3	22,6	1,64	35.575	856.588
2014	8,2	26,6	2,18	47.009	876.999
2016	7,1	25,0	1,76	37.719	876.683

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Mant. 6.b taula

Mantenu-alarreko ongizaterik ezeko egoeren inaktuarekin lotutako estatistika-indizeak. PGDI metodoa. 1986-2016

Ongizate-gabeziaren tasa, Sen indizea, FGT (2) indizea, eta pobrezia-atalasearekiko baliabiderik gabeko lagun baliokideak

Urtea	Ongizate- gabeziaren tasa	Sen indizea atalasearekiko distantzia	FGT (2) HI indizea	Baliabiderik gabeko lagun baliokideak	Etxekoen unitateen oinarria
1986	59,3	31,9	18,92	402.759	594.550
1996	36,3	28,8	10,46	221.981	674.954
2000	24,7	27,0	6,69	138.557	688.227
2004	21,9	25,6	5,60	116.650	742.753
2008	16,4	20,0	3,28	70.663	797.372
2012	19,9	24,7	4,92	106.894	856.588
2014	21,9	27,6	6,06	130.740	876.999
2016	18,4	27,0	4,97	106.579	876.683

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-GPI 2014

1.2. Pobrezia eta prekaritatea metatze-alorrean (ondarea eta epe luzeko bizi-baldintzak)

1.2.1. Metatze-pobreziaren PGDI adierazleak

- * 2014. urteko berrikuntza izan zen gora egin zuela metaketa-pobreziaren adierazleak (epe luzeko bizi-baldintzen eta erreserbako gutxieneko ondarea izateko aukeren berri ematen du adierazle horrek). Hori horrela, pobrezia mota horren eraginak % 1,4etik % 2rako igoera izan zuen 2012 eta 2014 urteen artean, krisi-urteetako lehen igoera. Adierazleak % 3,6 eta % 4,2 bitarteko emaitzak eman zituen 1996-2004 urteen bitartean, baina, gerora, beheranzko joera izan zuen, % 1,5eko emaitza eman baitzuen 2008an eta inoizko txikiena, % 1,4koa, 2012an.

Azken bi urteetan, 2014-2016 urteen bitartean, beherazko joerari berrekin dio pobrezia-adierazle horrek, % 2tik % 1,6ra egin baitu. Hori horrela, EAEn inoiz izan dituen maila apalenetara bueltatu da adierazle hori 2016an, hau da, 2008 eta 2012 urteetako % 1,4 eta % 1,5 emaitzen ingurura. 2016an, 34.158 pertsona izan dira pobrezia-egoera horretan; 2008an, berriz, 32.838 pertsona izan ziren egoera horretan, % 4 gehiago. Datu hori inoizko apalena baino % 9,9 handiagoa da (31.094 pertsona, 2012an).

- * Oro har hartuta, ongizaterik ezaren edo gabeziaren modu guztiek, metatuta, biztanleriaren % 17ari erasan zioten 2016an, eta aldatu egin zen, erabat, adierazle horrek 2014ak erakutsi zuen goranzko joera. Ongizaterik ezaren tasak, mantenuaren ikuspegian, % 20ko datua iritsi zuen 2014an, inoizko bigarren datu handiena, 1996ko % 25,3aren atzetik. Aitzitik, 2016ko datuak serieko emaitzarik apalena erakutsi du, 2012ko % 17,5a eta 2000ko % 17,2a baino txikiagoa den aldetik.

Kontrako egoerari begiratuta, hau da, behatuta zenbat pertsona dauden dauden ongizate osoko egoeran, epe ertain edo luzeko gabeziarik izan gabe haien ondarean eta bizi-baldintzetan, ikusten da ehunekoak gora egin duela, beste maximo bat iritsi baitu 2016an, % 42,7ko datuarekin. Datu hori 2012ko % 40,1a eta 2014ko % 41,4a baino handiagoa da, eta 2008ko % 34,2a baino nabarmen handiagoa.

Egoera ertainean, hau da, gutxienezko ongizate bat bai, baina ongizate erabatekorik gabeko egoeran dagoen pertsona multzoaren beheraka nabarmena izan da prozesu horren ondorioetako bat 2014ra arte. Talde hori gehiengo zen 2004an (% 51,5), baina behera egin zuen etengabe, harik eta biztanleriaren % 38,6 izan arte 2014an. Ongizaterik ezaren edo gabeziaren arazoek, 2014 eta 2016 urteen bitartean, behera egin dutenez, datua % 40,3ra igo da; hala ere, inoizko bigarren emaitzarik apalena da 1996az geroztik.



Met.1. taula
Pobreziaren eta ongizate-gabeziaren arriskuari buruzko PGDI adierazleak metatzeari dagokionez (2012ko hurbilketa). 1996-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
(Datu absolutuak)

Egoera	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Pobrezia	76.127	87.542	74.759	32.838	31.094	43.083	34.158	9,9	4,0
Ongizate gabeziaren beste era bat	459.791	268.400	330.546	367.811	349.353	388.535	330.175	-5,5	-10,2
Ongizate-gabezia	535.918	355.942	405.306	400.649	380.447	431.618	364.332	-4,2	-9,1
Ongizate minimoa	1.079.596	1.024.809	1.072.864	1.014.549	920.132	833.964	862.597	-6,3	-15,0
Erabateko ongizatea	506.063	689.649	606.012	736.587	870.676	892.547	915.610	5,2	24,3
Guztira	2.121.577	2.070.400	2.084.181	2.151.785	2.171.254	2.158.129	2.142.539	-1,3	-0,4

(Intzidentzia %-tan)

Egoera	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Pobrezia	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0	1,6	0,2	0,1
Ongizate gabeziaren beste era bat	21,7	13,0	15,9	17,1	16,1	18,0	15,4	-0,7	-1,7
Ongizate-gabezia	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0	17,0	-0,5	-1,6
Ongizate minimoa	50,9	49,5	51,5	47,1	42,4	38,6	40,3	-2,1	-6,9
Erabateko ongizatea	23,9	33,3	29,1	34,2	40,1	41,4	42,7	2,6	8,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharrak: Datu absolutuen atalean, bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2016an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondakoen kopuruaren arteko aldaketa (%)
 Intzidentziaren atalean (%-tan), bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

1.2.2. Gabeziaren eta metaketaren adierazleak

* Berriaz ondareari eta bizi-baldintzei erreparatzen dieten adierazleak aztertuz gero, 2014 eta 2016 urteen bitartean prekaritatearen esparruan ikusi den hobekuntzari buruzko informazio osagarria eskuratzen da. Suspertze ekonomikoarekin batera gertatu da hobekuntza hori.

Gutxienez astebeteko oporraldia hartzeko aukerarik ez duten etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoa da bilakaera horren erakusle argienetako bat. Datuak etenik gabe egin du behera 1996. urteko % 47,7tik 2012. urteko % 36,4ra, eta, gerora, 2014an, % 41,6ra igo zen berriro. Azken datu hori 2000-2012 epean izandako handiena baino handiagoa da (2000an iritsi zen bitarte horretako maximoa: % 39,4). Alabaina, adierazle horrek beste jaisiera handi bat izan du 2016an, eta % 38,3ko datua eman du. 2008 eta 2012 urteen bitarteko % 36,4 -% 37 datuak soilik dira hura baino handiagoak.

Jaisiera-ehunekoa handiagoa da gabezia hori arrazoi ekonomikoaren ondorioz sortua zaiela adierazi duten familietan. Jaisiera, egoera horretan dauden pertsonen artean, % 22,6tik % 19rako izan da 2014 eta 2016 urteen bitartean, eta 1996az geroztik izan den mailarik apalena erakusten du.

- * Hala ere, 2012 eta 2014 urteen bitartean erakutsi duten dinamika negatiboari eutsi diote epe ertain eta luzeko aurrezte-ahalmenaren alorreko zenbait kontsumo-adierazlek. Hori horrela, krisiaren eragin nabarmena izan du epe luzeko kontsumoaren adierazle nabarmenetako batek, 10 urtetik beherako adina duten ibilgailuen eskurapenaren berri ematen duenak. Adierazle horrek % 37,2 eta % 39,3 bitarteko datuak erakutsi zituen 1996 eta 2008 urteen bitartean, baina ondasun hori eskuratzeko aukerarik gabeko etxeetan bizi diren pertsonen proportzioa % 49ra igo zen 2012an, % 50,6ra 2014an eta % 54,2ra 2016an. PGDI adierazleak inoiz emandako ehuneko handiena da, 1986an adierazi zuen % 51,9 baino handiagoa.
- * Metatzearen dimentsioa aztertzen duten adierazleen bilakaerak izan duen alderdi negatiboen artean dago, era berean, biztanleen ondarearen murrizte-prozesua, indartu egin baita 2014 eta 2016 urteen artean. Izan ere, kalkuluen arabera, EAEko biztanleriaren ondare osoak etengabe egin zuen gora 1996 eta 2008 urteen bitartean, eta % 11,1 egin du behera 2008 eta 2016 urteen bitartean. Beherakada % 10,7koa da *per capita* ondarean: 116.688 eurokoa zen 2008an, 106.546 eurokoa 2012an, 105.714 eurokoa 2014an, eta 104.214 eurokoa izan da 2016an. Hala ere, ikus daitekeen moduan, 2008-2014 laurtekoan gertatu da jaitsierarik nabarmenena.

Jabetzako etxebizitzaren balio-galeraren ondorio izan zen, soil-soilik, 2012ra arte. Hala ere, 2012 eta 2014 urteen bitartean, gainerako ondare-ondasunei zabaldu zen jaitsiera-prozesua, aurrezkiaren kasuan izan ezik.

2014 eta 2016 urteen bitartean, sakondu egin da lehen etxebizitzaren balio-galera, % 22,2koa izan baita denbora-bitarte horretan. Hala ere, 2014 eta 2016 urteen bitartean, gora egin du gainerako ondare-ondasunen balioak, eta konpentsatu egin da 2012-2014 epeko galera. Balio hori, 2016. urtean, 2008koa baino % 0,4 handiagoa da.

Datu horiekiko kontraste nabarmena adierazten du biztanleriak metatutako aurrezkiak, gorako joerari eutsi baitio 2012 eta 2016 urteen bitartean. Zenbatetsitako aurrezki guztizkoa, 2016an, 29.449 milioi eurotako da (2008. urteko 11.826 milioiak baino +% 149). Inolako aurrezkirik gabeko etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoak beste minimo bat erakutsi du 2016an (% 21,6). Datu hori 2014ko % 21,8aren oso antzekoa da, baina 2014ko % 23,5a eta 2008ko % 28,5a baino nabarmen apalagoa.

Joera horren ildo paralelo bat erakutsi du etxeko gastu arruntari gutxienez urtebetean aurre egiteko behar den aurrezkirik gabe bizi diren biztanleen ehunekoak, % 48,1etik % 47,6rako bilakaera izan baitu 2014 eta 2016 urteen bitartean. Datua 2012ko minimotik (% 47,3) gertu dago, eta 2000 eta 2008 urteen bitartean izan ziren % 57,6 eta % 57,8 bitarteko datuak baino hamar puntu apalagoa da.

Aurrezkiaren bilakaera positibo horrekin batera, behera egin du, 2014 eta 2016 urteen bitartean, etxebizitza-sarbiderako gastuak dituzten etxeetan (etxebizitzaren jabetza erabat amortizatu gabe dutelako edo alokairuan bizi direlako) bizi diren biztanleen ehunekoak. Datuak % 31,2tik % 23,5era



murriztu zen 1986 eta 1996 urteen bitartean, eta, hortik aurrera, etengabe egin zuen gora (% 45,8 izan zen 2012an eta % 47,6 izan zen 2014an). Datua, 2016. urtean, % 44,6koa izan da, aurreko biak baino apalagoa.

Ohiko etxebizitzatik aparteko ondare-ondasunen edukitzaren bilakaerak ez du joera horren onik erakutsi. Ondasun mota hori eskuratzeko ahalmenik gabeko etxeen bolumena % 68,9koa izan zen 2012an. Datua % 71,4ra igo da, eta aurreko % 70,6a baino handiagoa da.

- * Alderdi negatiboari begiratuz gero, nabarmendu behar da eutsi egin zaiola gutxieneko ondare-baliabideak izateko ahalmenik gabe bizi diren biztanleen ehuneko handitzeko ildoari. EAEko mediana baino % 40tik beherako *per capita* ondarea duen biztanleriaren bolumenak % 17,6ko maximoa iritsi du 2016an. Gertukoak ditu aurreko urteetako datuak, baina txikiagoak beti (% 16,5koa izan zen 2012 eta 2014 urteetan eta % 14,1ekoa 2008an). Datu horien gainean adierazi behar da egiturazko joera bat erakusten dutela, eta ez une jakin bateko egoera bat; izan ere, igoera ia etengabea izan da 1996ko % 11,1az geroztik, nahiz eta % 15,6tik % 14,1erako jaitsiera apal bat izan 2004-2008 laurtekoan.

Bestalde, % 8,1ekoa izan da, 2016. urtean, EAEko medianaren % 40 eta %60 bitarteko *per capita* ondarea duten pertsonen proportzioa. Ehuneko horrek etengabe egin zuen behera 1996an % 10,9ko ehuneko iritsi ondotik, eta % 7,5aren inguruko datuak erakutsi zituen 2008an eta 2012an. Gerora, 2014an, gora egin zuen berriro biztanleria zati horren ehunekoak, % 9,5era. Bilakaera horri begiratuta, 2004-2012 bitarteko urteetan izandako datuen parean ageri da 2016ko % 8,1 hori. Edonola ere, adierazitako prozesu horien ondorio da medianaren % 60tik gorako *per capita* ondarea duten pertsonen ehuneko inoizko baliorik txikiak erakusten ari dela 2016an (% 74 izan zen 2014an, eta zertxobait handiagoa, % 74,3, aurten).

- * Hala ere, etxebizitzaren instalazioen eta horien bizigarritasun-baldintzen gaineko adierazle bilakaerak finkatu egin du, oro har, 2014ra arteko dinamika positiboa. Hori horrela, esan daiteke ia erabat desagertu direla etxebizitzetako oinarrizko instalazioen (ur beroa, argindarra, bainuontzia edo dutxa eta komuna) arazo larriak, eta finkatu egin dela desagertze-joera hori.

Zenbait arazok gorakada txiki bat izan dute 2014. urteko datuekiko; esaterako, entzuten den zarata eta pairatzen den kontaminazioa (balio minimoa, % 8,5, 2014an erakutsi ondoren, % 9,2 izan zen aurreko urtean) eta etxean argindarrik ez izatea (balio minimoa, % 3,3, 2014 erakutsi ondoren, % 5,4 izan zen aurreko urtean), baina, datuen alderaketa eginda, maila apalak dira. Etxebizitzaren azalera txikiegiaren adierazleak izan du bilakaera positibo onena, beste minimo bat iritsi baitu 2016an (% 12,7).

Bilakaera ona izan du, era berean, etxebizitzaren ekipamenduaren adierazleak, oinarrizko ekipamenduen gabeziak maila minimoak iritsi baititu, biztanleriaren % 1eko edo txikiagoko ehunekoekin.

Met. 2. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak)
Ondare-baliabideak eskuratzea. 1996-2016

Ondare-baliabideen (milioi €-tan) eta guztizko *per capita* ondarearen (€-tan) balio estimatua.

Ondare-baliabidea	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Lehenengo etxebizitza	51.615	84.317	142.308	205.520	176.229	170.304	159.968	-9,2	-22,2
Aurrezkiak	5.079	7.853	8.056	11.826	20.042	24.536	29.449	46,9	149,0
Beste ondare batzuk	8.447	17.394	18.642	33.742	35.068	33.304	33.865	-3,4	0,4
Guztizko ondarea	65.140	109.564	169.006	251.088	231.339	228.144	223.282	-3,5	-11,1
Guztizko ondarea, per capita	30.704	52.919	81.090	116.688	106.546	105.714	104.214	-2,2	-10,7

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharrak: Bilakaera-adierazleak aldaketa %-tan erakusten du 2014ko ondare-bolumena 2008an eta 2012an zegoenarekin alderatuta, hurrenez hurren.

Per capita guztizko ondareari buruzko datuak per capita hurbilketa batean oinarritzen dira, berdintasun-faktoreak alde batera utzita.

Met. 3. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak)
Ondare-baliabideak eskuratzea. 1986-2016. Intzidentzia %-tan
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Gutziz ordaindu gabeko ondasuna, alokairua eta antzekoak	31,2	23,5	26,7	34,0	41,7	45,8	47,6	44,6	-1,2	2,8
Aurrezkiak eza	ND	42,7	29,8	33,8	28,5	23,5	21,8	21,6	-1,9	-6,9
Urtebeteko gastuari aurre egiteko nahikoa aurrezkiak eza	ND	68,4	57,6	63,1	57,8	47,3	48,1	47,6	0,3	-10,2
Hamar urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez	51,9	37,2	39,3	38,8	38,7	49,0	50,6	54,2	5,2	15,6
Bestelako ondare-ondasunik ez (etxebizitza edo aurrezkiak)	ND	78,6	71,7	77,5	73,4	70,6	68,9	71,4	0,9	-2,0
Gutxienez astebeteko oporraldirik ez	ND	47,7	39,4	38,8	37,0	36,4	41,6	38,3	1,9	1,3
Gutxienez astebeteko oporraldirik ez (arrazoi ekonomikoengatik)	ND	27,8	19,4	19,7	20,3	21,1	22,6	19,0	-2,1	-1,3
Per capita ondarea < medianaren % 40	ND	11,1	13,7	15,6	14,1	16,6	16,5	17,6	1,0	3,5
Per capita ondarea < medianaren % 40	ND	10,9	10,5	8,4	7,5	7,6	9,5	8,1	0,5	0,6
Per capita ondarea < medianaren % 60	ND	78,0	75,8	75,9	78,4	75,8	74,0	74,3	-1,5	-4,1

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).



Met. 4. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak)
Etxebizitzaren instalazioak eta bizigarritasun-baldintzak. 1986-2016
Intzidentzia %-tan
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Etxebizitzaren oinarrizko instalazioak										
Ur berorik gabe	3,6	0,6	0,3	0,9	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0	-0,1
Instalazio elektrikorik gabe	ND	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Bainuontzirik edo dutxarik gabe	4,7	0,4	0,3	0,9	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	-0,3
Komunik edo bainuontzirik/dutxarik gabe	ND	0,4	0,3	0,9	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	-0,3
Bizigarritasun-baldintzak										
Hezetasun-arazoak dituen etxebizitza	29,9	5,1	8,9	9,6	7,7	8,8	11,8	12,3	3,5	4,6
Azalera < 20 metro koadro/pertsona bakoitzeko	44,1	32,5	28,5	21,3	15,0	14,9	13,3	12,7	-2,2	-2,3
Zaratekiko/kutsadurarekiko esposizioa	ND	20,2	20,2	16,0	11,0	13,9	8,5	9,2	-4,7	-1,8
Argiztapenik gabe, ez du nahikoa argirik	ND	ND	ND	8,8	5,7	12,2	3,3	5,4	-6,8	-0,3

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-GPI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

Met. 5. taula
Zenbait gabetze-adierazle espezifikoren bilakaera metatzeari dagokionez (ondarea eta bizi-baldintzak)
Etxebizitzaren ekipamendua. 1986-2016
Intzidentzia %-tan
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Hozkailua	ND	0,1	0,1	0,8	0,1	0,0	0,0	0,1	0,1	0,0
Sukaldeko ekipamendua	5,8	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Arropa-garbigailua	6,0	0,6	0,3	0,3	0,1	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0
Labea edo mikrouhin-labea	ND	4,6	5,2	5,1	1,8	0,9	0,6	1,0	0,1	-0,8
Koloretako TB	26,4	0,7	0,4	1,2	0,4	0,1	0,1	0,5	0,4	0,1
Telefonia	ND	ND	ND	1,9	0,6	0,2	0,2	0,3	0,1	-0,3
Oinarrizko ekipamenduetan bi gabezia edo gehiago izatea	ND	0,4	0,2	0,9	0,1	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0
Oinarrizko ekipamenduetan gabezia bat	ND	2,2	1,7	2,1	1,1	0,6	0,7	0,3	-0,3	-0,7
Oinarrizko ekipamenduetan gabeziaren bat	ND	2,5	1,9	3,0	1,2	0,6	0,8	0,4	-0,2	-0,8

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2012 eta GZE-GPI 2014

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

Oinarrizko gabeziaren adierazle sintetikoak bakarrik lotzen dira xedapenik ez izatera, baliabide ekonomikoen faltagatik.



Hala ere, hondatzeko joera ageri du etxebizitzaren bizigarritasun-baldintzen alderdi nabarmen batek. Izan ere, hezetasun-arazoak dituzten etxebizitzetan bizi den pertsonen proportzioa % 7,7koa zen 2008an, eta orduz geroztik gorantz egin du adierazle horrek. Horixe bera ikus daiteke 2016an ere. Goranzko joerak eten bat izan zuen 2012an, arazo hori zeukatenen proportzioa % 8,8koa izan baitzen urte horretan, baina goranzko joera agerikoagoa izan zen 2014an, % 11,8ra iritsi baitzen. Goranzko joerari eutsi zaio 2016an, biztanleriaren % 12,3ko datua eman baitu adierazle horrek. Ehuneko horrek gainditu egiten du 1996-2012 urte-bitarte guztian izan den datua, eta 1986. urteko datuak soilik gainditzen du (% 29,9)¹⁴.

1.3. Benetako pobrezia eta prekaritatearen adierazle sintetikoak

1.3.1. Alderdi orokorrak

Aztertu diren arazoek eta arrisku-egoerek ez dakarte, modu automatikoan, pobrezia eta prekaritatearen bizipen benetako bat. Bizipen hori izateko urratsa emango den ala ez erabakitzeke, ikusi behar da ba ote dagoen ongizate-elementuren bat aztertutako dimentsio horietakoren batean (mantenuarenean edo metatzearenean), arazo edo arrisku horiek konpentsatuko dituen.

Europar ikerketa aplikatuak egiteko erabili ohi diren arrisku-adierazleak erabiltzeaz gain, ezinbestekoa da, beraz, pobrezia eta ongizaterik gabeko egoera errealean inaktua neurtzeko adierazleak baliatzea. Benetako pobrezia eta prekaritatearen PGDI adierazleen xedea da mugatzea zer egoeratan ez diren behar adina konpentsatzen, biztanleriaren eguneroko bizitzan, pobrezia eta prekaritatearen dimentsio horietan izaten diren beharrezko gabezia-arriskuak. Horien bidez, jakin nahi da gure gizarteak zer gutxieneko ongizate-maila iristea espero duen.

* Printzipio horiek aintzat hartuta, PGDI metodoak hauteman du benetako pobrezia eraginak oso beherakada txikia izan duela 2014tik 2016ra, % 5,9tik % 5,7ra jaitsi baita. Benetako pobrezia tasak oso beherakada txikia izan du 2014 eta 2016 urteen bitartean, baina 2012ko % 5,3ra eta 2000. urtean izandako % 5,1era gerturatzen da. Alabaina, pobrezia eraginak edo intzidentziak, 2016an, tarte handiagoz gainditzen ditu 2004 eta 2008 urteetan zenbatetsi ziren % 4,5eko eta % 4,2eko datuak. Izan den jaitsierak, hori bai, handitu egiten du 2016ko datuak 1996an izan zen % 8,7arekiko eta 1986an izan zen % 16,1arekiko ageri duen aldea.

Zenbateko absolutuei begiratuz gero, 122.566 pertsonak bizi izan du benetako pobrezia, hau da, 2014an baino % 3,8 gutxiagok (127.399 pertsona). Hala ere, zenbatekoa % 36,6 handiagoa izan zen 2008an (89.706 pertsona).

¹⁴ Adierazi behar da hezetasun-arazoak dituzten etxebizitzaren adierazlearen gorakadak lotura estua duela beren etxebizitza tenperatura egokian izateko arazoak dituzten pertsonen ehunekoaren igogerarekin.

Murrizteko joerak ildo askoz ere nabarmenagoa ageri du ongizaterik gabeko egoera erreal edo benetakoen kasuan. Benetako pobrezia-egoera hertsia aintzat hartuta, arazo horien tamaina % 11,5etik % 10,8ra jaitsi da 2014 eta 2016 urteen bitartean. Jaitsiera horrekin, tasa 2012an izan zuen % 10,1era gerturazten ari da, eta 1986 eta 2004 urteen bitartean izandako mailetatik behera ageri da (bitarte horretako minimoa % 11koa izan zen, 2000. urtean). Datu horrek, beraz, 2008an izan zen inoizko minimoarekin (% 8,2) soilik ageri du alde nabarmen bat. Urte horrekin alderatuta, egoera horretan dauden pertsonen bolumena % 31,2 handiagoa izan da 2016an (175.668 pertsona zeuden egoera horretan 2008n, eta 230.516 pertsona 2016an). Hala ere, 2014an egoera horretan zeuden 247.954 pertsonena baino % 7 txikiagoa izan da 2016an.

Aldi baterako gorakadaxo bat izan zen 2012 eta 2014 urteen bitartean, baina 2014 eta 2016 bitartean berriro egin du beherantz mugako egoeran dauden pertsonen multzoaren bolumenak, hau da, ongizateko adierazleak izan bai, baina arriskuren bat bizi dutenen pertsonenak. Egoera horretan dauden pertsonen bolumenak etengabe egin du behera 1986ko % 36,3ko datutik 2012. urteko % 18,1ra, baina biztanleria guztiaren, % 19,7ra igo zen 2014an. Ehunekoak nabarmen egin du behera 2016an; izan ere, datua % 14,6koa izan da, 1986. urteaz geroztik izan den txikiena.

Behera egin dute pobrezia edo ongizate-gabeziako arazoren bat duten etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoak eta ongizate-egoera orokorra baldintzatzen duen arriskuren bat bizi duten etxeetan bizi direnenak; hori horrela izanda ere, gorakada txiki bat izan du, 2014 eta 2016 urteen bitartean, ongizate betea izatea mugatzen duen bigarren mailako elementuren bat ageri duten pertsonen multzoan dauden ehunekoak. Ongizate ia betean, baina ez erabatekoan, bizi diren pertsonen kolektiboak gero eta bolumen handiagoa izan du euskal gizartean 1996etik 2004era, % 21,2 izatetik % 41,4 izatera igaro baita. Urte horretatik aurrera, ehunekoak behera egin du (% 30,2ra iritsi arte 2014an), eta berriro egin du gora 2016an. Talde horrek, aurreko urtean, biztanleriaren % 34,1 bildu du.

Edonola ere, 2014 eta 2016 urteen bitartean, eutsi egin zaio erabateko ongizatea duten etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoak daraman goranzko joerari. Etxe horietan ez dute diru-sarreraren edo metatzearen alorreko gabeziarik bizi (ondarean eta bizi-baldintzetan). Datu horrek inoizko markarik handiena ezarri du beste behin 2016an, lehen aldiz igaro baitu % 40ko langa. Datua, 2016an, % 40,5ekoa izan da, eta nabarmen gaitzen ditu 2012 eta 2014 urteetako % 37,4a eta % 38,7a; gainera, 8,5 puntutan gaitzen du 2008. urteko % 32a.

Oro har hartuta, 2014-2016 epeko berritasun nagusia da nabarmen jaitsi dela pobrezia erasandako taldeen ehunekoa, bestelako ongizate-gabeziak dituztenena eta ongizateaz gozatzeko mugaren bat izateko arriskua dutenena. Egoera horien eraginak % 65,6 egin zuen behera 1986an, eta % 27,5eko datua eman zuen 2008an. Adierazitako egoera horiek gorakada bat izan zuten 2008 eta 2012 urteen bitartean; izan ere, biztanleriaren % 28,1 zegoen egoera horietakoren batean 2012an, eta % 31,1 izan ziren 2014an. Alabaina, 2016an, % 25,4ko datua eman du, 1986az geroztik izan den apalena. Datu hori 2008koa baino 2,1 puntu apalagoa da, eta kontuan izan behar da geraldiki ekonomikoaren une gorena izan dela urte hori.



Parentesi bat gertatu zen 2012-2014 urteen bitartean, euskal gizartean lehen aldiz gailendu baitziren, 1996az geroztik, beherazko mugikortasun-prozesuak, baina 2014 eta 2016 urteen bitartean, berriro ere gailendu da, pobrezia-ongizatea eskalan, goranzko aldera egiteko joera nabarmen bat. Denbora-epe horretan, % 31,1etik % 25,4ra jaitsi da (-5,7 puntu) gabeziak edo arrisku motaren bat duten pertsonen ehunekoa, eta, horrekin batera, ehuneko 4 puntu inguru handitu da ongizate ia erabatekoa duten pertsonen multzoa, eta 1,8 puntu egoera hobereanean, ongizate osoko egoeran, dauden pertsonen taldea.

Nabardura handiagoko egoera da 2016koa, 2008ko egoerarekin alderatuta. Alde batetik, ongizate-egoera ertainean dauden taldeen (arriskuren bat dutenen edo ongizate ia erabatekoan bizi direnen) proportzioak % 59,9tik % 48,8ra egin du behera (-11,1 puntu), eta talde horretatik irten diren ia gehienak ongizate osoko egoerara igaro dira (% 32etik % 40,5era igo da talde hori, 8,5 puntu gehiago). Hala ere, handitu egin da, era berean, benetako pobrezia-egoeran edo ongizaterik gabe bizi diren taldeen proportzioa (+2,6 puntu bi taldeak; baina, banakatuta, igoera handiagoa izan du benetako pobrezia-egoeran dauden taldeak, +1,6 puntukoa, pobrezian izan ez, baina ongizaterik gabe bizi diren taldeak baino, +1,0 puntukoa).

R1 taula
Egoeren bilakaera benetako pobrezia/ongizatea eskalan
PGDI adierazleak (2012ko hurbilketa). 1996-2016. Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
(Datu absolutuak)

Kokapena eskalan	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Pobrezia	185.360	106.376	93.835	89.706	114.696	127.399	122.566	6,9	36,6
Ongizate gabeziaren beste era bat	165.355	120.607	139.149	85.962	103.536	120.555	107.950	4,3	25,6
Ongizate-gabezia	350.715	226.983	232.984	175.668	218.232	247.954	230.516	5,6	31,2
Ongizate eta arrisku elementuak	621.877	451.190	430.595	416.087	392.111	424.111	313.753	-20,0	-24,6
la erabateko ongizatea	723.264	782.334	863.390	872.089	748.214	650.989	731.159	-2,3	-16,2
Erabateko ongizatea	425.721	609.894	557.213	687.941	812.698	835.074	867.110	6,7	26,0
Guztira	2.121.577	2.070.400	2.084.181	2.151.785	2.171.254	2.158.129	2.142.539	-1,3	-0,4

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2016an kaltetuta egon diren pertsonen kopuruaren eta 2008an eta 2012an, hurrenez hurren, egondako kopuruaren arteko aldaketa (%).

R2 taula
Egoeren bilakaera benetako pobrezia/ongizatea eskalan
PGDI adierazleak (2012ko hurbilketa). 1986-2016. Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
(Intzidentzia %-tan)

Kokapena eskalan	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Pobrezia	16,1	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9	5,7	0,4	1,6
Ongizate gabeziaren beste era bat	13,1	7,8	5,8	6,7	4,0	4,8	5,6	5,0	0,3	1,0
Ongizate-gabezia	29,3	16,5	11,0	11,2	8,2	10,1	11,5	10,8	0,7	2,6
Ongizate eta arrisku elementuak	36,3	29,3	21,8	20,7	19,3	18,1	19,7	14,6	-3,4	-4,7
la erabateko ongizatea	21,2	34,1	37,8	41,4	40,5	34,5	30,2	34,1	-0,3	-6,4
Erabateko ongizatea	13,2	20,1	29,5	26,7	32,0	37,4	38,7	40,5	3,0	8,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	0,0	0,0

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharra: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

- * Bestalde, benetako pobreziaren adierazle objektiboek, 2016an, gizartearen pertzepzioari berari dagozkionak gainditzeko joerari eusten jarraitzen diotela ikusten da. Alde horretatik, 2016ko adierazleak erakusten du % 5,7 direla benetako pobrezia-egoeran daudenak, baina EAEn beren burua *pobre* edo *oso pobre* ikusten dutenen ehunekoa askoz ere txikiagoa da, % 3k soilik ikusten baitu bere burua egoera horretan. Igoera 0,9 puntukoa da soilik 2008ko % 2,1arekiko, baina proportzioa handitu egin da 2014. urtean izan zen % 2,6arekiko.

Aintzat hartuz gero zenbat pertsonak uste duen etxe *gutxienez pobre samar* batean bizi dela, % 6,2ko datua nabarmentzen da, 2008koa baino 0,3 puntu handiagoa. Datu horrek ez du gainditzen, era berean, hurbilketa objektiboaren arabera benetako ongizatearen gabeziako egoeran daudenen datua, % 10,8koa.

R3 taula
Benetako pobreziaren adierazleak. Pertzepzio subjektiboa. 1986-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
(Intzidentzia %-tan)

Adierazleak	1986	1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	Bilakaera 2012/2016	Bilakaera 2008/2016
Pobrea edo oso pobrea	17,6	2,1	2,2	3,2	2,1	3,0	2,6	3,0	0,0	0,9
Gutxienez pobre samarra	72,8	7,8	6,5	7,6	6,5	7,9	7,2	6,2	-1,8	-0,3

Iturria: GEABA-1986, PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

Oharrak: Bilakaeraren adierazleak hauxe erakusten du: 2008 eta 2012 edo 2016 urteen artean kaltetuta egon diren pertsonen aldakuntza absolutua (%).

«Gutxienez pobre samarra» kategoriako 1986ko datua urte horretan baliatutako kategorizazioaren arabera da.

1.3.2. DSBE/EPO/GLL sistemaren eragina

Pobrezia objektiboaren eta egoera horren gaineko pertzepzio subjektiboaren artean dagoen desfasea beste elementu batek ere azal dezake: DSBE/EPO/GLL sistemak Euskadin duen eragina. Benetako pobrezia-egoeran dauden familietako biztanleak aintzat hartuta¹⁵, honako alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- * Etxeetako egoerari begiratuta, 134.563 pertsona daude DSBE/EPO/GLL sistemari sartuta. Zenbateko hori 2012. urtean izan zen 133.217 pertsonako datuaren oso antzekoa da, baina 2008an egoera horretan zeuden 83.023 pertsonako datua baino % 62,1 handiagoa. EAeko biztanleriaren % 6,3 dago egoera horretan —2012an % 6,1 ziren, eta % 3,9, berriz, 2008an—. Ehunekoa, 2014. urtean, % 7koa izan zen; izan ere, sistemak 151.591 pertsona hartu zituen urte horretan.

¹⁵ Arrisku-egoeran daude benetako pobrezia egoeran dauden pertsonak, baina baita prestazioen sistemara sartzeko funtsezkoak diren arazo ekonomikoak dituzten pertsonak ere.



Arrisku-egoeran zeuden 194.060 pertsonen % 69,3 hartu ditu sisteman 2016an. Proporzio hori 2008koa baino nabarmen handiagoa da (% 63,6 izan zen urte horretan), baina 2012koa eta 2014koa baino 3 puntu apalagoa (% 72,6 eta % 72,9, hurrenez hurren).

- * Diru-laguntzetarako sarbideak benetako pobrezia gainditzeko bidea ematen dio 71.494 pertsonari, EAEko biztanleriaren % 3,3ri. Ehunekoa antzekoa izan zen 2012an (% 3,2), eta nabarmen apalagoa 2008an (% 1,9). Hala ere, datua 2014koa baino apalagoa da (% 3,7).

Arriskuan dagoen biztanleriari begiratuta, benetako pobreziatik irteteko laguntzaren eragina % 36,8koa da. Ehuneko horrek 2008ko datua soilik gainditzen du (% 31,3). Sobera urruntzen ez baldin bada ere, apalagoak dira 2012ko eta 2014ko datuak (% 37,5 eta % 38,7, hurrenez hurren). Erreferentziazko talde horretan, ordea, sistemako prestazioek guztirako diru-sarrerekiko maila altuena iritsi dute 2016an: % 43,7, eta haren azpitik daude 2014ko % 41,1a, 2012ko % 33,5a eta 2008ko % 29,9a. 2016an, aztertutako biztanleriaren % 74,6k uste du ez dela pobrea den etxe batean bizi. Datu hori 2008ko datutik gertu dago (% 74,7), baina 2014ko eta 2012ko datuak nabarmen apalagoak ziren (% 69,5 eta % 63,2, hurrenez hurren).

Sisteman sartzeak diru-sarreraren pobrezia maila (mantenukoa) gainditzeko aukera ematen dio 24.316 pertsonari, EAEko biztanleriaren % 1,1i. Datu horrek esaten digu biztanleria onuradunaren ehunekoa 2008koa baino % 43,5 handiagoa dela; hala ere, % 20,6 txikiagoa da 2012an onuradun izan ziren 30.616 pertsonako zenbatekoaren aldean. Hori horrela, finkatu egin da 2014an behatu zen goranzko joera.

- * Laguntzak jaso arren, 63.069 pertsona daude benetako pobrezia-egoeran, 2008an baino % 49,6 gehiago. Pertsona horiek ez dute egoera horretatik irteterik lortzen, DSBE/EPO/GLL sisteman sartu arren. Hala ere, estaldura-gabeziak beheranzko joera ageri du azken urteetan, bai datu absolutuetan, bai datu erlatiboetan. Datu absolutuei begiratuz gero, 63.069 pertsona daude egoera horretan. Pixka bat gutxiago ziren 2012an (64.383 pertsona), eta nabarmen gutxiago 2014an (71.092 pertsona). Datu erlatiboetara begiratuta, EAEko biztanleriaren % 2,9 izan dira 2016an, % 3 izan ziren 2012an, eta % 3,3 izan ziren 2014an.

Egoera horretan dauden pertsonen taldean, sistemako prestazioek % 74,2tik % 16,1era murrizten dute diru-sarrera erabilgarrien eta mantenuko pobrezia mugaren arteko tartea. Muga edo atalasearekiko distantzia 2014koaren parekoa da, eta 2012 eta 2008 urteetako baino txikiagoa (% 19,7 eta % 17, hurrenez hurren), eta, ondorioz, eraginkorragoa. Guztira dituzten diru-sarreraren % 69,2 jasotzen dute pertsona horiek DSBE/EPO/GLL sistematik. Datu horretatik gertu dago 2012ko datua (% 70etik gertukoa), eta zertxobait urrunago 2014koa (% 71,4). Askoz handiagoa da, ordea, 2008koaren aldean (% 56,4).

Aztertu diren pertsonen % 48,5ek uste du etxean diru sarrera nahikoak eskuratzen dituztela, ezaugarri horiek dituzten etxeen oinarrizko beharrianak asetzeko; hau da, beharrian horiek asetzeko behar den diru-sarrera gutxieneko hertsia eskuratzen dutela. Ehuneko hori 2012koa baino zertxobait handiagoa da (% 46,2), baina 2008koa baino txikiagoa (% 61,3), eta 2014koa baino nabarmen txikiagoa (% 65,1).

Hala ere, muturreko pobrezia-egoeran izatearen pertzepziotik urruntzen da aztertutako biztanleriaren % 73,3, hau da, pobreak edo oso pobreak direla uste du multzo horrek. Datu horik 2014koa eta 2012koa baino handiagoa da (% 69,9 eta % 68), baina 2008koa baino txikiagoa (% 78,7).

Nabarmentzekoa da, era berean, 2016an antzeman dela beren etxea gutxienez pobre samartzat jotzen duten pertsonen ehuneko apalena (% 56,6); izan ere, datuak handiagoak izan dira 2014an (% 65,2), 2012an (% 64,8) eta 2008an (% 71,4).

- * 2016an, 59.497 pertsona izan dira arrisku-egoeran, prestazio-sisteman sarbiderik izan gabe. Kopuru hori 2014koa baino % 5,7 handiagoa da (56.307 pertsona ziren urte horretan), 2012koa baino % 18,3 handiagoa (50.313 pertsona) eta 2008koa baino % 25,1 handiagoa (47.542 pertsona). Pertsonen multzo hori, 2016an, arriskuan dauden etxeetako pertsona guztien % 30,7 izan dira. Datu hori 2012 eta 2014 urteetako baino handiagoa da (% 27,4 eta % 27,1), baina 2008koa baino nabarmen apalagoa (% 36,4).

Pertsonen multzo horretan, berebiziko garrantzia dute laneko diru-sarrerak (diru-sarrera guztien % 52,4 azken datua, eta % 36,5 eta % 42,1 bitartekoa 2008 eta 2014 urteen bitartean) eta/edo estatuko sistema orokorreko pentsio eta prestazioek (guztira hartuta, % 82,5).

Datu horiek aztertzean, ikusten da kolektiboak okupazio-profil normalizatua duela, lanerako edo horren ordeko prestazio orokorretarako sarbidea izaten baitu. Horien artetik, aztertutako pertsonen % 48,3k adierazi du oinarrizko beharrianak estaltzeko gutxienez jotzen diren diru-sarrerak baino gehiago dituztela. Baina kolektibo horren egoera erlatiboa okertu egin da 2008az geroztik. Datu hori 2012koa baino zertxobait handiagoa da (% 47,2), baina ehuneko hori 2008ko ehunekotik urrun dago (% 70,2) eta 2014koa baino ia lau puntu apalagoa da (% 52,1ekoa izan zen urte horretan).

Hala ere, hariaren beste muturrera joanda, ikusten da pertsonen multzo horretan etengabe igo izan dela beren etxea gutxienez pobre samarra ikusten dutenen ehuneko (% 44,1ekoa izan zen 2008an, % 54,8koa 2012an eta % 62,2koa 2014an), baina, 2016. urtean, 2008ko datua (% 46,2) gerturazten ari dela berriro. Eskuratzen diren diru-sarreraren eta mantenuko pobrezia-atalasearen arteko distantziarekiko paraleloa da bilakaera hori. Distantzia hori etengabe handitu da 2008az geroztik; izan ere, % 21,3koa izan zen urte hartan, % 24,9koa 2012an eta % 30,5ekoa 2014an. Hala ere, % 22,5era jaitsi da 2016. urtean, eta 2008ko datua hurbildu da.



RC1 taula
DBE/EPO/GLL sistemak benetako pobrezia-aren prebentzioan duen eraginari buruzko adierazleak
Pobrezian egoteko arriskuan dagoen biztanleria. 2008 a 2016

	Abs.	Guztiz- ko biztan- leriaren %	Arrisku- taldeen %	DBE/EPO eta GLL diru- sarreraren %	Norberaren eta prestazioen eta pentsioen sistema orokorreko diru-sarreraren %	Atalasearekiko bene- tako distantzia- ren %	Atalasearekiko distantziaren %, sistemako prestaziorik gabe	Beren burua pobretzat/ oso pobretzat ez dutenen %	Beren burua gutxienez pobre samartzat hartzen ez dutenen %	Etxeko unitateko gutxieneko premiei aurre egiteko baino diru-sarrerak handiagoak dituztenen %
Sistemak barne hartutako biztanleria	134.563	6,3	69,3	52,2	41,3			80,0	60,0	67,0
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	63.069	2,9	32,5	69,2	22,2	16,1	74,2	73,3	43,4	48,5
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	71.494	3,3	36,8	43,7	50,9			85,9	74,6	83,3
<i>--- Diru-sarrerak > mantenu-pobrezia-aren atalasea</i>	24.316	1,1	12,5							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	59.497	2,8	30,7	0,0	82,5	22,5	22,5	72,6	53,8	48,3
<i>-- Autonomoen soldata, lansariak eta diru-sarrerak</i>					52,4					
GUZTIRA 2016	194.060	9,1	100	52,2				77,7	58,1	61,3
Sistemak barne hartutako biztanleria	151.591	7,0	72,9	51,0	43,1			80,8	53,2	77,2
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	71.092	3,3	34,2	71,4	21,7	16,1	76,0	69,9	34,8	65,1
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	80.499	3,7	38,7	41,1	53,4			90,5	69,5	87,9
<i>--- Diru-sarrerak > mantenu-pobrezia-aren atalasea</i>	24.993	1,2	12,0							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	56.307	2,6	27,1	0,0	86,0	30,5	30,5	70,1	37,8	52,1
<i>-- Autonomoen soldata, lansariak eta diru-sarrerak</i>					40,4					
GUZTIRA 2014	207.898	9,6	100	51,0				77,9	49,0	70,4
Sistemak barne hartutako biztanleria	133.267	6,1	72,6	46,4	48,0			77,1	49,6	65,1
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	64.383	3,0	35,1	70,0	23,5	19,7	75,9	68,0	35,2	46,2
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	68.884	3,2	37,5	33,5	61,4			85,6	63,2	82,8
<i>--- Diru-sarrerak > mantenu-pobrezia-aren atalasea</i>	30.616	1,4	16,7							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	50.313	2,3	27,4	0,0	88,6	24,9	24,9	80,6	45,2	47,2
<i>-- Autonomoen soldata, lansariak eta diru-sarrerak</i>					42,1					
GUZTIRA 2012	183.580	8,5	100	46,4				78,0	48,4	60,2
Sistemak barne hartutako biztanleria	83.023	3,9	63,6	39,0	53,8			82,1	51,3	76,3
<i>Pobreziatik atera ez den biztanleria</i>	42.165	2,0	32,3	56,4	36,6	17,0	63,8	78,7	28,6	61,3
<i>Pobreziatik atera den biztanleria</i>	40.858	1,9	31,3	29,9	62,8			85,7	74,7	91,9
<i>--- Diru-sarrerak > mantenu-pobrezia-aren atalasea</i>	16.944	0,8	13,0							
Sistemak barne hartzen ez duten biztanleria	47.542	2,2	36,4	0,0	92,7	21,3	21,3	77,3	55,9	70,2
<i>-- Autonomoen soldata, lansariak eta diru-sarrerak</i>					36,5					
GUZTIRA 2008	130.564	6,1	100	39,0				80,4	53,0	74,1

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

Pobrezian egoteko arriskuan dauden biztanleen barruan sartzen dira benetako pobrezian dauden edo DBE/EPO/GLL sistemari heltzeko eskubidea ematen duen egoeraren batean dauden pertsonak.

* DSBE/EPO/GLL sistemak biztanleen diru-sarreretan izan duen pisua aztertzen bada, benetako pobrezia/ongizatearen eskalan duen kokapenaren arabera, zera ikusten da: gaur egun laguntzen sistema horrek ematen du benetako pobrezia-egoeran dauden biztanleen diru-sarreraren % 38,3; eta proportzio hori % 40,2ra igotzen da EAeko erakundearen beste gizarte-laguntza batzuk kontuan hartuz gero. Estatuko babes orokorrerako sistemako diru-sarrerena (% 18,6) baino handiagoa da ekarpen hori; halaber, langabezia-politikari eta gainerako prestazio osagarriei lotzen da zati bat (% 9,8), eta erretiroko, baliaezintasuneko eta alarguntasuneko (biziraupena) pentsioen sistema orokorrari beste zati bat (%8,8). Gainditu egiten du, era berean, diru-sarrera propioen ehunekoa (% 31,6) eta zuzenean lanetik eskuratutako diru-sarrerena (% 30,4). Gizarteak berak emandakoa da gainerako % 9,7a (familiak eta gobernu kanpoko erakundeak).

DSBE/EPO/GLL sistemak zeregin handia du oraindik ere pobrezia-egoera gainditu bai, baina ongizaterik gabeko beste modu batzuk bizi dituzten pertsonekin. Lanekoak eta beste jardura ekonomiko batzuetatik eratorritakoak dira pertsonen talde horren diru-sarrera gehienak (% 49,3). EAeko babes-sistemak ematen ditu kolektibo horren diru-sarreraren % 19,6, eta datu hori % 20,3ra igotzen da EAeko erakundearen bestelako laguntzak batuz gero. Ekarpen horrek garrantzi handia du; izan ere, pentsioen sistema orokorrak egiten duen ekarpena baino handiagoa da (% 15ekoa da sistema horren ekarpena), eta langabezia-babesaren eta Estatuko beste laguntza orokor batzuen ekarpena baino are handiagoa (% 9,1).

RC1.a taula
Biztanleen diru-sarreraren banaketa, motaren arabera eta benetako pobrezia/ongizatea eskalan duten kokalekua
kontuan hartuta
Hileko batez besteko datuak, garbiak. 2016
(Datu absolutuak)

Diru-sarrera mota	Pobrezia	Ongizate gabeziaren beste era bat	Ongizate eta arrisku elementuak	Ongizatea	GUZTIRA
Lana	13.346.143	30.302.249	117.375.527	1.257.107.241	1.418.131.159
Higiezinaren sarrerak	156.476	219.821	1.516.666	38.034.183	39.927.145
Higigarrien sarrerak, pentsio-funtsak eta antzekoak	101.053	645.830	3.775.072	33.368.238	37.890.193
Laneko kalte-ordainak	29.557	56.914	862.773	14.148.927	15.098.171
Auto-kontsumoa	215.917	310.473	1.157.001	5.406.807	7.090.198
DIRU-SARRERA PROPIOAK	13.849.147	31.535.287	124.687.037	1.348.065.395	1.518.136.866
Babes orokorra: erretiroa, baliaezintasuna eta alarguntza	3.856.563	9.593.501	66.130.706	488.536.436	568.117.206
Beste babes orokor bat: langabezia eta beste batzuk	4.284.525	5.814.075	15.847.139	59.749.650	85.695.389
SEGURANTZAKO ETA ANTZEKO SARRERAK	8.141.088	15.407.576	81.977.845	548.286.086	653.812.595
DBE/EPO/GLL sistema	16.795.226	12.539.338	6.189.115	2.976.795	38.500.473
Bestelako gizarte-laguntzak	832.432	439.062	928.570	3.764.707	5.964.771
GIZARTE-LAGUNTZEN SARRERAK	17.627.657	12.978.400	7.117.685	6.741.502	44.465.244
GIZARTEAREN BARRUKO TRANSFERENTZIAK	4.239.567	4.020.687	6.128.440	7.768.303	22.156.997
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	43.857.459	63.941.950	219.911.007	1.910.861.286	2.238.571.702

Iturria: PGDI 2016



RC1.b taula
Biztanleen diru-sarrereren banaketa, motaren arabera eta benetako pobrezia/ongizatea eskalan duten
kokalekua kontuan hartuta
Hileko batez besteko datuak, garbiak. 2016
 (% bertikalak)

Diru-sarrera mota	Pobrezia	Ongizate gabeziaren beste era bat	Ongizate eta arrisku elementuak	Ongizatea	GUZTIRA
Lana	30,4	47,4	53,4	65,8	63,3
Higiezinen sarrerak	0,4	0,3	0,7	2,0	1,8
Higigarrien sarrerak, pentsio-funtsak eta antzekoak	0,2	1,0	1,7	1,7	1,7
Laneko kalte-ordainak	0,1	0,1	0,4	0,7	0,7
Auto-kontsumoa	0,5	0,5	0,5	0,3	0,3
DIRU-SARRERA PROPIOAK	31,6	49,3	56,7	70,5	67,8
Babes orokorra: erretiroa, baliaezintasuna eta alarguntza	8,8	15,0	30,1	25,6	25,4
Beste babes orokor bat: langabezia eta beste batzuk	9,8	9,1	7,2	3,1	3,8
SEGURANTZAKO ETA ANTZEKO SARRERAK	18,6	24,1	37,3	28,7	29,2
DBE/EPO/GLL sistema	38,3	19,6	2,8	0,2	1,7
Bestelako gizarte-laguntzak	1,9	0,7	0,4	0,2	0,3
GIZARTE-LAGUNTZEN SARRERAK	40,2	20,3	3,2	0,4	2,0
GIZARTEAREN BARRUKO TRANSFERENTZIAK	9,7	6,3	2,8	0,4	1,0
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: PGDI 2016

Beste alde batetik, azaldu behar da DBE/EPO/GLL sistemak bakarrik ematen diola arreta nagusia ongizatera heltzeko arazoak dituzten kolektiboei. Laguntzen % 43,6 gaur egun benetako pobrezia-irizpiderako arazoak dituzten kolektiboei bideratzen zaie, % 32,6 ongizate-gabezia duen kolektiboei eta %16,1, arriskuren bat izan arren, ongizatea bizi duten kolektiboei. Hori horrela, arrisku-egoera larrienean dauden kolektiboei bideratzen zaie gastuaren %92,2; eta arreta horren % 7,7 soilik iristen zaie erabateko ongizatean edo ia erabateko ongizatean dauden kolektiboei.

Kontraste-egoera nabarmena ageriz, EAEko beste asistentzia-laguntzek gastuaren % 63,1 bideratzen dute kolektibo horientzat, eta kolektibo horiek hartzen dute, gainera, Estatuaren langabeziako eta beste gizarte-politika batzuetako (pentsioen politika orokorrean sartzen ez direnak) gastuaren % 69,7.

RC1.c taula
Biztanleen diru-sarrereren banaketa, motaren arabera eta benetako pobrezia/ongizatea eskalan duten
kokalekua kontuan hartuta
Hileko batez besteko datuak, garbiak. 2016
 (% horizontalak)

Diru-sarrera mota	Pobrezia	Ongizate gabeziaren beste era bat	Ongizate eta arrisku elementuak	Ongizatea	GUZTIRA
Lana	0,9	2,1	8,3	88,6	100,0
Higiezinen sarrerak	0,4	0,6	3,8	95,3	100,0
Higigarrien sarrerak, pentsio-funtsak eta antzekoak	0,3	1,7	10,0	88,1	100,0
Laneko kalte-ordainak	0,2	0,4	5,7	93,7	100,0
Auto-kontsumoa	3,0	4,4	16,3	76,3	100,0
DIRU-SARRERA PROPIOAK	0,9	2,1	8,2	88,8	100,0
Babes orokorra: erretiroa, baliaezintasuna eta alarguntza	0,7	1,7	11,6	86,0	100,0
Beste babes orokor bat: langabezia eta beste batzuk	5,0	6,8	18,5	69,7	100,0
SEGURANTZAKO ETA ANTZEKO SARRERAK	1,2	2,4	12,5	83,9	100,0
DBE/EPO/GLL sistema	43,6	32,6	16,1	7,7	100,0
Bestelako gizarte-laguntzak	14,0	7,4	15,6	63,1	100,0
GIZARTE-LAGUNTZEN SARRERAK	39,6	29,2	16,0	15,2	100,0
GIZARTEAREN BARRUKO TRANSFERENTZIAK	19,1	18,1	27,7	35,1	100,0
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	2,0	2,9	9,8	85,4	100,0

Iturria: PGDI 2016



2. Arrisku-egoera larrienean dauden gizarte-taldeak eta eremuak

2.1. Benetako pobreziaren eragina, demografia-aldagaien arabera

Benetako pobreziaren adierazlea azterketa-lanerako oinarritzko erreferentzia gisa hartu ondoren, adierazle horrek 2014 eta 2016 urteen bitartean eta EAEko kolektibo sozial eta demografiko nagusiengan izan duen dinamika aztertuko dugu.

a) Familia erako taldeak: hobera egin du bakarrik dauden pertsonen eta seme-alabak dituztenen kasuan, eta igoera txikia izan dute guraso bakarreko familiek eta bestelako familia-taldeek.

Familia erako taldeak azertzean, honako hau izan da 2014 eta 2016 urteen bitartean ikusi den hobekuntza nagusia: murriztu egin da pobrezia-adierazlea seme-alabak dituzten bikoteen adierazlean. Talde horretan, benetako pobreziaren eraginak gora egin du etengabe 2008tik (% 3,3) 2012ra (% 3,7), eta 2014ra (% 5,5). Ehunekoa 2008 eta 2012 urteetako baina handiagoa izaten jarraitzen du, baina puntu bateko jaitsiera izan du 2014-2016 biurtekoan; hala, % 4,5koa da orain, EAEko batez bestekotik beherakoa.

Bilakaera horren ondorioak deigarriak dira pobreziaren banaketan. Izan ere, 2008 eta 2012 urteetan ikusi zen moduan, benetako pobrezia-egoera guztiekiko protagonismo-galera bati berrekin zaio 2016an, nahiz eta 2014an noranzko-aldaketa bat izan zuen adierazle horrek. Urte horretan, 2008an zuen kokapen gorena berreskuratu zuen familien taldeak (benetako pobrezia-egoeren % 51,9 izan zen, eta 2008an, berriz, % 50,1). Datua, 2016an, % 42,2ra murriztu da, eta 2012ko datutik gertu geratu da (% 40,6).

GR1.a taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, familia-talde bakoitzeko. 2008-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Bakarrik bizi diren pertsonak	Seme-alabarik gabeko bikotea	Seme-alabadun bikotea	Guraso bakarreko familiak	Bestelako familia-taldea	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	10,4	3,9	4,4	13,7	4,8	5,7
	2012	10,4	5,2	5,3	19,2	13,1	7,3
	2014	13,3	4,2	7,4	13,9	14,1	8,2
	2016	10,5	3,7	5,5	13,8	20,6	7,1
Metatze-pobrezia	2008	2,2	0,9	1,2	4,1	3,7	1,5
	2012	1,2	1,2	1,1	4,7	0,0	1,4
	2014	1,9	0,4	1,9	5,5	1,4	2,0
	2016	2,7	0,6	1,1	3,7	3,7	1,6
Benetako pobrezia	2008	6,4	1,9	3,3	13,2	6,1	4,2
	2012	6,9	2,5	3,7	18,2	10,1	5,3
	2014	8,0	2,1	5,5	12,7	9,9	5,9
	2016	7,6	2,2	4,5	13,4	15,8	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	12,8	4,8	6,8	19,9	13,6	8,2
	2012	16,1	6,2	7,2	29,1	16,1	10,1
	2014	16,6	5,6	9,7	25,9	16,7	11,5
	2016	16,0	6,7	7,5	24,3	21,9	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

GR1.b taula
Benetako pobrezia- eta prekariedade-egoeren banaketa, familia-talde bakoitzeko. 2008-2016
 Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
 % horizontalak

Pobrezia- edo prekariedade-mota		Bakarrik bizi diren pertsonak	Seme-alabarik gabeko bikotea	Seme-alabadun bikotea	Guraso bakarreko familiak	Bestelako familia-taldea	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	16,2	12,2	50,3	20,3	1,0	100,0
	2012	13,7	15,7	42,1	25,1	3,4	100,0
	2014	18,4	10,7	50,5	18,6	1,9	100,0
	2016	20,1	9,8	42,2	24,9	3,0	100,0
Metatze-pobrezia	2008	13,0	10,1	51,3	22,7	3,0	100,0
	2012	7,7	18,1	42,9	31,3	0,0	100,0
	2014	10,7	3,8	54,7	30,1	0,7	100,0
	2016	22,5	7,0	38,8	29,3	2,4	100,0
Benetako pobrezia	2008	13,5	8,0	50,1	26,6	1,8	100,0
	2012	12,5	10,5	40,6	32,7	3,7	100,0
	2014	15,3	7,3	51,9	23,6	1,8	100,0
	2016	17,8	7,3	42,2	29,9	2,9	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	13,8	10,3	53,4	20,4	2,0	100,0
	2012	15,2	13,5	40,9	27,4	3,1	100,0
	2014	16,3	10,0	47,4	24,7	1,6	100,0
	2016	19,9	11,7	37,6	28,6	2,1	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

Seme-alabak dituzten familien taldeei begiratuta, 2014 eta 2016 urteen bitartean handitu egin da, ordea, benetako pobrezia guraso bakarreko familiengan duen eragina, % 12,7tik % 13,4ra igaro baita. Maila hori 2008ko datutik gertu dago (% 13,2), baina 2012koa baino nabarmen apalagoa da (% 18,2). Adierazleak gora egin du, era berean, 'Bestelako familia-taldeak' aldagaian, eta egun adierazten duen datuak (% 15,8) gorazko joera bat ageri du 2008ko datuarekiko (% 6,1).

Guraso bakarreko familiek benetako pobrezia-aren banaketan duten presentzia % 23,6tik % 29,9ra igo da 2014 eta 2016 urteen bitartean. 2012. urteko datua soilik da apalagoa (% 32,7). Oro har hartuta, 2016. urtean, guraso bakarreko familiek eta seme-alabak dituzten bikoteek biltzen dute benetako pobrezia-kasuen % 72. Datu hori 2008-2016 urte-bitarteko txikiena da. Aurreko datu minimoa 2012koa zen (% 73,4). Beherazko joera hori hautematen da 'Bestelako familia-taldeak' eta horietako batzuetan ageri diren seme-alabak aintzat hartuta ere, (datua % 74,9koa izan da 2016an, eta aurreko minimoa % 77koa zen, 2012. urtekoa).

EAEko batez bestekotik gora dagoen arren eta 2008ko eta 2012ko datuak gaintzen dituen arren, nabarmenezkoa da arindu egin dela benetako pobrezia bakarrik bizi diren pertsonengan duen eragina. Pobrezia-aren eragina % 6,4koa zen 2008an, handiagoa 2012an (% 6,9) eta handiagoa 2014an (% 8), baina % 7,6ra jaitsi da 2016an. Hala ere, datu erlatiboek beste talde batzuetan, eta, bereziki, seme-alabak dituzten bikoteen taldean izan duen bilakaera hobearren ondorioz, % 17,8 dira bakarrik eta pobrezian bizi diren pertsonak, 2008. urtetik izan den ehuneko handiena (aurreko maximoa % 15,3koa zen, 2014koa; aitzitik, % 12,5-% 13,5 bitarteko datuak izan dira 2008 eta 2012 urteen bitartean).



Seme-alabarik gabeko bikoteek jarraitzen dute, 2016an, pobrezia-tasa txikienak izaten (% 2,2). Familia mota horren tasa, 2008-2016 urteen bitartean, nahiko egonkorra izan da 2008an izan zuen % 1,9aren eta 2016an izan duen % 2,5aren bitartean. Kolektibo horrek, bai 2014an eta bai 2016an, maila minimoak erdietsi ditu pobrezia-aren partaidetzan, EAEn diren benetako pobrezia-kasuen % 7,3 osatzen baititu.

Egonkortu egin da pobrezia adingabeak dituzten familiengan duen eragina, baina atzera egiten ari da haurren pobrezia

Pobrezia-aren kolektiboan artean, bereziki nabarmentzen dira adingabeak dituzten familiak, eta horren arrazoiak dira benetako pobrezia tasa handiak erakusten dituela guraso bakarreko familiengan eta arazo hori handitu egin dela. 2008 eta 2012 urteetako, seme-alabak dituzten bikoteengan, eta ez da ahaztu behar azken hori dela gizartean gehien zabaldua dagoen taldeetako bat. Hori horrela, 14 urtetik beherako haurrak dituzten familietakoak dira, 2016an, benetako pobrezia-egoeran dauden pertsonen % 55,9 (aintzat hartu behar da ehuneko hori, 2008-2016 urteen bitartean, 2012an soilik izan dela zertxobait apalagoa, % 53,8koa).

Familian 14 urtetik beherako haurrak dituzten taldeei begiratuta, pobrezia-tasa % 10,2koa izan da 2016an. Tasa hori 2014. urtean izandakoaren oso antzekoa izan da (% 10,1). Hala ere, igoera nabarmena gertatu da 2008arekiko (% 7,6) eta 2012arekiko (% 8,5).

GR2.a taula
Benetako pobrezia- eta prekariedade-egoeren bilakaera, etxeen unitatean 14 urtetik beherako adingabeak egoteagatik. 2008-2016
 Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
 Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekariedade-mota		Adingaberik gabe	Adingabeekin	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	4,0	8,8	5,7
	2012	5,6	10,7	7,3
	2014	6,1	12,4	8,2
	2016	5,2	11,1	7,1
Metatze-pobrezia	2008	1,2	2,1	1,5
	2012	0,8	2,7	1,4
	2014	1,1	3,8	2,0
	2016	1,1	2,7	1,6
Benetako pobrezia	2008	2,4	7,6	4,2
	2012	3,7	8,5	5,3
	2014	3,8	10,1	5,9
	2016	3,7	10,2	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	5,5	13,2	8,2
	2012	8,4	13,3	10,1
	2014	9,2	16,1	11,5
	2016	8,1	16,6	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

GR2.b taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, etxeen unitatean 14 urtetik beherako
adingabeak egoteagatik. 2008-2016
 Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
 % horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Adingaberik gabe	Adingabeekin	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	46,1	53,9	100,0
	2012	51,2	48,8	100,0
	2014	49,4	50,6	100,0
	2016	51,0	49,0	100,0
Metatze-pobrezia	2008	51,4	48,6	100,0
	2012	37,5	62,5	100,0
	2014	36,8	63,2	100,0
	2016	46,8	53,2	100,0
Benetako pobrezia	2008	36,9	63,1	100,0
	2012	46,2	53,8	100,0
	2014	42,6	57,4	100,0
	2016	44,1	55,9	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	43,7	56,3	100,0
	2012	56,1	43,9	100,0
	2014	53,2	46,8	100,0
	2016	52,0	48,0	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

Dena den, 14 urtetik beherako biztanleei soilik begiratzen baldin badiegu, ikusten da pobrezia behera egin duela seme-alabak dituzten bikoteen artean. Hori horrela, proportzioa % 7,3koa izan zen 2008an, eta % 9,5era igo zen 2012. urtean. Gerora, 2014an, tasa % 11,2era igo zen, baina haurren pobrezia datua % 10,6ra jaitsi da 2016an. Benetako pobrezia-egoera guztiei begiratuta, 14 urtetik beherako biztanleen ehunekoa % 25,7raino igo zen 2014an, baina % 23,1ra jaitsi da 2016an. Tasa hori 2008az geroztik izan den txikiena da.

GR3.a taula
Adinaren arabeko benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera (14 urtetik gorako edo beherako
biztanleria). 2008-2016
 Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
 Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		< 14 urte	14 urte edo gehiago	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	9,3	5,1	5,7
	2012	11,8	6,6	7,3
	2014	13,7	7,3	8,2
	2016	12,0	6,4	7,1
Metatze-pobrezia	2008	1,8	1,5	1,5
	2012	2,6	1,3	1,4
	2014	4,1	1,7	2,0
	2016	2,6	1,5	1,6
Benetako pobrezia	2008	7,3	3,7	4,2
	2012	9,5	4,6	5,3
	2014	11,2	5,1	5,9
	2016	10,6	5,0	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	12,9	7,4	8,2
	2012	14,1	9,4	10,1
	2014	17,1	10,6	11,5
	2016	16,9	9,9	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014



GR3.b taula
Adinaren araberako benetako pobrezia- eta prekariedade-egoeren banaketa (14 urtetik gorako edo beherako biztanleria). 2008-2016

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
% horizontalak

Pobrezia- edo prekariedade-mota		< 14 urte	14 urte edo gehiago	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	22,4	77,6	100,0
	2012	21,5	78,5	100,0
	2014	22,7	77,3	100,0
	2016	21,1	78,9	100,0
Metatze-pobrezia	2008	16,2	83,8	100,0
	2012	23,5	76,5	100,0
	2014	27,8	72,2	100,0
	2016	20,3	79,7	100,0
Benetako pobrezia	2008	24,0	76,0	100,0
	2012	23,8	76,2	100,0
	2014	25,7	74,3	100,0
	2016	23,1	76,9	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	21,7	78,3	100,0
	2012	18,6	81,4	100,0
	2014	20,1	79,9	100,0
	2016	19,5	80,5	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

Hobekuntza nabarmena den arren, oraindik ere mugatua dela adierazi behar da. Izan ere, benetako pobrezia tasa 14 urtetik gorakoen artean 2008koa baino 1,3 puntu inguru handiagoa da 2016an (% 5koa orduan eta % 3,7koa orain). Alde hori 3,3 puntukoa da 14 urtetik beherako biztanleen artean (% 10,6koa izan da 2016an eta % 7,3koa izan zen 2008an). Adingabekoez duten benetako pobrezia tasa ehunekoak, gainera, 14 urtetik gorakoena baino bi aldiz handiagoa izaten jarraitzen du 2016an (% 10,6 eta % 5, hurrenez hurren).

b) Pobrezia behera egin du burutzan gizonak zein emakumeak dituzten familietan, eta jaitsiera hori EAEko batez bestekoak izan duena baino handiagoa izan da

Datu deigarria da ikustea pobrezia tasa beherakada, 2014 eta 2016 urteen bitartean, nabarmen handiagoa izan dela, ehuneko -0,4 eta -0,6 puntu bitartekoa, burutzan gizonak zein emakumeak dituzten familietan; izan ere, EAEko, oro har, beherakada hori -0,2 puntukoa izan da soilik.

Etxeko burua¹⁶ gizonak den familietan, benetako pobrezia tasa % 3,3koa zen 2008an eta % 3,7ra igo zen 2012an, baina % 4,6 jaitsi zen 2014an eta % 4ra jaitsi da 2016an. Etxeko burua emakumeak den familietan, ehunekoaren beherakada apalagoa izan da (% 10,3koa izan zen 2014an eta % 9,9koa izan da 2016an) eta kontuan izan behar da abiapuntuko tasa handiagoa dela; hala ere, nabarmentzekoa da 2012an hasi zela ehunekoaren beherakada joera hori. Urte horretan, tasa % 11,1koa izan zen, 2008an izan zuen % 8,8kotik gora egin ondoren.

¹⁶ Horrela izendatzen da pertsona hori, pertsona horren egitekoa errazago ulertzeko. Etxean erreferentziakoa den pertsona adierazteko erabiltzen da.

Hori horrela, ikusten da benetako pobrezia-aren tasak EAEn izan duen beherakada apalagoak zenbait talderen benetako dinamika onuragarriak ezkututzen dituela. Hori zergatik gertatzen den argitzeko, talde bakoitzak duen benetako pisuari begiratu behar zaio. Alde horretatik, adierazi behar da gero eta gehiago nabarmentzen direla emakumeak buru dituzten familiak. Pobrezia-ak gainerako taldeengan baino eragin handiagoa du emakumeak buru dituzten familiengan, eta, 2014-2016 urteen bitartean, pobrezia-ak beherakada apalagoa izan du familia horiengan. 2016an, familia mota horri dagozkio benetako pobrezia-kasuen % 49,7; beraz, ehuneko hori 15 puntu baino gehiago handitu da 2008. urtearekiko (% 33,9koa izan zen urte horretan).

GR4.a taula
Benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren bilakaera, familiaburuaren sexuaren arabera. 2008-2016
 Familia-etxebizitzetan bizi direnak. Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekaritate-mota		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	4,8	10,2	5,7
	2012	5,8	12,6	7,3
	2014	6,7	13,1	8,2
	2016	5,4	11,2	7,1
Metatze-pobrezia	2008	1,2	3,2	1,5
	2012	1,2	2,5	1,4
	2014	1,7	3,1	2,0
	2016	0,9	3,3	1,6
Benetako pobrezia	2008	3,3	8,8	4,2
	2012	3,7	11,1	5,3
	2014	4,6	10,3	5,9
	2016	4,0	9,9	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	6,7	15,7	8,2
	2012	7,4	20,0	10,1
	2014	8,9	20,1	11,5
	2016	7,9	17,8	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

GR4.b taula
Benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren banaketa, familiaburuaren sexuaren arabera. 2008-2016
 Familia-etxebizitzetan bizi direnak. % horizontalak

Pobrezia- edo prekaritate-mota		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	71,2	28,8	100,0
	2012	63,7	36,3	100,0
	2014	63,2	36,8	100,0
	2016	54,4	45,6	100,0
Metatze-pobrezia	2008	66,3	33,7	100,0
	2012	63,8	36,2	100,0
	2014	64,6	35,4	100,0
	2016	40,8	59,2	100,0
Benetako pobrezia	2008	66,1	33,9	100,0
	2012	56,2	43,8	100,0
	2014	59,8	40,2	100,0
	2016	50,3	49,7	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	69,2	30,8	100,0
	2012	58,4	41,6	100,0
	2014	59,9	40,1	100,0
	2016	52,4	47,6	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014



Logikoa den moduan, aurrez azaldu diren alde horiek ez dute adierazten gizonezko eta emakumezko biztanleek horrelako alde handiak dituztenik pobrezia-aren alorrean, familian erreferentziazkoa den pertsonaren generoak egoera horretan duen eragina soilik erakusten baitute. Familiako buru den pertsonak zer genero duen kontuan izan gabe, datu orokorrak alderatzen baldin badira, ikusten da 2016an pobrezia-tasak antzekoak izan direla gizonen eta emakumeen artean (% 5,6 eta % 5,9, hurrenez hurren).

GR5.a taula
Benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren bilakaera, sexuaren arabera. 2008-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak. Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekaritate-mota		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	5,3	6,1	5,7
	2012	7,2	7,3	7,3
	2014	7,7	8,7	8,2
	2016	6,9	7,2	7,1
Metatze-pobrezia	2008	1,5	1,6	1,5
	2012	1,6	1,3	1,4
	2014	2,1	1,9	2,0
	2016	1,5	1,7	1,6
Benetako pobrezia	2008	4,0	4,3	4,2
	2012	5,4	5,2	5,3
	2014	5,6	6,1	5,9
	2016	5,6	5,9	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	7,9	8,4	8,2
	2012	9,6	10,5	10,1
	2014	11,3	11,7	11,5
	2016	10,2	11,3	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

GR5.b taula
Benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren banaketa, sexuaren arabera. 2008-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak. % horizontalak

Pobrezia- edo prekaritate-mota		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	45,2	54,8	100,0
	2012	47,3	52,7	100,0
	2014	45,2	54,8	100,0
	2016	48,2	51,8	100,0
Metatze-pobrezia	2008	46,3	53,7	100,0
	2012	52,0	48,0	100,0
	2014	51,2	48,8	100,0
	2016	44,7	55,3	100,0
Benetako pobrezia	2008	46,6	53,4	100,0
	2012	48,7	51,3	100,0
	2014	46,0	54,0	100,0
	2016	47,6	52,4	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	46,9	53,1	100,0
	2012	45,8	54,2	100,0
	2014	47,4	52,6	100,0
	2016	46,5	53,5	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

c) Adina: handitu egin da pobrezia eragina 55 urtetik beherako pertsonen osatutako familia guztietan

Sexuarekin ikusi den joerarekin ez bezala, familiako erreferentzia den pertsonaren adinak dinamika orokor negatiboa ageri du, eta benetako pobrezia eraginak ez du hobekuntzarik erakusten adin-talde bat berarengan ere. Bilakaera hoberena burutzen 65 urtetik gorako pertsonen bat duten familietan ikusi da, pobrezia eragina % 1,1eko tasan finkatu baita 2014 eta 2016 urteen bitartean. Ehuneko hori 2008-2012 bitarteko % 1,6- % 1,7 tasak baino nabarmen apalagoa da. Gainerako adin-tarteekin alderatuta, abiapuntuko egoera oso apala da adin-tarte horretan. Benetako pobrezia EAEn eta 65 urtetik gorako pertsonen osatutako familietan duen eragina biztanleria osoaren % 5,6ra mugatu da 2016an, eta tasa horrek behera egin du 2008az geroztik (% 9koa zen urte horretan).

Adin-tarte horren pobrezia-tasak 2014ko batez bestekoa baino apalagoa izaten jarraitzen du, baina deigarria da 2008az geroztik benetako pobrezia eraginaren tasak goranzko joera etengabea ageri duela 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen osatutako familietan. Tasa hori % 2,7tik % 4ra igo da 2008 eta 2014 urteen bitartean. Zehaztasunez hitz egiteko, egonkortu egin dela esan behar litzateke, baina adierazleak gora egin du 2016an, % 4,2ra iritsi baita.

Joera hori bera ikusten da 45 eta 54 urte bitarteko pertsonen osatutako familietan, benetako pobrezia eraginaren tasak gora egin baitu 2008. urtetik (% 2,6) 2016. urtera (% 5,8). Urtetik urtera joera hori adierazi ondoren, lehen aldian da, 2008az geroztik, adin-talde horrek EAEn batez bestekoa gaitzen duela.

Oro har hartuta, 45 eta 64 urte bitarteko pertsonen osatutako familien benetako pobrezia-egoerak izaera horretako egoera guztien % 26,9 izatetik (2008an), egoera guztien % 40,3 izatera igaro dira (2016an). Igoerarik nabarmenena 45 eta 54 urte bitarteko pertsonen osatutako familiekin gertatu da (% 14,6tik % 24,7ra igo da 2008 eta 2016 urteen bitartean; 55 eta 64 urte bitartekoen osatutako familietan, berriz, % 12,2tik % 15,6ra igo da).

Abiaturuko egoera, 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen osatutako familietan, % 7,5aren ingurukoa izan zen 2008 eta 2012 urteetan, baina adin-talde horrek izan zuen, hain justu, benetako pobrezia eraginaren tasa-igoerarik handiena 2014an, % 11,1era iritsi baitzen. Igoera-erritmoa apaldu den arren, tasa % 11,7ra iritsi da 2016an. Hala ere, familia multzo horrek pobrezia-egoeren banaketan duten pisua murrizten joan da; izan ere, % 45,5koa izan zen 2008an, % 44,3koa izan zen 2014an eta % 41koa izan da 2016an. Lehen aldiz, 2008-2016 bitartean begiratu, talde horren dimentsioa 45 eta 64 urte bitarteko pertsonen osatutako familien pisuaren oso antzekoa izan da (% 40,3).

Benetako pobrezia-tasa handiena ez da iritsi, 35 urtetik beherako pertsonen osatutako familietan, 2012an erakutsi zuen % 18ra, baina % 15,3koa izan da 2016an. Pobrezia eraginaren banaketan duten dimentsioa, ordea, % 30,6koa izan zen 2012an, eta, geroztik, etengabe egin du behera, harik eta % 13,1era iritsi den arte 2016an.



GR6.a taula

Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, pertsona nagusiaren adinaren arabera. 2008-2016

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		< 35 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 65 urte	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	11,8	8,4	3,8	4,8	3,2	5,7
	2012	19,7	10,0	5,3	4,7	4,2	7,3
	2014	15,9	13,1	8,9	6,5	2,1	8,2
	2016	18,3	12,9	6,9	6,3	1,8	7,1
Metatze-pobrezia	2008	2,7	3,0	0,4	0,7	1,3	1,5
	2012	3,9	1,7	0,8	0,1	1,9	1,4
	2014	3,3	4,5	1,3	0,6	1,0	2,0
	2016	2,6	4,1	1,3	0,5	0,7	1,6
Benetako pobrezia	2008	9,4	7,6	2,6	2,7	1,6	4,2
	2012	18,0	7,4	4,1	2,9	1,7	5,3
	2014	13,6	11,1	5,3	4,0	1,1	5,9
	2016	15,3	11,7	5,8	4,2	1,1	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	14,4	13,2	6,1	5,3	5,0	8,2
	2012	28,2	11,6	9,3	4,9	6,6	10,1
	2014	23,2	16,9	11,9	7,7	5,7	11,5
	2016	24,8	18,8	12,1	7,0	4,5	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

GR6.b taula

Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, pertsona nagusiaren adinaren arabera. 2008-2016

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

% horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		< 35 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 65 urte	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	17,2	36,9	15,9	16,3	13,6	100,0
	2012	24,3	31,0	18,7	11,7	14,2	100,0
	2014	13,3	37,8	27,1	15,4	6,4	100,0
	2016	12,7	36,9	23,8	19,2	7,4	100,0
Metatze-pobrezia	2008	14,3	49,0	6,8	9,4	20,4	100,0
	2012	24,2	27,2	14,1	1,6	32,8	100,0
	2014	11,4	53,7	16,2	6,3	12,5	100,0
	2016	8,0	51,6	19,7	7,4	13,4	100,0
Benetako pobrezia	2008	18,6	45,5	14,6	12,2	9,0	100,0
	2012	30,6	31,5	19,9	10,0	7,9	100,0
	2014	15,8	44,3	22,4	13,0	4,6	100,0
	2016	13,1	41,0	24,7	15,6	5,6	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	14,6	40,4	17,7	12,5	14,8	100,0
	2012	25,2	26,0	23,8	8,9	16,1	100,0
	2014	13,9	34,9	25,7	13,0	12,6	100,0
	2016	11,3	35,2	27,4	13,9	12,2	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

Pobrezia-egoeren multzoa oro har hartuta, beherazko joera izan du 45 urtetik beherako pertsonen osatutako familien bolumenak; izan ere, % 64,1ekoa zen 2008an, % 60koa izan zen 2014an eta % 54,1ekoa izan da 2016an. Aintzat hartuta bi adin-tarte horietako taldeak direla benetako pobrezia ghorakada gehien nabarmendu dutenak 2014 eta 2016 urteen bitartean, agerikoa da euskal gizartean duten presentzia txikiagoa dela pisu erlatiboan izan duten beherakadaren arrazoia. Egoera horren sorburu dira, beraz, EAEko biztanleriaren zahartze orokorra eta gazteen emigrazioa —batik bat,

immigranteena—. Tasa espezifikoek adierazten dute okerrera egin dutela adierazleek 55 urtetik beherako pertsonak osatutako familietan, baina demografia-faktore horiek azaltzen dute zergatik izan duen benetako pobrezia, 2014 eta 2016 urteen bitartean, beherakada apal bat EAEn.

Egoera ikuspegi orokor batetik alderatzen baldin bada, hau da, ez baldin bazaio familiako erreferentziako pertsonaren generoari begiratzen, benetako pobrezia tasak, adinaren arabera, ez dute aldaketa handirik adierazten 2014 eta 2016 urteen bitartean.

GR7.a taula
Benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren bilakaera, adinaren arabera. 2008-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak. Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekaritate-mota		< 15 urte	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 65 urte	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	9,1	6,9	5,3	5,8	3,3	5,6	4,3	5,7
	2012	11,7	8,4	9,8	7,4	5,1	5,4	4,6	7,3
	2014	13,7	10,2	8,6	10,1	8,0	7,1	2,2	8,2
	2016	11,7	10,4	7,9	9,7	5,9	6,1	2,0	7,1
Metatze-pobrezia	2008	2,0	2,2	1,6	2,3	0,5	0,6	1,5	1,5
	2012	2,7	1,7	1,8	1,6	0,8	0,6	1,0	1,4
	2014	4,1	3,0	2,3	2,7	1,2	0,6	0,8	2,0
	2016	2,8	1,7	1,9	2,5	1,7	0,5	0,6	1,6
Benetako pobrezia	2008	7,4	6,9	4,0	4,8	2,4	2,7	2,1	4,2
	2012	9,5	7,2	8,7	5,4	3,6	3,0	1,7	5,3
	2014	11,1	8,7	7,0	8,0	4,7	3,8	0,8	5,9
	2016	10,5	9,1	7,1	8,0	4,6	3,9	1,1	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	13,0	11,2	7,0	9,9	5,5	5,1	6,0	8,2
	2012	14,1	14,2	15,1	10,3	8,1	6,0	5,8	10,1
	2014	17,1	16,3	13,7	14,5	10,3	7,5	4,9	11,5
	2016	16,7	15,8	12,8	13,3	11,1	7,1	4,5	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

GR7.b taula
Benetako pobrezia- eta prekaritate-egoeren banaketa, adinaren arabera. 2008-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak. % horizontalak

Pobrezia- edo prekaritate-mota		< 15 urte	15-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	> 65 urte	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	23,3	12,2	12,2	17,2	8,4	12,7	13,9	100,0
	2012	22,7	11,1	17,1	16,3	11,4	9,1	12,3	100,0
	2014	24,2	10,4	12,4	20,7	15,8	11,3	5,3	100,0
	2016	21,9	13,4	11,7	21,4	13,2	12,5	6,0	100,0
Metatze-pobrezia	2008	18,9	14,3	13,9	25,7	4,5	5,0	17,7	100,0
	2012	26,8	11,7	16,1	17,9	9,2	5,2	13,1	100,0
	2014	29,3	12,6	13,5	22,7	9,9	4,0	7,9	100,0
	2016	23,2	9,8	12,7	24,8	16,8	4,5	8,1	100,0
Benetako pobrezia	2008	25,8	16,5	12,4	19,3	8,1	8,3	9,5	100,0
	2012	25,3	13,2	20,9	16,4	11,1	6,9	6,3	100,0
	2014	27,2	12,2	13,9	22,8	12,7	8,5	2,7	100,0
	2016	24,2	14,5	12,8	21,6	12,7	9,9	4,3	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	23,2	13,7	11,2	20,5	9,7	8,1	13,5	100,0
	2012	19,7	13,6	19,0	16,2	13,1	7,3	11,1	100,0
	2014	21,5	11,8	14,1	21,1	14,5	8,6	8,4	100,0
	2016	20,4	13,3	12,4	19,3	16,1	9,6	9,0	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014



Erreferentziazko denbora-epe horretan, tasek egonkor diraute 25 eta 44 urte bitartekoen taldean, % 7 eta % 8 bitarteko datuekin. Antzera gertatzen da 45 eta 64 urte bitartekoen taldean, % 3,8ko eta % 4,7ko bitartea erakusten duen aldetik. Zertxobait handitu da, % 8,7tik % 9,1era, 15 eta 24 urte bitartekoen taldean, eta igoera txiki bat izan du 65 urtetik gorakoen artean, baina azken horien datua oso apala da EAE osoari begiratuta, % 1,1an baitago (% 0,8koa izan zen 2014an). Alabaina, 15 urtetik beherako artean, benetako pobrezia % 11,1etik % 10,5era murriztu da 2014 eta 2016 urteen bitartean.

Benetako pobrezia 2016ko ehunekoak 2008koak baino handiagoak dira adin-talde guztietan. Salbuespen bakarra 65 urtetik gorako taldea da, % 2,1eko tasa baitzuen 2008an eta % 1,1ekoa izan baitu aurten. Igoera, era berean, arina izan da, ehuneko puntu batekoa baino zertxobait handiagoa, 55 eta 64 urte bitartekoen artean (% 2,7tik % 3,9ra 2008 eta 2016 urteen bitartean). Gainerako adin-taldeetan, igoera bi puntutik gorakoa izan da 2008-2016 denbora-tartean, eta hiru puntutik gorakoa izan da 15 urtetik beherako eta 25 eta 44 urte bitartekoen taldeetan.

d) Biztanleria, nazionalitatearen arabera

Pobrezia mota guztien eraginak oso handia izaten jarraitzen du, eta ageriko desoreka bat erakusten du familiaren erreferentziazko pertsonak atzerriko nazionalitatea duenean. 2008-2014 epean, egiazko pobrezia-tasa % 2,9tik % 4ra igo da estatuko nazionalitatea duten pertsonen zuzendutako familietan, eta % 4,1eko tasan egonkortu da 2016an. Tasa hori zazpi aldiz handiagoa da, % 30,7koa, bertan bizi diren eta biztanle atzerritarrez osatuta dauden familietan. Hala ere, bertako goranzko joera hori hautsita, lehen aldia da, 2008az geroztik, benetako pobrezia-tasa horrek behera egiten duela urte horretatik aurrera goranzko joera izan duen talde batean —% 27,7koa izan zuen 2008an, % 32koa 2012an eta % 36,2koa 2014an—.

Pertsona atzerritarrez osatutako familien dimentsioa, benetako pobrezia-egoera guztiak aintzat hartuta, % 34,1etik % 41,2ra igo zen 2008 eta 2012 urteen bitartean. Nazionalizazioek eta EAEtik kanporako emigrazio-prozesuek —2012tik aurrera bereziki azken horiek— murriztu egin dute ehunekoak, 2014. urtetik (% 36,4) 2016. urtera (% 32,4). Benetako pobrezia-egoeran dauden pertsonen erreparatuta, estatuko nazionalitatea duen pertsonaren burutza duten familietan bizi diren biztanleen ehuneko erlatiboa, 2016. urtean, inoizko handiena izan da 2008az geroztik (% 67,6).

Argazki hori bera ikusten da datuak pertsona bakoitzak egun duen nazionalitatearen arabera (eta ez familiako erreferentziazko pertsonaren nazionalitatearen arabera) aztertzen direnean. Datuekiko hurbilketa horrek adierazten du, ordea, handitu egin dela estatuko nazionalitatea duten biztanleen ehunekoak egiazko pobrezian bizi diren pertsona guztien artean (pobrezia-egoeren % 71,6).

GR8.a taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, pertsona nagusiaren herritartasunaren arabera. 2008-2016

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
 Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Estatua	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	4,4	28,5	5,7
	2012	5,3	34,3	7,3
	2014	6,4	36,6	8,2
	2016	5,3	34,3	7,1
Metatze-pobrezia	2008	1,4	3,4	1,5
	2012	1,2	4,5	1,4
	2014	1,2	15,2	2,0
	2016	1,4	4,7	1,6
Benetako pobrezia	2008	2,9	27,7	4,2
	2012	3,3	32,0	5,3
	2014	4,0	36,2	5,9
	2016	4,1	30,7	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	6,4	39,9	8,2
	2012	7,1	51,0	10,1
	2014	8,8	53,7	11,5
	2016	8,6	44,7	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

GR8.b taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, pertsona nagusiaren herritartasunaren arabera. 2008-2016

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
 % horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Estatua	Munduko gainerako herrialdeak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	74,2	25,8	100,0
	2012	67,9	32,1	100,0
	2014	73,4	26,6	100,0
	2016	70,6	29,4	100,0
Metatze-pobrezia	2008	88,5	11,5	100,0
	2012	78,8	21,2	100,0
	2014	54,9	45,1	100,0
	2016	82,2	17,8	100,0
Benetako pobrezia	2008	65,9	34,1	100,0
	2012	58,8	41,2	100,0
	2014	63,6	36,4	100,0
	2016	67,6	32,4	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	74,9	25,1	100,0
	2012	65,4	34,6	100,0
	2014	72,3	27,7	100,0
	2016	74,9	25,1	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014



GR9.a taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, herritartasunaren arabera. 2008-2016
 Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
 Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Estatua	Munduko gainerako	
			herrialdeak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	4,6	26,0	5,7
	2012	5,6	31,2	7,3
	2014	6,7	33,7	8,2
	2016	5,6	30,3	7,1
Metatze-pobrezia	2008	1,4	3,0	1,5
	2012	1,2	4,4	1,4
	2014	1,4	12,1	2,0
	2016	1,5	3,8	1,6
Benetako pobrezia	2008	3,0	25,2	4,2
	2012	3,6	28,6	5,3
	2014	4,3	32,5	5,9
	2016	4,4	27,4	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	6,5	39,3	8,2
	2012	7,5	46,2	10,1
	2014	9,2	49,5	11,5
	2016	8,6	45,7	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

GR9.b taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, herritartasunaren arabera. 2008-2016
 Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
 % horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Estatua	Munduko gainerako	
			herrialdeak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	76,5	23,5	100,0
	2012	71,7	28,3	100,0
	2014	76,7	23,3	100,0
	2016	74,5	25,5	100,0
Metatze-pobrezia	2008	90,1	9,9	100,0
	2012	79,6	20,4	100,0
	2014	65,8	34,2	100,0
	2016	85,9	14,1	100,0
Benetako pobrezia	2008	69,0	31,0	100,0
	2012	64,4	35,6	100,0
	2014	68,9	31,1	100,0
	2016	71,6	28,4	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	75,3	24,7	100,0
	2012	69,7	30,3	100,0
	2014	75,7	24,3	100,0
	2016	74,8	25,2	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

e) Ikasketa-maila

Familiako erreferentziazko pertsonaren ikasketa-mailari erreparatuta, pobrezia-adierazleek hobera egin dutela ikusten da, oro har, 2014 eta 2016 urteen bitartean; hala, benetako pobreziaren tasak ehuneko 0,4 eta 0,5 punturen bitartean egin du behera denbora horretan. Lehen mailako ikasketak dituen pertsonen burutza duten familiaena da salbuespen bakarra, tasak % 6,0tik % 6,2ra egin baitu gora 2014 eta 2016 urteen bitartean. Talde horrek izan du, hala ere, tasaren aldaketarik txikiena, 0,8 puntu eskas handitu baita 2008an izan zuen % 5,4tik.

Azken bi urteetan behera egin baldin badute ere, honako ikasketa hauek dituzten pertsonen burutzako familietan bizi direnek dituzte benetako pobreziaren tasarik handienak: ikasketarik eza (lehen mailako ikasketak amaitu gabe), lanbide-izaerakoak ez diren bigarren hezkuntzako ikasketak eta erdi-mailako lanbide-ikasketak. Lehen egoeran dauden artean, 2012ko tasa % 15,8koa zen, eta % 12,4ra murriztu da 2016an; hala ere, 2008koa (% 8,8) baino askoz ere handiagoa da. Kualifikaziorik gabeko bigarren mailako ikasketak dituztenen taldean, ehunekoak nabarmen egin zuen gora krisi-urteetan: % 5,2koa izan zen 2008an, % 8,9koa 2012an eta % 10ekoa 2014an. Ehunekoa % 9,5era jaitsi da 2016an, baina 2008. urtearekiko aldea ikasketa-mailaren araberako azterketan ikusten den handiena da.

Ikasketa kualifikatuak (goi-mailako lanbide-ikasketak edo unibertsitate-ikasketak) dituzten pertsonen burutzako familietan bizi diren biztanleek dute benetako pobreziaren eragin txikiena. Benetako pobreziaren tasa, egoera horietan, % 2,2tik % 1,8ra jaitsi da, baina ez du alde handirik ageri 2008-2012 epean izan duen %1 -% 1,2 bitartearekin.

GR10.a taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, pertsona nagusiaren ikasketa-mailaren arabera.
2008-2016

Familia-etxebizitzetan bizi direnak. Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Ikasket. gabeak	Lehen mailakoa	Bigarren	Kualifikatuak	Guztira
				mailako ez prof. / LHI - Erdi Mailakoa		
Mantenu-pobrezia	2008	10,4	7,2	6,5	2,4	5,7
	2012	14,7	9,6	10,2	2,6	7,3
	2014	13,6	8,5	13,5	4,0	8,2
	2016	10,6	7,9	11,5	3,3	7,1
Metatze-pobrezia	2008	4,4	2,0	1,6	0,5	1,5
	2012	7,8	2,2	1,2	0,5	1,4
	2014	4,5	2,2	3,6	0,4	2,0
	2016	6,0	1,9	1,5	0,3	1,6
Benetako pobrezia	2008	8,8	5,4	5,2	1,2	4,2
	2012	15,8	6,7	8,9	1,0	5,3
	2014	12,8	6,0	10,0	2,2	5,9
	2016	12,4	6,2	9,5	1,8	5,7
Benetako ongizate- gabezia	2008	13,0	9,8	10,9	3,7	8,2
	2012	28,4	13,1	14,5	3,2	10,1
	2014	20,0	13,5	16,7	5,3	11,5
	2016	20,0	12,2	17,6	4,1	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014



GR10.b taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, pertsona nagusiaren ikasketa-mailaren arabera.
2008-2016
 Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
 % horizontalak

Pobrezia- edo prekarietate-mota		Ikasket. gabeak	Lehen mailakoa	Bigarren mailako ez prof. / LHI - Erdi Mailakoa	Kualifikatuak	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	6,5	61,5	18,7	13,2	100,0
	2012	3,6	51,0	32,2	13,3	100,0
	2014	15,1	33,3	32,3	19,3	100,0
	2016	15,3	33,6	32,2	18,9	100,0
Metatze-pobrezia	2008	10,2	63,5	16,6	9,6	100,0
	2012	9,7	59,6	18,4	12,3	100,0
	2014	20,7	35,2	35,4	8,7	100,0
	2016	37,9	34,9	19,0	8,2	100,0
Benetako pobrezia	2008	7,4	63,1	20,3	9,2	100,0
	2012	5,3	49,0	38,5	7,2	100,0
	2014	19,7	32,8	33,2	14,3	100,0
	2016	22,1	32,5	32,7	12,7	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	5,6	58,1	21,9	14,3	100,0
	2012	5,0	50,4	32,8	11,8	100,0
	2014	15,8	37,7	28,6	18,0	100,0
	2016	18,8	33,7	32,2	15,3	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

Dinamika horrek garrantzi handia du benetako pobrezia-aren barne-antolamenduan. Berariaz nabarmentzekoa da ikasketarik gabeko familien egoeraren okertze-joera, 2008. urteko % 7,4tik 2016. urteko % 22,1era igo baita pobrezia-egoeren guztizkoan duten ehunekoa. Hala ere, alderdi deigarriena da zer-nolako igoera izan duen ehunekoak gutxienez bigarren mailako ikasketak dituztenen burutza duten familietako biztanleengan. Pobrezia-egoeren % 29,5 biltzen zituzten talde horretako pertsonak 2008an, baina ehunekoa % 45,7ra igo zen 2012an eta % 47,5era 2014an. Datua % 45,4ra jaitsi da 2016an, baina krisi-urteetan finkatu diren ehunekoetatik gertu dago.

f) Familiako kideen jarduerarekiko harremana

2008 eta 2014 urteen artean, gora egin zuten, nabarmen, kide aktibo guztiak langabezia dituzten familiek benetako pobrezia-egoeretan duten ehuneko-proporzioa. Benetako pobrezia-egoeren % 26,2 familia horietako pertsonak ziren 2008. urtean; gerora, 2012an, % 46,8 izan ziren, eta % 56,8 izan ziren 2014an. Susperraldiaren hasieran, ordea, nabarmen jaitsi da talde horren ehuneko-dimentsioa, % 38,1 izan baita 2016an. Datu hori 2014koa eta 2012koa baino nabarmen apalagoa da.

Langabezia-aren zenbaki absolutuen jaitsierarekin batera, bilakaera horren beste arrazoi bat da 2014-2016 epean behera egin duela talde horrek benetako pobrezia-aren datu erlatiboak: % 39,6tik % 39,1ra. Datu hori 2008koa baino nabarmen apalagoa da (% 49,7 urte horretan), baina 2012koa baino zertxobait handiagoa (% 37,9).

Hala ere, benetako pobreziaren ehunekoak 2014 eta 2016 urteen bitartean eta okupaturako pertsonen familietan izan duen gorakada da faktore nagusia, kontuan izanda, gainera, gero eta gehiago direla, enpleguak izan duen hobekuntzaren ondorioz. Pobrezia, handitu egin da, era berean, pertsona heldu ez-aktiboak dituzten familietan.

Lanean ari diren pertsonak dituzten familietan –lan egonkorra izan behar du kideren batek gutxienez–, benetako pobrezia-tasaren handitzea ez da oso handia izan 2014 eta 2016 urteen bitartean, 0,3 puntukoa izan baita. Gainera, batez bestekotik beherako pobrezia-tasak izaten dituzte ezaugarri horietako familiek. Egoera hori bereziki da nabarmena kide aktibo guztiak lanean dituzten familietan. Egoera horretan daudenen artean, ehunekoak % 0,9tik % 1,2ra egin du gora 2014 eta 2016 artean, baina 2008ko datua baino txikiagoa da (% 1,4).

Era berean, EAEko batez bestekotik nabarmen behera dago benetako pobrezia, kide guztiak lan egonkorrik izan ez arren, gutxienez pertsona bat lanean duten familietan (% 2,8). Hala ere, ikusten da familia horietan gorantz egin duela ehunekoak, benetako pobrezia-ehunekoa % 0,6 eta % 0,9 bitartekoa izan baita 2008-2012 epean, eta handiagoa, % 2,5 eta % 2,8koa hurrenez hurren, 2014an eta 2016an.

Egoeraren okertze-joera agerikoagoa da, hala ere, lana izan bai, baina kideetako inork lan egonkorrik ez duen familietan. Familia horietan, benetako pobreziaren tasak gora egin zuen 2008 eta 2012 urteen bitartean (% 14,7tik % 17,3); gerora, 2014. urtean, % 12,7ra jatsi zen, eta gora egin du berriro 2016an. Aurten, benetako pobreziaren tasa % 16koa izan da, 2012an iritsi zuen maximotik gertu.

Lanean ari diren kideak dituzten familietan, benetako pobreziaren tasek behera egin dute 2014 eta 2016 artean, eta, susperraldi ekonomikoaren ondorioz, handitu egin da familia horien bolumena; horrenbestez, familia mota horren ehunekoak nabarmen egin du gora pobrezia-egoeren banaketan. Familia horiek benetako pobrezia-egoeren guztikoan duten proportzioa % 51,8koa zen 2008an eta % 42,8ra jaitsi zen 2012an, eta % 31,5eraino 2014an; gerora, 2016an, % 47ra igo da, 2008ko ehunekotik gertu jartzeraino.

Kide guztiak egoera ez-aktiboan dituzten familietan, benetako pobrezia-tasak etengabe egin du gora 2012az geroztik (% 3,1koa izan zen urte horretan); izan ere, % 3,8koa izan zen 2014an eta % 4,8koa izan da 2016an. Hala ere, 2008koa (% 5,7) baino txikiagoa da 2016ko tasa. Ildo horri berari jarraituz, familia horiek 2016an benetako pobreziaren banaketan osatzen duten % 14,8ko datua nabarmen apalagoa da 2008koa baino, % 22koa izan baitzen urte horretan.



GR11.a taula

Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, familiak jarduerarekin, lanarekin eta langabeziarekin duen harremanaren arabera. 2008-2016

Familia-etxebizitzetan bizi den biztanleria

Eragina %-tan

Pobrezia- eta prekarietateren mota		Aktiboak eta lan egonkorrekin	Lan egonkorreko beste egoera batzuk	Kideren batek lan ezegonkorra	Guztiak lanik gabe	Ez-aktiboak	Guztira
Mantenu-egoerako bizt.	2008	3,1	0,9	13,2	54,0	9,4	5,7
	2012	2,1	2,0	18,4	45,7	7,0	7,3
	2014	1,7	4,6	16,7	47,4	6,9	8,2
	2016	1,9	3,4	16,5	47,1	6,9	7,1
Metatze-egoerako bizt.	2008	0,5	0,6	4,5	15,8	2,2	1,5
	2012	0,3	0,7	3,3	10,9	0,8	1,4
	2014	0,4	1,9	2,7	10,6	1,7	2,0
	2016	0,5	0,8	5,4	8,2	1,1	1,6
Benetako pobrezia	2008	1,4	0,6	14,7	49,7	5,7	4,2
	2012	1,1	0,9	17,3	37,9	3,1	5,3
	2014	0,9	2,5	12,7	39,6	3,8	5,9
	2016	1,2	2,8	16,0	39,1	4,8	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	4,0	5,3	22,3	61,2	10,1	8,2
	2012	3,2	4,6	32,9	49,3	7,8	10,1
	2014	2,7	9,6	27,4	54,2	9,3	11,5
	2016	3,2	8,4	28,7	53,0	9,7	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014

GR11.b taula

Pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, familiak jarduerarekin, lanaren eta langabeziarekin duen harremanaren arabera. 2008-2016

Familia-etxebizitzetako biztanleria

% horizontalak

Pobrezia- eta prekarietateren mota		Aktiboak eta lan egonkorrekin	Lan egonkorreko beste egoera batzuk	Kideren batek lan ezegonkorra	Guztiak lanik gabe	Ez-aktiboak	Guztira
Mantenu-egoerako bizt.	2008	27,9	3,3	20,8	21,0	27,0	100,0
	2012	12,3	6,6	22,9	41,0	17,2	100,0
	2014	9,1	12,0	14,4	49,1	15,4	100,0
	2016	12,5	10,5	22,7	37,3	17,1	100,0
Metatze-egoerako biztanleria	2008	18,1	8,8	26,4	22,8	23,8	100,0
	2012	8,0	12,2	20,7	49,4	9,7	100,0
	2014	9,6	20,3	9,5	45,1	15,6	100,0
	2016	15,2	10,9	32,7	28,7	12,5	100,0
Benetako pobrezia	2008	17,2	3,0	31,6	26,2	22,0	100,0
	2012	9,0	4,2	29,7	46,8	10,4	100,0
	2014	7,1	9,2	15,3	56,8	11,7	100,0
	2016	9,3	10,5	27,2	38,1	14,8	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	25,5	13,6	24,4	16,5	20,1	100,0
	2012	13,3	11,3	29,7	31,9	13,7	100,0
	2014	10,5	17,9	16,8	40,0	14,8	100,0
	2016	13,6	17,1	25,9	27,5	15,9	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZEE-GPI 2014

Oharra: Lan-egoeran dauden artean, bi motatako biztanle aktiboak daude: egonkorak eta ez-egonkorak, enpresarekin duten harremanaren arabera. Lanik ez duen biztanleria aktiboa, kasu guztietan, langabetu gisa hartu da, lana bilatzeko kudeaketekin zein harreman duen jakiteko informaziorik ez dagoelako eta, orduan, ez-aktiboa den zehaztu ezin delako.

g) Ikuspegi sintetikoa

Aztertu diren aldagaien gaineko hurbilketa sintetikoa egin ondoren, ikusi da familien honako lau mota espezifiko hauetan gertatu direla, 2016an, benetako pobrezia-egoeren % 62,7: Europar Batasunetik kanpoko pertsona atzerritarrez osatutako familiak (% 26,4); 45 urte baino gehiago izan eta lan egonkorrik ez duten familia-taldeak (% 13); familia mota hori bera, lan egonkorrik ez duen pertsona titularrak 45 urte baino gutxiago dituenen (% 12,6); eta lan egonkorrik izan ez eta 45 urte baino gutxiago dituzten emakumeen burutza duten guraso bakarreko familiak (% 10,7). Pobrezia-tasak % 20ko langa gainditzen du ia egoera horietan guztietan. Salbuespen bakarra 45 urte baino gehiago izan eta lan egonkorrik ez duten familia-taldeak dira, % 8,6ko ehunekoarekin; hala ere, batez bestekotik nabarmen gora ageri da talde hori ere.

Lau talde horiek benetako pobrezia-egoeretan zuten dimentsio erlatiboa handitu egin zen 2008tik 2012ra (% 61,2tik % 71,6ra), eta % 70etik gorako datua eman zuten 2014 (% 70,5), aurten % 62,7ra jaisteko. Jaitsiera horrek ezkutatu egiten du, ordea, atzerriko pertsonen nazionalizazio-prozesuak izan duen eragin diferentziala.

Benetako pobrezia-tasa handia izan da, 2016an ere, lan egiteko adinean dauden zenbait pertsona-talderentzat. Hori horrela, % 15eko lana gainditu dute honako talde hauek: 45 urte baino gehiago izan eta lan egonkorrik ez duten emakumeen burutza duten familiak; bakarrik bizi eta lan egonkorrik ez duten pertsonak, emakumezkoak nahiz gizonezkoak, 45 urte baino gehiagokoak nahiz gutxiagokoak. Familia mota horretako pertsonak benetako pobrezia-egoeren % 17,2 hartu dituzte 2016an, eta nabarmendu behar da goranzko joera argia adierazten dutela 2008 eta 2012 urteen artean izandako % 10,6tik % 11,7rako bitartekoarekiko (% 16,7koa izan zen 2014an).

Oro har hartuta, aztertu diren familia mota horiek biltzen dituzte, 2016an, benetako pobrezia-egoeren % 79,8.

Benetako pobreziaren batez besteko tasa oso handia da aztertutako taldeetan. Egia da jaitsi egin dela 2014an eman zuen % 22,2ko datutik, baina % 21ekoa da oraindik 2016an. Ehuneko horiek 2008 eta 2012 urteetakoak baino nabarmen handiagoak dira (% 15,8 eta % 18,7, hurrenez hurren).

Kontrastea berariaz da nabarmena pobreziaren erasanik txikiena duten taldeetan, nola diren lan egonkorreko kideak dituzten familiak, 65 urtetik gorako pertsonaz osatutako familiak eta gizonezko baten burutza duten guraso bakarreko familiak. Talde horietan, benetako pobrezia-tasa, oro har hartuta, % 1,5ekoa izan da 2016an. Datuak igoera nabarmena izan du 2014ko % 1etik, baina ia egonkor dirau 2008ko % 1,4arekin alderatuta.



GR12.a taula

Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, etxekoan unitatearen mota soziodemografikoaren edo pertsona nagusiaren arabera. 2008-2016

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Intzidentzia %-tan

Mota soziodemografikoa	Mantenu-pobrezia				Metatze-pobrezia				Benetako pobrezia				Benetako ongizate-gabezia			
	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016
Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez < 45 urte	47,1	60,7	58,3	36,8	24,4	12,8	11,5	26,4	60,7	63,8	50,3	50,0	82,8	79,8	77,6	86,8
Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez >= 45 urte	15,4	20,3	17,0	24,6	2,2	1,4	2,7	3,1	9,7	18,8	16,2	20,7	19,3	31,9	29,1	36,3
Emakumeak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorra	6,7	3,7	7,9	10,7	3,7	1,0	2,0	0,0	6,9	2,7	7,2	8,6	12,6	11,0	13,7	17,5
Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez < 45 urte	5,4	24,0	41,8	26,6	8,5	4,1	0,5	5,2	5,4	16,1	22,5	18,7	27,6	48,4	45,2	35,6
Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez >= 45 urte	44,5	42,4	44,2	30,6	1,6	3,6	3,2	8,1	30,1	23,3	24,1	23,1	39,4	38,2	32,2	32,7
Emak. bakarrik. < 65 lan egonkorra	9,4	0,7	3,1	4,0	2,2	0,0	0,2	2,4	4,1	0,7	2,0	2,6	6,7	4,4	8,3	8,9
Giz. bakarrik < 65 lan egonkorra	1,3	0,9	1,3	2,7	0,2	0,5	0,0	0,8	0,0	0,5	0,0	0,8	1,7	3,3	3,0	2,4
Giz. bakarrik < 65 lan egonkorrik ez	35,5	29,6	37,6	30,5	6,7	2,3	2,8	3,5	24,1	22,6	20,7	19,7	29,0	35,5	34,9	34,9
Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorrik ez	13,5	21,7	27,5	30,0	9,7	7,9	9,6	5,8	19,1	19,0	21,8	23,6	26,1	24,5	32,0	31,4
Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorrik ez	5,9	7,1	16,2	11,3	1,4	0,8	1,5	2,0	2,8	3,9	9,3	8,6	5,6	10,4	18,0	15,8
Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorra	3,8	3,3	1,9	2,7	0,9	0,0	0,0	0,7	1,3	0,6	0,9	2,3	5,0	2,0	2,6	5,0
Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorra	1,2	0,9	1,6	0,6	0,2	0,1	0,3	0,1	0,8	0,6	0,4	0,3	3,2	2,1	3,5	2,3
Gizonak > 65 urte	2,8	3,4	1,4	1,2	0,9	1,6	1,0	0,5	1,1	1,0	0,8	0,9	3,3	4,4	4,3	3,9
Emakumeak >65 urte	4,1	5,8	3,5	2,9	2,2	2,6	1,0	1,3	2,4	3,1	1,6	1,6	8,0	11,7	8,1	5,3
EBtik kanpoko herrialdeak	35,0	38,6	47,6	42,1	4,5	3,7	18,7	7,0	34,5	37,3	47,2	37,2	51,1	59,6	67,2	54,7
Gizonak. Guraso bakarreko familiak	14,6	25,0	5,2	11,0	0,0	5,1	3,6	0,8	7,4	18,2	2,8	7,1	10,8	21,3	15,1	13,2
Guztira	5,7	7,3	8,2	7,1	1,5	1,4	2,0	1,6	4,2	5,3	5,9	5,7	8,2	10,1	11,5	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

GR12.b taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, etxekoan unitatearen mota soziodemografikoaren edo pertsona nagusiaren arabera. 2008-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
% bertikalak

Mota soziodemografikoa	Mantenu-pobrezia				Metatze-pobrezia				Benetako pobrezia				Benetako ongizate-gabezia			
	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016
Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez < 45 urte	5,1	7,1	5,2	6,4	9,7	7,5	4,2	20,2	8,9	10,2	6,2	10,7	6,2	6,7	4,9	9,8
Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez >= 45 urte	3,0	3,7	5,0	5,0	1,6	1,3	3,3	2,8	2,5	4,7	6,6	5,2	2,6	4,2	6,1	4,9
Emakumeak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorra	1,8	1,2	2,2	5,0	3,7	1,6	2,3	0,0	2,5	1,2	2,7	5,0	2,4	2,5	2,7	5,4
Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez < 45 urte	0,2	0,8	2,4	2,0	1,1	0,7	0,1	1,7	0,3	0,7	1,8	1,7	0,7	1,1	1,9	1,8
Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez >= 45 urte	5,4	3,0	5,7	4,8	0,7	1,3	1,7	5,6	5,0	2,3	4,3	4,4	3,3	2,0	2,9	3,3
Emak. bakarrik. < 65 lan egonkorra	1,4	0,1	0,5	0,8	1,2	0,0	0,2	2,1	0,9	0,1	0,5	0,6	0,7	0,5	1,0	1,1
Giz. bakarrik < 65 lan egonkorra	0,3	0,1	0,2	0,9	0,2	0,4	0,0	1,1	0,0	0,1	0,0	0,3	0,3	0,4	0,4	0,5
Giz. bakarrik < 65 lan egonkorrik ez	4,2	2,8	5,2	7,2	3,0	1,1	1,6	3,7	3,9	2,9	4,0	5,8	2,4	2,4	3,4	5,4
Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorrik ez	8,0	15,1	16,5	13,1	21,1	27,8	23,7	11,2	15,2	18,2	18,1	12,6	10,6	12,4	13,7	8,9
Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorrik ez	9,4	9,3	16,6	13,9	8,4	5,6	6,2	11,1	5,9	7,1	13,2	13,0	6,1	9,8	13,1	12,7
Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorra	15,9	8,8	4,3	5,5	14,3	0,3	0,1	6,6	7,4	2,1	2,8	5,8	14,5	3,9	4,3	6,7
Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorra	6,2	3,3	5,3	2,3	3,4	2,3	4,1	2,3	5,7	3,0	1,9	1,4	11,2	5,8	8,3	5,6
Gizonak > 65 urte	7,9	8,2	2,9	3,5	9,0	20,0	8,4	5,8	4,4	3,4	2,4	3,1	6,6	7,6	6,4	7,2
Emakumeak >65 urte	5,7	5,6	3,5	3,9	11,4	12,8	4,0	7,6	4,6	4,1	2,1	2,6	7,7	8,2	5,7	4,7
EBtik kanpoko herrialdeak	23,3	27,1	24,1	24,3	11,1	13,2	38,8	17,8	31,2	36,0	33,1	26,4	23,7	30,2	24,2	20,6
Gizonak. Guraso bakarreko familiak	2,3	3,8	0,5	1,6	0,0	4,0	1,3	0,5	1,6	3,8	0,3	1,3	1,2	2,4	1,0	1,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014



GR12.c taula

Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, etxekoan unitatearen mota soziodemografikoaren edo pertsona nagusiaren arabera. 2008-2016

Familia-etxebizitzetan bizi direnak.

Datu absolutuak

Mota soziodemografikoa	Mantenu-pobrezia				Metatze-pobrezia				Benetako pobrezia				Benetako ongizate-gabezia			
	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016
Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez < 45 urte	6.170	11.143	9.149	9.606	3.193	2.341	1.812	6.889	7.948	11.706	7.887	13.075	10.848	14.641	12.182	22.682
Emak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorrik ez >= 45 urte	3.613	5.838	8.893	7.610	527	411	1.421	947	2.273	5.402	8.455	6.408	4.540	9.179	15.202	11.237
Emakumeak. Guraso bakarreko fam. Gur lan egonkorra	2.224	1.828	3.827	7.607	1.222	501	982	0	2.283	1.325	3.489	6.100	4.163	5.432	6.634	12.464
Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez < 45 urte	240	1.203	4.269	3.020	375	205	52	584	240	809	2.294	2.115	1.218	2.429	4.616	4.035
Emak. bakarrik. Lan egonkorrik ez >= 45 urte	6.624	4.796	9.976	7.205	232	410	729	1.915	4.476	2.638	5.450	5.430	5.857	4.326	7.264	7.684
Emak. bakarrik. < 65 lan egonkorra	1.754	167	936	1.136	405	0	73	701	765	167	618	759	1.256	1.088	2.512	2.558
Giz. bakarrik < 65 lan egonkorra	368	226	401	1.286	53	123	0	377	0	123	0	398	490	832	939	1.152
Giz. bakarrik < 65 lan egonkorrik ez	5.145	4.372	9.214	10.930	973	341	697	1.260	3.496	3.348	5.070	7.074	4.202	5.256	8.547	12.525
Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorrik ez	9.694	23.835	29.141	19.724	6.922	8.657	10.204	3.821	13.644	20.930	23.068	15.463	18.708	27.008	33.884	20.591
Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorrik ez	11.409	14.678	29.311	20.956	2.745	1.741	2.666	3.793	5.334	8.141	16.758	15.930	10.717	21.366	32.579	29.254
Familia-taldeak Gur < 45 urte lan egonkorra	19.329	13.825	7.519	8.365	4.711	93	45	2.249	6.646	2.403	3.591	7.160	25.487	8.470	10.725	15.462
Familia-taldeak Gur >= 45 urte lan egonkorra	7.529	5.172	9.310	3.404	1.125	725	1.773	797	5.099	3.436	2.385	1.776	19.608	12.556	20.555	12.922
Gizonak > 65 urte	9.677	12.992	5.119	5.228	2.967	6.230	3.612	1.982	3.969	3.846	3.038	3.746	11.525	16.588	15.831	16.604
Emakumeak >65 urte	6.900	8.885	6.109	5.872	3.746	3.979	1.725	2.586	4.116	4.710	2.713	3.177	13.449	17.947	14.073	10.769
EBtik kanpoko herrialdeak	28.430	42.674	42.540	36.668	3.642	4.098	16.720	6.075	28.016	41.312	42.138	32.343	41.546	65.960	60.023	47.581
Gizonak. Guraso bakarreko familiak	2.771	6.055	818	2.493	0	1.240	571	182	1.402	4.400	445	1.613	2.055	5.153	2.388	2.997
Guztira	121.875	157.686	176.532	151.112	32.838	31.094	43.083	34.158	89.706	114.696	127.399	122.566	175.668	218.232	247.954	230.516

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

2.2. Benetako pobreziaren lurralde-eragina

* Lurraldez lurraldeko eraginari begiratuta, 2016an nabarmentzen den lehen alderdia da Arabako egoerak okerrera egin duela Bizkaiarekin eta Gipuzkoarekin alderatuta.

Arabaren bilakaera, konparazioan, negatiboa da osagarri diren bi faktorerengatik. Alde batetik, nabarmendu behar da benetako pobrezia gorakada diferentziala izan duela probintzia horretan 2008 eta 2014 urteen bitartean. Hori horrela, benetako pobrezia, Araban, % 4,1eko datua eman zuen 2008an, % 5,6koa 2012an, eta % 8,2koa 2014an. Agerikoa da, beraz, nabarmen azkartu zela adierazle horren igoera 2012 eta 2014 bitartean. Igoera hori apalagoa izan zen Gipuzkoan, eta aintzat hartu behar da abiapuntuko egoera ere apalagoa zuela. Lurralde horretan, tasa % 2,5koa zen 2008an, % 3,8ra igo zen 2012an eta % 4,2ra 2014an. Tasa handiago batetik abiatu zen Bizkaia 2008an, eta, lurralde horretan, arazoaren tamainak igoera nabarmen apalagoa izan dute denbora horretan; hala, benetako pobrezia-tasa % 5,2koa zen 2008an, % 6,1era igo zen 2012an, eta % 6,4ra iritsi zen 2014an.

Bestalde, 2014 eta 2016 urteen bitartean, luzatu egin da, Araban, aurreko urteetan izan duen joera negatiboa, baina joera-aldaketa, positiboa, izan da Bizkaian eta Gipuzkoan. Benetako pobrezia-tasak gora egiten jarraitu du barnealdeko probintzian, % 8,2koa izan baitzen 2014an eta % 10,4koa izan baita 2016an. Azken datu horrek bi aldiz baino gehiago gaintzen du 2008ko datua (% 4,1koa izan zen urte horretan, hau da ehuneko +6,3 puntu). Tasa horrek jaitsiera apala izan du Gipuzkoan: % 4,2koa izan zen 2014an eta % 4koa izan da 2016an. Datu hori 2008koa baino ehuneko 1,5 puntu handiagoa da, % 2,5koa izan baitzen urte horretan. Bizkaia da datuaren bilakaera onena izan duen lurraldea; izan ere, tasa % 6,4koa izan zen 2014an, eta % 5,5koa izan da 2016an. Lurralde horretan, 0,3 puntutan soilik gaintzen da 2008ko datua (% 5,2).

Benetako pobreziaren bilakaerak, 2008 eta 2016 urteen bitartean, aldaketa txikiak edo nahiko apalak izan ditu Bizkaian eta Gipuzkoan, baina nahiko handiak Araban; hori horrela, azken lurralde horrek izan du daturik okerrera 2016an: % 10,4; Bizkaian, aldiz, % 5,5; eta, % 4 Gipuzkoan.

Lurraldeen arteko aldeak, ordea, ez dira hain deigarriak pobrezia-egoera larrienei, hau da, epe luzeko bizi baldintzei (metatutako pobrezia) begiratzen baldin bazaie. Tasa txikia da Gipuzkoan, % 0,4koa, eta ehuneko handiagoak, baina, hala ere, apalak dituzte Araban eta Bizkaian (% 2,3 eta % 2,2, hurrenez hurren).

Bizkaiak biltzen du, oraindik ere, benetako pobrezia-egoeren proportzio handiena, baina ehunekoak behera egin du urtez urte 2008az geroztik. Urte hartan tasa % 66,5koa izan zen, eta 2016an, berriz, % 50,6koa izan da. Gipuzkoan, datu erlatiboa % 19,5etik % 23,7ra igo zen 2008 eta 2012 urteen bitartean, eta % 23ko tasaren inguruan finkatu da (% 23,1koa izan da 2016an). Alabaina, etengabe ari da gora egiten Arabak EAEko benetako pobrezia-egoeretan duen pisua; izan ere, % 14,1koa izan zen 2008an, eta % 26,4koa izan da 2016an.



TH 1.a. taula
Benetako pobrezia- eta prekariedade-egoeren bilakaera, lurralde historiko bakoitzeko. 2008-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Pobrezia- edo prekariedade- mota		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	5,8	3,9	6,7	5,7
	2012	7,3	6,3	7,9	7,3
	2014	10,5	6,6	8,5	8,2
	2016	9,7	5,1	7,5	7,1
Metatze-pobrezia	2008	1,8	0,4	2,1	1,5
	2012	1,1	0,9	1,8	1,4
	2014	1,5	1,5	2,5	2,0
	2016	2,3	0,4	2,2	1,6
Benetako pobrezia	2008	4,1	2,5	5,2	4,2
	2012	5,6	3,8	6,1	5,3
	2014	8,2	4,2	6,4	5,9
	2016	10,4	4,0	5,5	5,7
Benetako ongizate-gabezia	2008	6,5	5,7	10,1	8,2
	2012	9,7	8,2	11,3	10,1
	2014	15,3	7,7	12,8	11,5
	2016	14,2	8,3	11,3	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

TH 1.b taula
Benetako pobrezia- eta prekariedade-egoeren banaketa, lurralde historiko bakoitzeko. 2008-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
% horizontalak

Pobrezia- edo prekariedade- mota		Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Guztira
Mantenu-pobrezia	2008	14,7	22,3	63,0	100,0
	2012	15,1	28,6	56,3	100,0
	2014	18,9	26,7	54,4	100,0
	2016	19,9	23,9	56,2	100,0
Metatze-pobrezia	2008	16,6	8,8	74,6	100,0
	2012	11,9	21,2	66,9	100,0
	2014	11,1	24,3	64,7	100,0
	2016	21,0	7,6	71,4	100,0
Benetako pobrezia	2008	14,1	19,5	66,5	100,0
	2012	16,1	23,7	60,3	100,0
	2014	20,6	23,3	56,1	100,0
	2016	26,4	23,1	50,6	100,0
Benetako ongizate-gabezia	2008	11,4	22,9	65,7	100,0
	2012	14,5	26,8	58,6	100,0
	2014	19,7	22,2	58,2	100,0
	2016	19,1	25,5	55,4	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

* EAEko gunen urbanizatuenera joz gero, eskualde-datuaz azterketak adierazten du egoerak okerrera egin duela Gasteizko eskualdean. Eskualde horrek Bilbokoa gainditu zuen 2014an, benetako pobrezia eraginean, eta egoera hori finkatu egin da 2016an. Gasteizek erakusten duen tasa handitu egin da; izan ere, % 4,4koa zen 2008an, eta % 10,6koa izan da 2016an; Bilboko eskualdean, berriz, % 7,6ko tasatik % 9,5ra igaro ondoren, % 8,4ra jaitsi zen 2014an eta % 7,7ra jaitsi da 2016an.

Benetako pobrezia eraginak % 5,8tik % 6,5era egin zuen gora Ezkerraldean 2012tik 2014ra, baina eskualde hori Gasteiz eta Bilboko eskualdeetatik urrunduz 2008 eta 2012 urteen bitartean, haiek baino igoera apalagoak izan zituelako (% 5,6tik % 5,8ra). Eskualde horrek, gainera, bat egiten du Bilbokoaren hobekuntzarekin; izan ere, 2014-2016 epean, % 6,5etik % 5,2ra jaitsi da, eta lehen aldiz jarri da, 2008az geroztik, EAEko batez bestekotik beherako ehunekotan.

Euskadin jende gehien biltzen duen eskualdeei begiratuta, Donostialdea eta, 2016an modu deigarrian, Eskuinaldea dira egoera horren eragin txikiena duten lurralde-esparruak. Gipuzkoako eskualde horretan, tasak % 3,1tik % 4,1era egin zuen gora 2008-2012 epean, eta, geroztik, egonkortu egin da, % 4,0ko datua iritsita 2016an. Eskuinaldean, 2008-2012 laurtekoko igoera oso antzekoa izan da %3tik % 5,1erakoa, baina, gerora, etengabe egin du behera, harik eta 2016an % 2,4ko tasa iritsi duen arte, EAEn biztanle gehien dituzten guneen arteko txikiena.

Gune urbanizatuenak aztertzean, ezinbestean adierazi behar da, Bilbo, berriki bilakaera positiboa izan duen arren, Gasteizen aurretik dagoela metaketako pobrezia tasan, hau da, pobrezia-egoeren aldaera larrienak adierazten dituen aldagai orokorrean. Bizkaiko hiriburuak ageri duen % 4ak gaintu egiten ditu Gasteizko % 2,4a eta Ezkerraldeko % 2,1a. Egoera horren eragina, ordea, txikia da Eskuinaldean (% 0,8) eta ia hutsala Donostialdean (% 0,3).

EAEn biztanle gehien biltzen dituzten eskualdeak alde batera utzita, deigarria da honako bi eskualde hauek datu erlatiboetan ageri duten joera negatiboa: Aiara eta Debabarrena. Horietako lehenak, Aiarak, Gasteizekin partekatzen du Arabak erakusten duen joera negatiboa. Eskualde horrek, 2008 eta 2012 urteen bitartean, tasa nahiko apalak zituen beste eskualde batzuekin konparatuta (% 2,3 eta % 2,2), eta, 2014an % 4,4ra igo zen arren, EAEko batez bestekotik urrun zen orduraino. Alabaina, 2016an, Aiarak nabarmen gaintu du batez besteko hori, eta Gasteizko eskualdearen mailara gerturatu da, % 9,1eko tasarekin. Oso antzeko dinamika erakusten du Debabarrenak. Eskualde horrek % 2 inguruko datuak izan zituen 2008 eta 2012 urteen bitartean, baina benetako pobrezia tasa % 3,8ra igo zen 2014an, eta % 8,1eraino igo da 2016an.

Euskadiko gainerako eskualdeei begiratuta, nolabaiteko egonkortasuna ageri dute Bizkaiko Bizkaia-Kosta eta Durangaldea eskualdeek. Horietako lehenak beherakada arin bat izan du 2014 eta 2016 urteen bitartean (% 5,9tik % 5,6ra), eta igoera txiki bat Durangaldeak (% 4,3tik % 4,7ra); hala, elkarrengana gerturatzen ari dira bi eskualde horietako datuak.

Tasen beheranzko joera asko ere agerikoa da Gipuzkoako Debagoiena eta Tolosa-Goierrri eskualdeetan. Horietako lehenean, tasa %0,4tik % 4,1era igo zen 2008 eta 2014 urteen artean, baina benetako pobrezia eragina % 1,3ra jaitsi da 2016an. EAEko eskualdeen mailarik txikiena du gaur egun. Hobekuntza ez da hain nabarmena Tolosa-Goierrri eskualdean, baina bai agerikoa, % 5etik % 3,7ra jaitsi baita 2014 eta 2016 urteen bitartean.



COM 1.a. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren bilakaera, eskualde bakoitzeko. 2008-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
Intzidentzia %-tan

Eskualdea	Mantenu-pobrezia				Metatze-pobrezia				Benetako pobrezia				Benetako ongizate-gabezia			
	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016
Gasteiz	6,1	7,4	11,3	9,7	1,7	1,3	1,3	2,4	4,4	6,2	8,9	10,6	6,6	10,8	15,9	14,6
Aiaraldea	4,3	6,4	5,6	9,8	2,1	0,1	2,4	1,8	2,3	2,2	4,4	9,1	6,2	3,5	11,3	11,9
Eskuinaldea	5,3	5,5	5,2	3,5	0,2	0,7	0,5	0,8	3,0	5,1	3,3	2,4	5,7	9,1	7,3	4,8
Bilbo	10,1	10,6	11,4	8,8	2,3	2,3	3,5	4,0	7,6	9,5	8,4	7,7	13,8	13,6	15,9	14,2
Ezkerraldea	5,8	8,0	9,2	8,6	3,3	2,7	3,5	2,1	5,6	5,8	6,5	5,2	11,8	12,4	14,1	13,6
Bizkaia-Kosta	3,2	6,9	6,3	8,0	1,3	1,1	0,7	0,3	2,0	2,9	5,9	5,6	5,2	6,0	11,7	7,8
Durangaldea	5,3	3,8	4,9	5,8	1,1	0,2	0,6	1,2	2,8	2,4	4,3	4,7	3,5	10,3	8,4	8,6
Donostialdea	4,7	6,9	7,0	5,1	0,4	0,8	1,6	0,3	3,1	4,1	4,0	4,0	6,6	8,7	7,7	8,6
Tolosa-Goierri	2,1	6,8	5,1	4,0	0,3	2,4	1,8	0,7	1,3	4,5	5,0	3,7	4,7	6,7	7,5	8,2
Debagoiena	1,2	2,5	4,8	4,7	0,9	0,1	0,2	0,0	0,4	2,0	4,1	1,3	1,9	8,4	8,5	3,7
Debarrena	3,4	4,9	8,4	7,9	0,0	0,2	0,6	0,7	1,8	2,2	3,8	8,1	4,9	6,9	6,7	11,4
Guztira	5,7	7,3	8,2	7,1	1,5	1,4	2,0	1,6	4,2	5,3	5,9	5,7	8,2	10,1	11,5	10,8

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

COM 1.b. taula
Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, eskualde bakoitzeko. 2008-2016
Familia-etxebizitzetan bizi direnak.
% bertikalak

Eskualdea	Mantenu-pobrezia				Metatze-pobrezia				Benetako pobrezia				Benetako ongizate-gabezia			
	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016	2008	2012	2014	2016
Gasteiz	13,2	13,1	17,5	17,1	13,9	11,8	8,5	18,8	13,0	15,1	19,1	23,3	9,9	13,8	17,6	17,0
Aiaraldea	1,5	1,9	1,4	2,7	2,8	0,2	2,5	2,2	1,1	0,9	1,5	3,1	1,5	0,8	2,0	2,2
Eskuinaldea	6,8	5,5	4,6	3,7	1,1	3,7	1,7	3,6	5,2	7,1	4,1	3,1	5,0	6,6	4,6	3,4
Bilbo	29,3	22,4	21,9	19,6	24,9	24,5	27,6	39,6	30,0	27,6	22,6	21,1	28,0	20,8	21,8	20,8
Ezkerraldea	18,9	19,9	20,2	21,7	39,9	33,5	31,7	23,2	25,0	19,8	19,7	16,1	26,9	22,1	21,9	22,5
Bizkaia-Kosta	3,2	5,7	4,4	6,6	5,0	4,5	2,0	0,9	2,7	3,3	5,7	5,7	3,6	3,6	5,7	4,2
Durungaldea	4,9	2,8	3,4	4,7	3,7	0,6	1,7	4,1	3,6	2,5	4,0	4,6	2,2	5,6	4,1	4,5
Donostialdea	18,4	20,7	18,8	16,2	6,1	11,6	18,1	4,2	16,6	16,8	14,9	15,5	17,8	18,8	14,9	17,9
Tolosa-Goierri	1,9	5,2	3,5	3,0	0,9	9,1	5,2	2,3	1,6	4,7	4,7	3,4	3,0	3,7	3,7	4,0
Debagoiena	0,6	1,0	1,7	1,9	1,8	0,2	0,2	0,0	0,3	1,1	2,0	0,6	0,7	2,4	2,1	1,0
Debarrena	1,4	1,8	2,7	2,8	0,0	0,3	0,8	1,1	1,0	1,1	1,7	3,6	1,4	1,9	1,5	2,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014



Pobrezia-tasen bilakaerak, edonola ere, areagotu egin du eskualde-egoeren aniztasuna. Benetako pobreziaren adierazleari begiratuta, eskualde kaltetuenean % 8aren inguruko edo handiagoko tasak ageri dituzte. Arabako eskualdeak daude egoera horretan, Debabarrena eta, garai batean baino dinamika askoz ere hobea duen arren, baita Bilboko eskualdea ere.

Beste muturrean, benetako pobreziaren tasa % 4koa edo txikiagoa da Donostialdean, Eskuinaldean, Tolosa-Goierrin eta Debagoienan. Erdibidean, baina egoera oneneko eskualdeetatik gertu daude Bizkaiko gainerako eskualdeak (Ezkerraldea, Bizkaia-Kosta eta Durangaldea), % 4,7 eta % 5,6 bitarteko datuekin.

- * Lurralde historikoetan ikusita joera horiek eragin agerikoa dute benetako pobreziako egoerek EAEn duten banaketarekin. Azken urteetan gertatu den aldaketa nagusien artean, nabarmentzekoa da Gasteizen datu erlatiboetan hartu duen pisu handiagoa, benetako pobrezia-egoerek Euskadiko gunen urbano nagusietan duten banaketaren barruan. Hori horrela, Bilbok, Donostialdeak eta Gasteizek osatzen duten hirukoan, azken horrek benetako pobrezia-egoeren % 29,4 hartu ditu 2016an, baina horien guztien % 14,5 hartu zituen 2008an. Alabaina, beherakada handia izan dute, hirietako pobreziari begiratuta, Bilbokoak eta Ezkerraldekoak (benetako pobrezia-egoeren % 61,3 hartzen zituzten 2008an, eta horien % 47 hartu dituzte 2016an). Eskuinaldearen eta Donostialdearen ehunekoak beheranzko joeran egonkortu dira (benetako pobrezia-egoeren % 24,2 hartu zituzten 2008an eta horien % 23,5 hartu dituzte 2016an).

Beste aldaketa nabarmen bat da nabarmen handitu dela urbanizazio-maila apalenak dituzten eskualdeen pisua benetako pobrezia-egoeren eta ongizate-gabeziako egoeren datu erlatiboetan. Zehazki, 2008 eta 2014 urteen bitartean, % 10,2tik % 19,6ra igo da Bizkaia-Kostak, Durangaldeak, Debagoienak, Debabarrenak eta Tolosa-Goierrin pobrezia-egoeretan osatzen zituzten tasak. Egia da benetako pobrezia-egoeren tasek nabarmen egin dutela hobera Debagoienan eta Tolosa-Goierrin, eta, neurri apalagoan bada ere, baita Bizkaia-Kostan ere, baina Durangaldeko joera negatiboak, eta, batik bat, Aiara eta Debabarrenekoak, eutsi egiten diote ildo negatibo horri. Eskualde horiek hartu dituzte, 2016an, EAEn diren benetako pobrezia-egoeren %21.



3. Desberdintasun-adierazle nagusiak

* Krisiak aurrera egin ahala, desberdintasun-egoerak nabarmen handitu dira 2012-2014 urteen bitartean. Hala ere, 2014 eta 2016 urteen bitartean, enplegua berreskuratu denez eta egoera ahulean zeuden kolektiboetan emigratio-prozesuak izan direnez, murriztu egin da aurreko goraldiaren zati handi samar bat.

Alde batetik, Gini koefizienteari begiratuta, argia izan da noranzko-aldaketa 2012 eta 2014 urteen bitartean. Koefiziente horrek, 1996az geroztik (28,0ko datua zuen urte horretan), etengabe egin zuen behera 2012ra arte, 25,2ko datua eman baitzuen 2008an, eta 25,3koa, egonkortuta, 2012an. Horren ondoren, 27,1era igo zen 2014an, 2000ko desberdintasun-maila antzekoan, eta gainera 1996ko datua soilik zuela. Gini koefizientea 25,8raino jaitsi da 2016an, eta 2008-2012 epeko 25,2-25,3 datuak soilik dira hura baino txikiagoak.

Antzeko joera adierazten du EAEko biztanleria aberatsenaren % 20aren diru-sarrerak eta biztanleria pobreenaren % 20aren diru-sarrerak erkatzen dituen ratioak. Ratio horrek behera egin zuen 1996 (4,2) eta 2008 urteen bitartean (3,6). Zertxobait egin zuen gora 2012an (3,7) eta nabarmen gorago 2014an (4,2); hala, 1996 eta 2000 urteetan izandakoen antzeko mailak iritsi zituen. Ratioa 3,9ra jaitsi da 2016an, hau da, 2004ko datu berera. Beste behin, gainditu egin dira 2008-2012 epeko datuak (3,6-3,7).

Des.1 taula
Euskal Autonomia Erkidegoko desberdintasun-adierazleak. 1996-2016
Gini koefizientea eta S80/S20 ratioa
eta pertsona pobreenen % 10ek guztirako diru-sarreretan duten parte-hartzearen %a

	Gini koefizientea	S80/S20 ratioa	Biztanle pobreenen % 10ren diru-sarreraren %a
1996	28,0	4,2	3,68
2000	27,3	4,1	3,55
2004	26,0	3,9	3,76
2008	25,2	3,6	3,88
2012	25,3	3,7	3,75
2014	27,1	4,2	3,41
2016	25,8	3,9	3,48

Iturria: PGDI 1996-2016 eta GZE-GPI 2014

* 2012 eta 2104 urteen bitartean, kezkarik handiena eragin duen dinamika da EAEn baliabide gutxien duten pertsonen %10ari dagokion diru-sarrera guztien proportzioari buruzko adierazleari dagokiona. Proportzio hori % 3,55ekoa zen 2000an, gero, 2008an %3,88ra igo zen, ondoren, 2012an, adierazlea % 3,75era igo zen, eta % 3,41era jaitsi zen 2014an. Datuak % 3,48ra egin du gora 2016an, baina 2014an gertatzen zen moduan, 1996-2012 epeko datuetatik behera ageri da oraindik (epe horretan, adierazle minimoa % 3,55ekoa izan zen, 2000. urtean).

2016ko adierazlean antzeman den beherakada populazioaren dezilen araberako diru-sarreraren eta diru-sarreraren mailen arteko bilakaera desberdinarekin lotuta dago. Hori horrela, *per capita* diru-sarrera garbi arruntak 2008koak baino % 3 eta % 6 bitarte handiagoak dira 2016an gizartean egoera ahulean dagoen % 80rentzat. Egoera okerragoan dagoen % 20 horren dinamika okerragoa da. Errenten bigarren dezilean, diru-sarrera arruntak 2008koak baino % 0,7 soilik handiagoak dira 2016an; bestalde, -% 7,2ko beherakada izan da egoera okerrenean dagoen biztanleriaren % 10aren egoeran.

EAEEn egoera prekarioenean dagoen % 20 horren diru-sarreraren bilakaerak jaitsierak adierazi ditu 2008 eta 2014 urteen bitartean, eta jaitsierak nabarmen handiak izan dira 2012 eta 2014 urteen bitartean. Dinamika berrienak, ordea, adierazten du diru-sarrera arruntek gorako joera argia erakutsi dutela egoera okerrenean dagoen biztanleria zatian; izan ere, egoera okerrenean dagoen % 30 horren diru-sarrerak % 7,2 eta % 9,9 bitarteko gorakada izan dute, eta gizarteko gainerako taldeetan izan dena baino handiagoa da igoera hori (D4 eta D6 deziletan, % 5,3 eta % 6,7 bitartekoa izan da igoera, % 4,5koa izan da D7 dezilean, eta % 1,3 eta % 2,2 bitartekoa D8 eta D10 bitarteko deziletan).

Des.2 taula
Biztanle bakoitzaren batez besteko diru-sarrera baliokideak, sarreraren dezilak kontuan hartuta
(hileko sarrera garbi arruntak)
2008-2016 aldia

	Biztanle bakoitzaren hileko sarrera garbi arruntak				Bilakaera 2008/12	Bilakaera 2012/14	Bilakaera 2014/16	Bilakaera 2008/16
	2008	2012	2014	2016				
Diru-sarreraren dezila	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa				
10 pobreena (D1)	575,51	562,90	498,18	534,07	-2,2	-11,5	7,2	-7,2
10-20% (D2)	820,21	816,44	752,63	826,01	-0,5	-7,8	9,8	0,7
20-30% (D3)	973,43	979,35	929,91	1.022,35	0,6	-5,0	9,9	5,0
30-40% (D4)	1.137,12	1.146,88	1.107,17	1.181,31	0,9	-3,5	6,7	3,9
40-50% (D5)	1.288,59	1.304,10	1.275,73	1.345,29	1,2	-2,2	5,5	4,4
50-60% (D6)	1.438,34	1.473,68	1.441,16	1.517,93	2,5	-2,2	5,3	5,5
60-70% (D7)	1.607,57	1.649,95	1.630,56	1.703,56	2,6	-1,2	4,5	6,0
70-80% (D8)	1.812,61	1.881,01	1.856,64	1.897,79	3,8	-1,3	2,2	4,7
80-90% (D9)	2.094,43	2.190,18	2.186,46	2.214,62	4,6	-0,2	1,3	5,7
10 % aberatsena (D10)	3.000,89	2.942,58	3.031,88	3.098,33	-1,9	3,0	2,2	3,2
Guztira	1.474,95	1.494,92	1.470,67	1.534,33	1,4	-1,6	4,3	4,0

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

Deigarria da ikustea DSBE/EPO/GLL sistemarik izan ez balitz, EAEEn pobreena den % 10 horren diru-sarreraren galera -% 23,2koa izango litzatekeela 2008-2016 bitarteko krisi-garaian. Pertsonen talde horretan, prestazioen eraginak 16 puntu murriztu du diru-sarreraren azken beherakada, finean izan den -% 7,2ko datuarekiko.

DSBE/EPO/GLL sistemak eraginak ditu, era berean, diru-sarreraren gaineko beste dezil batzuetan. Hori horrela, hurrengo tartean, pobrezia handieneko % 10 eta % 20 bitarteko dezilean (D2), sistemak 7 puntu murriztu du biztanleriaren zati horrek 2008-2016 bitartean izan zezakeen diru-sarreraren galera (sistemako diru-sarrerak aintzat hartu gabe -% 6,4koa litzateke beherakada, baina, egiaz, haiek aintzat hartuta, % 0,7ko gorakada izan da dezil horretan). Eragin horrek, 3. dezilean (D3), 1 puntuko ekarpen positiboa ekarri du; izan ere, diru-sarreretan 2008 eta 2016 bitarteko epean izan den gorakada % 5koa izan da, baina, DSBE/EPO/GLL sistemarik gabe, % 4koa izango zen.




Taula Des.3

1, 2, 3 eta 4-10 sarrereren dezilen (hileko sarrera garbi arruntak) biztanle bakoitzeko batez besteko sarrera baliokideen bilakaera konparatua, DBE/EPO/GLL sistemako sarrerekin eta sarrera horiek gabe
2008-2016 aldia

Diru-sarrera mota		Dezilak				Guztira
		% 10 pobreena (D1)	% 10-20 (D2)	% 10-20 (D2)	% 40tik 100erainoko aberatsenak	
Diru-sarrerak, guztira		Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa
	2008	576	820	973	1.767	1.475
	2016	534	826	1.022	1.852	1.534
	Bilakaera 2008-2016	-7,2	0,7	5,0	4,8	4,0
DBE/EPO/GLLrik gabeko sarrerak		Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa
	2008	520	792	957	1.765	1.464
	2016	399	742	995	1.849	1.508
	Bilakaera 2008-2016	-23,2	-6,4	4,0	4,7	3,0
DBE/EPO/GLL sarrerak gutxitzeagatik murrizketa-puntuak		16,0	7,1	1,0	0,1	1,1

Iturria: PGDI 2008-2016 eta GZE-GPI 2014

. grafikoa





4. Pobreziaren eta beste prekaritate mota batzuen ezaugarriak adingabekoengan

PGDI inkestak lehen aldiz jaso du, 2016an, adingabeek bizi dituzten gabezia materialak neurtzeko adierazle berariazkoen modulu bat. Horren helburua da jakitea zer neurritan iristen diren familietan hautemandako gabezia orokorrak haietan bizi diren adingabekoengana.

Orain, 1 urtetik 15 urtera bitarteko biztanleen emaitza nagusiak erakutsiko ditugu. Emaitza horiek adierazten dute, oro har, zer nolako eragin diferentzial handia duten adingabeko horiengan pobreziaren eta beste ongizate-gabeziako beste modu batzuen presentziak. Emaitza horien artean jasotzen dira, era berean, ongizaterako sarbidean izaten diren arrisku-egoeretan hautemandako eraginak.

- * Nabarmendu beharreko lehen datua da ongizate-egoeran (erabatekoan edo ia erabatekoan) bizi diren taldeetan soilik esan daitekeela adingabekoak, ia kasu gehien-gehienetan, inolako gabeziarik gabe bizi direla, baldin eta ongizate-egoera horrek ez baldin badu lotutako arriskurik. Ongizate-egoera horietan, aztertu den biztanleria adingabearen % 95,1 bizi da aztertutako gabezia-adierazle guztien eraginetik aparte. Soilik % 4,9k ditu oinarrizko alderdiekin lotutako arazoak edo arazo nabariak (% 3,9 eta % 1, hurrenez hurren).
- * Familien beste talde bat ongizatean bizi da nagusiki, baina zenbait arrisku-egoera adierazgarri bizi ditu. Egoera horietan ere, gehiengo dira gabezia-adierazleen eraginik gabe bizi diren adingabeak. Hala ere, talde horretan, adingabeen % 57,7raino jaisten da proportzioa.

Horrenbestez, ezaugarri horiek dituzten familietan bizi diren adingabeen % 42,3k bizi ditu oinarrizko arazoak edo, gutxienik, arazo nabarmenak. Dena den, oinarrizko arazoaren presentzia gutxiengoa da ezaugarri horiek dituzten familietan, adingabekoen % 8,4k soilik baititu arazo horiek, gainera, oraindik apalagoa da gabezia material oso larriak dituztenen ehunekoa (% 2,8k dituzte arazo oso larriak, eta % 5,6k bestelako oinarrizko arazoak). Ehuneko deigarriena oinarrizko arazorik izan ez, baina arazo adierazgarriak dituzten adingabekoena da, 1 eta 15 urte bitarteko adingabekoen % 33,9 baitago egoera horretan.

Gabezia modu zabalduenei begiratuz gero, ikusten da familia horietan bizi diren adingabekoen % 13,4k eta % 16,8k bitartean ezin dituztela lagunak jolastera edo jatera gonbidatu, edo, eskolan, ezin izaten dituztela egin kostu ekonomikoa duten bidaiak eta jarduerak. Deigarriagoa da % 28,3k ezin duela gutxienik astebeteko oporraldi bat izan etxetik kanpora.

MEN.1 taula
Adingabeok pobrezia/benetako ongizatea eskalan dituzten gabeziak, familia-egoeraren arabera. 2016
Familiarekin bizi diren 1 eta 15 urte bitarteko adingabeak
(Talde bakoitzeko biztanleria %-etan)

	Benetako pobrezia	Ongizate- gabeziako bestelako egoerak	Ongizate eta arriku elementuak	Ongizatea	Guztira
	%	%	%	%	%
<i>Adierazleak</i>					
Proteinarik gabeko jatekoak egunero	17,4	3,3	2,8	0,0	2,3
Fruta edo barazkirik gabe egunero	10,7	1,9	0,0	0,4	1,5
Ez ditu bi zapata-pare (edo pare bat urte-sasoi bakoitzeko).	12,8	0,0	0,0	0,4	1,6
<i>Oinarrizko arazo oso larriak</i>	25,5	5,2	2,8	0,4	3,5
Ez du arropa berririk	40,1	19,9	0,3	0,4	5,5
Ez du eskolako lanak egiteko leku egokirik etxean	12,4	7,6	0,4	0,5	2,1
Ez du aisialdiko ekipamendurik (etxean)	12,9	2,4	3,3	0,0	1,9
Ez du bere adinerako libururik	19,3	8,1	3,1	0,0	2,8
Ez du aisialdirako ekipamendurik (kalean erabiltzekoak)	25,3	9,2	5,0	0,0	3,7
Ezin ditu ospakizun bereziak ospatu	38,2	13,9	4,0	0,5	5,6
<i>Oinarrizko beste arazo batzuk</i>	40,6	28,1	5,6	0,6	6,9
OINARRIZKO ARAZOAK	66,1	33,3	8,4	1,0	10,4
Ezin ditu lagunak jolastera edo jatera gonbidatu	50,7	25,6	13,4	1,6	9,5
Ez du (ordainpeko) jarduera erregularrik egiten etxetik kanpo	55,3	18,7	9,4	0,7	8,4
Ez du (ordainpeko) bidaia edo jarduerarik egiten eskolan	48,3	14,2	16,8	1,7	9,1
Ezin du oporretara joan (astebete urtean)	82,4	58,2	28,3	2,6	17,1
BESTE ARAZO ADIERAZGARRI BATZUK	28,6	34,6	33,9	3,9	11,9
ARAZORIK GABEAK	5,3	32,1	57,7	95,1	77,6

Iturria: PGDI 2016



- * Ongizate-gabeziako arazoak bai, baina pobrezia-arazorik ez duten familietan, gutxiengoa da, nabarmen, gabezia-egoeretatik erabat aparte bizi diren enen ehunekoa, adingabekoen % 32,1 soilik baitago egoera horretan. Oinarrizko arazoek presentzia agerikoagoa dute familien talde horretan, baina gutxiengo dira, oraindik, adingabeko guztien % 33,3, oinarrizko arazoak dituztenak, eta bereziki gutxi dira oinarrizko gabezia oso larriak dituztenak (% 5,2k ditu gabezia oso larriak eta % 28,1ek beste oinarrizko arazo batzuk). Talde horretan, % 34,6k ditu arazo adierazgarriak, oinarrizko izaerarik gabeak.

Familien talde horretan, gehiengoa da etxetik kanpo gutxienez astebeteko oporrak hartu ezin dituztenak (% 58,2), eta % 25,6k ezin ditu lagunak jolastera edo jatera gonbidatu. Egoera horiek beste arazo ez-oinarrizko baina adierazgarri batzuetan duen eragina txikiagoa da, baina dezentekoa oraindik ere: % 14,2k ez du parte hartzen kostu ekonomikoa duten eskolako bidaiak eta jardueretan; eta % 18,7k ez du etxetik kanpo egiten kostu ekonomikodun jarduerak erregularrik.

Talde horretan, gainera, zenbait arazo oinarrizkoaren eragina agerikoa izaten hasten da. Familia horietan bizi diren adingabekoen % 19,9k ez du arropa berririk, % 13,9k ezin du ospakizun berezirik ospatu, eta % 7,6 eta % 9,2k bitartean arazoak ditu eskolako lanak egiteko leku egoki bat izateko, bere adinerako liburuak izateko edo kalean jolasteko ekipamendua izateko.

- * Benetako pobrezian bizi diren familietan, gabezia-egoerak nagusitzen dira, eta familia horietako adingabeen % 5,3 soilik bizi da inolako gabeziarik izan gabe. Hala ere, larriena da oinarrizko arazoak nagusitzen direla, familia horietako adingabekoen % 66,1ek bizi baititu oinarrizko arazo horiek. Datu positibo bakarra da arazo larrienak gutxiengo direla oinarrizko arazoaren artean. Hori horrela izanda ere, benetako pobrezian bizi diren familietako adingabekoen % 25,5ek oinarrizko gabezia oso larriak ditu, eta % 40,6k beste oinarrizko arazo batzuk ditu, hain larriak ez direnak. Adingabeko horien % 28,6k oinarrizko izaerarik gabeko gabezia adierazgarriak ditu.

Aztertutako familietan, adingabekoen gehiengoak bizi ditu arazo adierazgarriak. Izan ere, arazoak dituzten adingabeen % 48,3 eta % 55,3k bitartean arazoak ditu lagunak jolastera edo jatera gonbidatzeko, etxetik kanpo ordainpeko jarduerak erregularrak egiteko, eta eskolatik kanpo ordainpeko bidaiak eta jarduerak egiteko. Adingabeko horien % 82,4k ez du etxetik kanpo astebeteko oporrak izateko aukerarik.

Izaera oso larriak gabeko arazoei begiratuta, % 40,1ek ez du arropa berririk eta % 38,2k ezin du ospakizun berezirik ospatu. Adingabekoen % 25,3k ez du kalean jolasteko ekipamendurik eta % 19,3k ez du bere adinerako libururik. Etxean jolasteko ekipamendurik gabe bizi da % 12,9, eta adingabekoen % 12,4k ez du leku egokirik etxean eskolako lanak egiteko.

Gutxiengo baten egoera den arren, dezentekoa da gabezia modu larrienen eragina. Familia pobreetan bizi diren adingabeen % 10,7k ez du egunero fruta edo barazkiak jateko aukerarik, bi zapata-parerik gabe (edo urte-sasoi bakoitzerako oinetako-pare banarik gabe) bizi da % 12,8, eta % 17,4k ezin du proteinadun janaririk jan egunero.

- * Aurkeztutako datuek erakusten dute zer-nolako garrantzia duten pobreziaren larritasuna eta ongizate-gabeziako bestelako egoeren eragina arintzen duten politikek. Hala ere, datuek erakusten dute, era berean, asko falta dela gizarte-egoera horiek dakartzaten arazoak erabat desagerrarazteko, baita adingabekoen artean ere.

Bestalde, 1 eta 15 urte bitarteko adingabeko guztiei begiratuta, oinarrizko gabezia-arazoak bizi ditu gazte horien % 10,4k, eta % 3,5ek bizi ditu arazo oso larriak. Azken horien artean, % 2,3k ez du egunero proteinadun janariak jateko aukerarik, eta % 1,5-% 1,6 bitartean dira egunero fruta edo berdurarik jan ezin dutenak eta oinetako egokirik ez dutenak. Larritasun hain handia ez duten oinarrizko arazoei begiratzuz gero, % 5,5ek ez du arropa berria janzteko aukerarik, eta % 5,6k ezin du ospakizun berezirik ospatu.

Arazo horiek baino eragin handiagoa dute bestelako arazo batzuek, oinarrizkoak izan ez arren, nahiko adierazgarriak direnak Euskadiko adingabekoen artean. Adingabekoen % 8,4 eta % 9,5ek bitartean ezin du lagunik gonbidatu jolastera edo jatera, edo ezin du kostu ekonomikoren bat dakarren kanpo-jarduerarik egin. Etxetik kanpo astebeteko oporraldi bat ezin egin izatea da gabezia zabalduena, adingabekoen % 17,1 baitago egoera horretan.



5. Ezkutuko pobrezia 18 eta 44 urte bitarteko biztanleengan

Bere azterketa-lanean, pobrezia eta prekarietatearen gaineko beste arazo bat aztertzen du PGDIk. Zenbait pertsonak, eta, batez ere, gazteek, bizitza independentea egiteko duten zailtasuna da arazo hori, eta baliabide ekonomikoen gabezia izaten da arazo horren sorburua. Maiz askotan, gizartean azalarazten ez diren pobrezia eta ongizate-gabeziako egoerak ezkututzen dira zailtasun horien atzean, pertsona horien jatorriko etxeetan gorderik geratzen baitira. Pobrezia eta prekarietate ezkutuko arazoa da.

* PGDIk, 2016. urtean, 137.840 pertsona hauteman zituen, bizitza independenteak osatzeko asmoarekin. Horietatik guztietatik, 113.623 pertsonak adierazi dute ez dutela urrats hori ematen ez dutelako behar adina diru-sarrerarik. Behar adina baliabide izango balituzte, 41.321 pertsona independizatzeko lirateke, ziurtasun osoz, urtebeteko gehieneko epean, eta kopuru hori 79.041 lagunera igoko litzateke, urtebeteko epe horretan urrats hori ematea pentsatu dutenak barnean hartuko balira. Behar besteko diru-sarrerarik gabeko 34.582 pertsonak pentsatu du egun bizi den etxetik independizatzeko, baina urtebetetik gorako epe batean.

ENC.1 taula

Independizatu gabeko biztanleria, etxe-unitate independente bat osatzeko asmoa duena 2016an (Guztizko datuak eta % bertikalak)

Etxe-unitate independente bat osatzeko asmoa duten pertsonak	Guztizko datuak	% ber.
Diru-sarrera nahikoak ditu	24.217	17,6
Ez du nahikoa diru-sarrerarik	113.623	82,4
Epe ertainean independizatzeko asmoa (> urtebete)	34.582	25,1
Epe laburrean independizatzeko asmoa (< urtebete)	41.321	30,0
Independizatzeko asmoa du, baina eperik zehaztu gabe	37.720	27,4
Guztira	137.840	100,0

Iturria: PGDI 2016

Oharrak: Pertsona interesdunek beraiek balioetsi dute diru-sarrera nahikorik ez dutela.

Independenteak izan daitezkeen familia-taldeak aztertu dira, eta, halakorik bada, bikotekidea hartu da kontuan.

Arazo hori bizi duten pertsona gehien-gehienek 18 eta 44 urte bitartean dituzte. Izan ere, adin-tarte horretan daude independizatzeko baliabide nahikorik gabeko 113.623 pertsonetatik 100.164, hau da, egoera horretan dauden guztien % 88,2. Adin-tarte horretan biltzen dira, gainera, jatorriko bizilekutik lehen aldiz emantzipatzeak dakartzan arazoak. Horregatik du interes berezia adin-tarte hori aztertzeak, eta azterketa hori, batik bat, datu erlatiboen ikuspegitik egiteak.

Independizatzeko behar adina baliabiderik ez dutela adierazi duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen datu historikoei erreparatuta, 2004an iritsi zen egoera horretan dagoen jendearen maximoa, 143.554 pertsonarekin (131.269 pertsona izan ziren 2000.urtean). Urte horretatik aurrera, behera egin zuen pertsonen kopuruak, harik eta 2012an minimoa iritsi zen arte, 95.754 pertsonarekin. Krisi-urteen luzapenarekin, gorantz egin du kopuruak, eta 100.164 pertsonak adierazi dute 2016an egoera horretan daudela. Gorakada txiki bat izan baldin bada ere, 2008an baino pertsona gutxiago direla nabarmendu behar da, 102.773 pertsona baitziren urte horretan egoera horretan.

Egia da egoera horretan dagoen pertsonen kopuruak behera egin duela 2016an, baina kontuan izan behar da eragin handia izan duela egoera horretan 18 eta 44 urte bitarteko biztanleriak 2004az geroztik Euskal Autonomia Erkidegoan izan duen beherazko joerak (873.406 pertsona ziren 2004an, eta 696.454 izan dira 2016an). Adin horretan dauden pertsonen guztizko zenbatekoari begiratuta, independizatzeko behar den adina baliabiderik gabeko pertsonak % 14,4ko datua osatu dute 2016an. Datu hori 2012ko minimotik (% 12,4) gora dago, baina baita 2008ko datutik ere (% 12,9). Eutsi egiten zaio datu erlatiboek mendearen lehen urteetako datuekiko ageri duten hobekuntzari; hala ere, ehunekoa 2004koa baino nabarmen handiagoa izan arren (% 16,4), ez dago 2000. urteotik hain urrun (% 14,9).

Nahikoa baliabiderik gabeko 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen erreparatuta, joera negatiboagoa ageri dute epe motzean independizatzeko asmoa dutenek, pobrezia edo ongizaterik gabeko egoerak biziko baillutzete horietako askok, egun bizi diren etxetik irtengo balira. Egoera horri erreparatuta, 77.857 pertsona izan ziren egoera horretan 2004an, baina 38.563 pertsona 2008an; hala ere, krisiarekin, 51.034 pertsonara igo zen zenbatekoa 2012an, eta 54.686 pertsonara 2016an. Hala ere, urrun dira oraindik 2004ko datua eta 2000. urtekoa (71.297 pertsona izan ziren azken urte horretan).

Are okerragoa da bilakaera, datu erlatiboek begiratu gero. Alde batetik, nabarmen igo da, krisiarekin, egoera horretan dauden 18 eta 44 urte bitartekoen ehunekoa; izan ere, % 4,8 ziren 2008an, % 6,6 izan ziren 2012an eta % 7,9 izan dira 2016. Bestalde, pobrezia eta prekarietate potentzialaren eragina mendearen lehen hasierako datuetara gerturatu da, % 8,1ekoa izan baitzen 2000. urtean. Distantzia handixeagoa da, ehuneko puntu batekoa, 2004an izan zen % 8,9arekiko.

Hala ere, epe motzean independizatzeko asmoa eta baliabide nahikorik ez duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen dinamika ez da hain kaltegarria, baldin eta azterketa-lana emantzipazioaren emaitza pobrezia-egoera bat litzatekeen kasuetara mugatzen baldin badugu. Independizatzearen ondorioz, zenbat pobrezia-egoera sortuko liratekeen aztertuz gero, ikusten dugu 59.128 pertsona zeudela ataka horretan 2000. urtean, eta 21.351 pertsona soilik izan zirela egoera horretan 2008an. Datuak gorakada handi samarra izan zuen 2012an, 37.094 pertsonatara igo baitzen, baina beherazko joera hartu du berriro ere 2016an. Izan ere, aurten, 28.529 pertsona gertatuko lirateke, emantzipatu gero, pobrezia-egoeran.

Datu erlatiboek ere joera oso antzekoa erakusten dute. Datu erlatiboak gainditu egiten du 2008an erakusten zuen % 2,7ko datua, baina % 4,8tik % 4,1era murriztu da 2012 eta 2016 urteen bitartean. Horrez gainera, eragina, 2016an, 2000 eta 2004 urteetako baino nabarmen apalagoa izan da (% 6,6- % 6,7).



Enc.2 taula

Familia independente bat osatzeko asmoa izan, baina baliabide nahikorik ez duten biztanle independizatu gabeen bilakaera 2000-2016

(Datu absolutuak eta erreferentziako biztanleekiko %)

ADIERAZLE ABSOLUTUAK	2000	2004	2008	2012	2016
	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.
Biztanleria, guztira					
Independizatzeko baliabide nahikorik gabeak (IBG)	132.609	145.217	107.300	99.824	113.623
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute	79.619	94.588	72.238	76.727	79.041
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute Pobrezia	60.082	58.017	23.431	38.829	33.850
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute Pobrezia/Ongizate-gabezia	72.252	78.332	41.423	53.003	63.482
44-64 urteko biztanleak:					
Independizatzeko baliabide nahikorik gabeak (18-44)	131.269	143.554	102.773	95.754	100.164
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute (18-44)	78.664	94.113	69.378	73.986	68.975
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute (18-44). Pobrezia	59.128	57.645	21.351	37.094	28.529
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute (18-44). Pobrezia/Ongizate-gabezia	71.297	77.857	38.563	51.034	54.686
18-44 urteko biztanle independizatu gabeak	524.889	436.507	338.787	312.987	328.913
18-44 urteko biztanleak:	883.843	873.406	797.479	775.305	696.454
BIZTANLERIAREN GAINEKO ADIERAZLE ERLATIBOAK	2000	2004	2008	2012	2016
	%	%	%	%	%
Independizatu gabeko 18 eta 44 urte bitartekoen gaineko datu erlatiboak					
Independizatzeko baliabide nahikorik gabeak (18-44)	25,0	32,9	30,3	30,6	30,5
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute (18-44)	15,0	21,6	20,5	23,6	21,0
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute (18-44). Pobrezia	11,3	13,2	6,3	11,9	8,7
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute (18-44). Pobrezia/Ongizate-gabezia	13,6	17,8	11,4	16,3	16,6
18 eta 44 urte bitarteko biztanlearekiko, guztira					
Independizatzeko baliabide nahikorik gabeak (18-44)	14,9	16,4	12,9	12,4	14,4
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute (18-44)	8,9	10,8	8,7	9,5	9,9
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute (18-44). Pobrezia	6,7	6,6	2,7	4,8	4,1
(IBG) Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena dute (18-44). Pobrezia/Ongizate-gabezia	8,1	8,9	4,8	6,6	7,9

Iturria: PGDI 2000-2016

Oharrak: Epe laburrean independizatzeko aurreikuspena duten pertsonak aztertzean, 16 eta 64 urte bitarteko biztanle guztiei begiratu zaie, baldin eta adierazi baldin badute ez dutela independizatzeko behar adina baliabide eta urtebetean bizitza independentea egiteko aurreikuspena baldin badute.

* Hurrengo urtean independizatzeko aurreikuspena izan eta urrats hori pobrezia edo ongizate-gabeziako egoera batean emango luketen 18 eta 44 urte bitarteko biztanleen erreferentzia hartuta, adierazi behar da pertsona horien artean nagusi direla, 2016. urtean, 25 urtetik gorako pertsonak. Alde horretatik, 25 eta 44 urte bitartean ditu aztertutako pertsonen % 79,1ek. Datu erlatiboak begiratuta, 25 eta 34 urte bitarteko pertsonengan du eragin handiena egoera horrek (% 11,5). Ehuneko txikiagoa osatzen dute 18 eta 24 urte bitartekoek (% 8,1) eta 35 eta 44 urte bitartekoek (% 5,3). Hala ere, azken talde horrek erakutsi du joerarik okerrekoa krisiko urteetan, gutxienez 3 ehuneko puntutan gainditzen baititu 2000-2012 epean izandako datuak (% 1,4-% 2,3).

Nabarmendu behar den bigarren alderdia da ikasketa kualifikatuak dituztenak direla, 2016an, independizatzeko arazo handienak dituztenak. Ikasketa kualifikatuak izan eta 18 eta 44 urte bitartean dituzten pertsonen % 8,8 dago egoera horretan. Datu hori lehen mailako ikasketak edo apalagoak dituztenen ehunekoaren oso antzekoa da (% 8,7), eta lanbide-izaerarik gabeko bigarren hezkuntzako ikasketak edo maila ertaineko lanbide-heziketako ikasketak dituztenenak baino handiagoa (% 5,9).

Hirugarren alderdi edo ezaugarri nabarmena da zer-nolako garrantzi handia duten langabeziako eta lan ezegonkorreko egoerek; izan ere, 2016an hautemandako egoeren % 36 eta % 28,7 biltzen dituzte, hurrenez hurren. Pertsona guztien % 26,7 dira lan egonkorra dutenak, eta % 8,6 dira egoera ez-aktiboan daudenak. Agerikoa da langabeziak eta lan ezegonkorrak egoera horretan duten eragin handia. Aztertu diren 18 eta 44 urte bitarteko langabeen % 21,5ek pobrezia edo ongizate-gabeziari aurre egin beharko lioke, baldin eta independizatzen baldin bada. Datua % 10etik gorakoa da lan egonkorra dutenen artean (% 11,2). Eragina % 4,5era jaisten da 18 eta 44 urte bitarteko langile egonkorren kasuan eta % 3,3ra egoera ez-aktiboan dauden artean.

Sexuaren araberako datuek adierazten dute eragina zertxobait handiagoa dela gizonengan (% 8,5 gizonengan eta % 7,2 emakumeengan). Gizonezkoak dira eragindako pertsonen % 56,1.

* Bizkaian bizi dira, 2016. urtean, hurrengo urtean familia independente bat osatzeko aurreikuspena izan eta, hala egitekotan, pobrezia edo ongizate-gabeziari aurre egin beharko lioketen 18 eta 44 urte bitarteko herritarren ia bi heren (% 73). Ehuneko horrek gora egin du 2000 eta 2004 bitarteko datutik (% 56-57) eta 2008 eta 2012 bitarteko datutik (% 67-69). Beste muturrera jota, Araban bizi da aztertutako biztanleen % 4,3 eta Gipuzkoan gainerako % 22,6a.

Banaketa horrek adierazten du eraginaren banaketak aldeak erakusten dituela lurralde historikoetan aztertutako arazoetan. Bizkaian, 18 a 44 urte bitarteko biztanleen % 10,9ean du eragina, Gipuzkoako datuaren ia bikoitza (% 5,5). Arabaren egoera erabat atipikoa da alderdi horretan, hautemandako arazoaren % 2,2 soilik hartzen baititu. Egoera horren eraginak, 2008 eta 2016 urteen bitartean, gorakada etengabea izan du Bizkaian eta Gipuzkoan, baina Araban, arazo horren eraginak murrizketa oso deigarria izan du 2012 eta 2016 urteen bitartean.



Enc.3.a taula

Independizatu gabe bizi den 18 eta 44 urte bitarteko biztanleen bilakaera, aintzat hartuta urtebeteko epean familia independentea osatzeko aurreikuspena duela, eta, urrats hori emanez gero, pobrezia edo ongizate-gabeziari aurre egin beharko liokeela, aldagai hauen arabera: sexua, adina, egoera zibila, ikasketa-maila, jarduera-egoera eta lurralde historikoa. 2000-2016

(Datu absolutuak)

		Azterketaren urtea				
		2000	2004	2008	2012	2016
Ezaugarri sozial eta demografikoak		Abs.	Abs.	Abs.	Abs.	Abs.
Sexua	Gizonezkoak	43.209	48.114	18.455	27.056	30.680
	Emakumeak	28.088	29.743	20.108	23.979	24.006
Adina	< 25 urte	23.972	23.186	12.937	15.708	11.426
	25-34 urte	42.284	49.233	20.381	27.527	25.668
	35-44 urte	5.041	5.438	5.245	7.800	17.592
Egoera zibila	Ezkongabea	69.648	73.826	35.064	49.283	50.727
	Ezkondua	782	3.343	860	324	1.935
	Bestelakoa	867	687	2.639	1.427	2.023
Ikasketa-maila	Lehen mailakoa	15.470	14.223	6.362	5.135	9.466
	BH ez-lanbid/LH	15.227	17.962	10.554	19.184	12.852
	Kualifikatuak	40.601	45.672	21.646	26.716	32.367
Lan-egoera	Landun egonkorra	18.554	23.203	14.582	7.736	14.603
	Landun ez-egonkorra	32.497	29.876	13.497	17.776	15.713
	Langabea	14.245	15.068	4.624	17.277	19.684
	Ez-aktiboa	6.002	9.709	5.860	8.245	4.686
Lurralde historikoa	Araba	4.848	8.854	6.254	8.488	2.375
	Gipuzkoa	26.429	24.764	6.336	7.322	12.368
	Bizkaia	40.020	44.239	25.973	35.225	39.943
Guztira		71.297	77.857	38.563	51.034	54.686

Iturria: PGDI, 2000-2016

Enc.3.b taula

Independizatu gabe bizi den 18 eta 44 urte bitarteko biztanleen bilakaera, aintzat hartuta urtebeteko epean familia independentea osatzeko aurreikuspena duela, eta, urrats hori emanez gero, pobrezia edo ongizate-gabeziari aurre egin beharko liokeela, aldagai hauen arabera: sexua, adina, egoera zibila, ikasketa-maila, jarduera-egoera eta lurralde historikoa. 2000-2016

(% bertikalak)

		Azterketa-urtea				
		2000	2004	2008	2012	2016
Ezaugarri sozial eta demografikoak		% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.
Sexua	Gizonezkoak	60,6	61,8	47,9	53,0	56,1
	Emakumeak	39,4	38,2	52,1	47,0	43,9
Adina	< 25 urte	33,6	29,8	33,5	30,8	20,9
	25-34 urte	59,3	63,2	52,9	53,9	46,9
	35-44 urte	7,1	7,0	13,6	15,3	32,2
Egoera zibila	Ezkongabea	97,7	94,8	90,9	96,6	92,8
	Ezkondua	1,1	4,3	2,2	0,6	3,5
	Bestelakoa	1,2	0,9	6,8	2,8	3,7
Ikasketa-maila	Lehen mailakoa	21,7	18,3	16,5	10,1	17,3
	BH ez-lanbid/LH	21,4	23,1	27,4	37,6	23,5
	Kualifikatuak	56,9	58,7	56,1	52,3	59,2
Lan-egoera	Landun egonkorra	26,0	29,8	37,8	15,2	26,7
	Landun ez-	45,6	38,4	35,0	34,8	28,7
	Langabea	20,0	19,4	12,0	33,9	36,0
	Ez-aktiboa	8,4	12,5	15,2	16,2	8,6
Lurralde historikoa	Araba	6,8	11,4	16,2	16,6	4,3
	Gipuzkoa	37,1	31,8	16,4	14,3	22,6
	Bizkaia	56,1	56,8	67,4	69,0	73,0
Guztira		100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: PGDI, 2000-2016

Enc.3.c taula

Independizatu gabe bizi den 18 eta 44 urte bitarteko biztanleen bilakaera, aintzat hartuta urtebeteko epean familia independentea osatzeko aurreikuspena duela, eta, urrats hori emanez gero, pobrezia edo ongizate-gabeziari aurre egin beharko liokeela, aldagai hauen arabera: sexua, adina, egoera zibila, ikasketa-maila, jarduera-egoera eta lurralde historiko. 2000-2016

(talde bakoitzean dagoen 18 eta 44 urte bitarteko biztanleekiko %)

		Azterketa-urtea				
		2000	2004	2008	2012	2016
Ezaugarri sozial eta demografikoak		%	%	%	%	%
Sexua	Gizonezkoak	9,4	10,8	4,6	7,2	8,5
	Emakumeak	6,6	6,9	5,1	6,0	7,2
Adina	< 25 urte	9,9	11,2	8,4	10,1	8,1
	25-34 urte)	12,5	13,8	7,2	10,0	11,5
	35-44 urte	1,7	1,8	1,4	2,3	5,3
Egoera zibila	Ezkongabea	12,7	13,9	8,1	10,8	11,1
	Ezkondua	0,3	1,1	0,3	0,1	0,9
	Bestelakoa	3,7	2,3	10,9	6,9	7,9
Ikasketa-maila	Lehen mailakoa	6,3	6,5	3,4	4,8	8,7
	BH ez-lanbid/LH	7,2	8,5	5,0	7,4	5,9
	Kualifikatuak	9,5	10,3	5,4	6,5	8,8
Lan-egoera	Landun egonkorra	5,3	6,1	3,4	2,1	4,5
	Landun ez-egonkorrak	14,7	15,4	8,0	11,5	11,2
	Langabea	12,5	16,0	9,3	14,6	21,5
	Ez-aktiboa	3,0	4,8	3,8	5,9	3,3
Lurralde historikoa	Araba	3,8	7,4	5,4	6,9	2,2
	Gipuzkoa	9,3	8,8	2,4	2,9	5,5
	Bizkaia	8,5	9,3	6,1	8,8	10,9
Guztira		8,1	8,9	4,8	6,6	7,9

Iturria: PGDI, 2000-2016

Garrantziko zeregina da aztertzea zergatik dituzten emantzipatzeko zailtasunak urtebeteko epean familia independente bat osatzeko aurreikuspena duten, baina, urrats hori emanez gero, pobrezia edo ongizate-gabeziaren arazoak izango lituzketen 18 eta 44 urte bitarteko pertsonak. Egiaztatu da lan egokirik ez izatea edo lanaren ezegonkortasuna direla, 2016an, egoera horretan dauden pertsonak dituzten zailtasun edo oztopo nagusiak. Lan-arazoak oztopo zailkiola adierazi du aztertu diren pertsonen % 56,1ek. Gutxiago dira oinarriko beharriak asetzeko edo ongizatera iristeko zailtasunak adierazi dituztenak (% 31,7). Eta, azkenik, etxebizitzarik eza izan da % 8,0k adierazi duen arrazoia. Datu horiek aldaketa handia dakarte 2008ko datuekiko; izan ere, urte horretan, % 25,5eko datua osatu zuten lan-arazoek, % 43,2ko ehunekoa oinarriko beharriak asetzeko eta ongizatea iristeko zailtasunek, eta % 23,1ekoa etxebizitzarik ezak.

Etxebizitzak bizitza independentea iristeko arazo moduan zuen pisuak behera egin du 2008 eta 2016 urteen bitartean, baina azaldutako datuek erakusten dutena baino garrantzi handiagoa izaten jarraitzen du arazo horrek. Hori horrela, 2016an aztertutako pertsonen % 84,2k adierazi du etxebizitzarik ez izatea dela emantzipazio-prozesua oztopatzen duen faktoreetako bat. Horrez gainera, aztertutako pertsonen % 96k adierazi du ez duela etxebizitzarik jabetzan edo ez duela etxebizitza bat erosteko aurrezirik pilatu. Aztertutako pertsonen % 57,9k ez dauka inolako aurrezirik.



Handia izaten jarraitzen du bititza independentea egiteko urratsa emateak lekarkeen pobrezia-arriskuak (bestalde, aztertutako kolektibo osoari eragiten dio definizioz, ongizate-gabeziak). Hori horrela, egun dituzten diru-sarrerekin, 18 eta 44 urte bitarteko pertsonen % 52,2k diru-sarreraren pobrezia (mantenukoa) izateko arriskua izango luke, baldin eta egun bizi den familiatik emantzipatzen baldin bada. Oinarrizko beharrianak asetzeko zailtasunak emantzipazio-prozesua zailtzeko faktore dira % 91,1entzat.

Hala ere, aztertutako kolektiboan, pobrezia-arrisku hertsia, pobrezia/ongizate gabezia orokorraren aldean, garai batean baino askoz ere murriztagoa da. Independizatzearen ondoriozko pobrezia-arrisku-tasarik apalena, 2000-2012 denbora-bitartean, % 63,1ekoa izan zen 2008an, hau da, 2016ko datua baino 9 ehuneko puntu handiagoa.

Enc.4 taula

18 eta 44 urte bitarteko biztanleri independizatu gabea, urtebeteko epean familia independente bat osatzeko aurreikuspena duena, eta, urrats hori emanaz gero, pobrezia/ongizate-gabeziako egoeran izango litzatekeena. Bititza independenterako bidea oztopatzen duten arrazoiak eta faktoreak. 2000-2016
(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Arrazoiak eta faktoreak	2000	2004	2008	2012	2016
Ez independizatzeko ematen diren arrazoiak					
Lan egokirik ez izatea	30,1	35,0	31,4	65,7	42,1
Lan-ezegonkortasuna	55,8	48,8	45,0	55,0	68,5
Diru-sarrera nahikorik ez izatea (oinarrizko premietarako)	79,4	67,9	82,5	89,0	91,1
Diru-sarrera nahikorik ez izatea (ongizatea)	62,8	64,7	56,7	74,7	76,2
Etxebizitza ez izatea	92,5	90,3	78,8	85,2	84,2
Etxebizitzaren ekipamendurako baliabiderik ez izatea	78,4	70,9	83,5	84,9	88,5
Ez independizatzeko ematen den arrazoi nagusia					
Lan egokirik ez izatea	21,0	19,0	16,2	45,7	32,0
Lan-ezegonkortasuna	31,7	14,5	9,3	15,3	24,1
Diru-sarrera nahikorik ez izatea (oinarrizko premietarako)	17,0	13,1	40,5	23,0	25,2
Diru-sarrera nahikorik ez izatea (ongizatea)	3,9	6,3	2,7	6,3	6,5
Etxebizitza ez izatea	20,1	38,4	23,1	7,8	8,0
Etxebizitzaren ekipamendurako baliabiderik ez izatea	0,5	1,6	0,0	0,8	0,0
Beste arrazoi batzuk	5,8	7,1	8,2	0,9	4,3
Arrisku nagusiak					
Pobrezia-arriskua	82,9	74,0	63,1	72,7	52,2
Ongizaterik ez izateko arriskua	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Etxebizitza-inbertsiorik ez	93,1	89,4	84,6	92,0	96,0
Aurrezki ez	52,6	62,2	60,9	71,2	57,9

Iturria: PGDI, 2000-2016



6. Euskadiren kokapena Europan

Europa hegoaldean krisiak 2008 eta 2014 urteen bitartean izan zuen eragin diferentzialak nabarmen okertu zuen Euskadiren kokapen-egoera, Europak pobrezia-aren eta prekaritatearen alorretan darabiltzan adierazleak aintzat hartuz gero. Suspertzearekin, egoerak negatiboa izaten jarraitzen du 2016an, baina garai batean izandako kokapena berreskuratzeko aurrerapen-ildoak hauteman dira.

- * Aurrerapen horren adierazpen nabariena da EAEko pobrezia-tasa erlatiboa (medianaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituztenen ehunekoa) berriro kokatu dela EBko herrialde guztiei dagokien mailaren azpitik (% 16,4ko datua izan du, % 17,3koa da 28 herrialdeko EBn eta % 17koa 15 herrialdeko EBn). EAEko tasak, 2014an, ia bi puntutan gainditu zuen 28 herrialdeko EBren datua (% 18,5eko datua EAEn, % 16,7koa 28ko EBn, eta % 16,5koa 15 herrialdeko EBn). Datu horiek ez dira modu hertsian konparatzeko modukoak, bestelakoak baitituzte erreferentziatzko atalaseak¹⁷. Hala ere, 2016an, EAEk berriro berreskuratu du 2014ra arte Europako datuekiko erakusten zuen kokapen hobia.
- * Hala ere, Europan alderdi sozialean aurreratuen diren herrialdeekiko distantzia agerikoa da oraindik 2016. urtean. Konparazioa egiteko erreferentzia moduan hartzen baldin badira estatu bakoitzaren atalaseak, eta EAEko eroste-ahalmenarekiko paretasunaren arabera (atalase baliokideak EAPn) doitzen baldin badira, 2016. urtean medianaren % 60tik behera izan diren pertsonen proportzioa % 30etik gora handiagoa izan da EAEn, beste herrialde hauetako datuekin alderatuta: Benelux (Belgika, Herbehereak eta Luxemburg), Eskandinaviako herrialdeak (Danimarka, Suedia eta Finlandia), Austria eta Frantzia. Era berean, Alemaniako datua baino % 24,6 handiagoa da.

Hala ere, 2014 eta 2016 urteen bitartean, pobrezia-aren datu erlatiboak nabarmen egin du hobera EAEn; bereziki, Finlandiarekiko, Herbehereekiko eta Alemaniarekiko. Eta hobekuntza nabarmena da, era berean, beste herrialde batzuekiko, hala nola Erresuma Batuekiko eta Irlandarekiko. Pobrezia-aren tasa erlatiboak ia berdindu egin ziren 2014an, eta EAEn egoera alderatu positiboagoa indartu egin da 2016an, batik bat, Irlandarekiko.

- * Adierazi behar da, alderdi sozialean aurrerapen handiena duten herrialdeekiko distantzia hori, 2014 eta 2016 urteen bitartean, handitu egin dela, oro har, pobrezia larriko arriskuaren adierazleetan (medianaren % 40tik beherako diru-sarrerak dituztenen ehunekoa). Adierazi behar da, kasu honetan, EAPn tasa baliokideen % 45etik gora gainditzen dutela alderdi sozialean aurreratuen dauden Europako herrialdeenak, Alemania barne. Horren arrazoia da adierazitako herrialdeetan tasak bilakaera, oro har, positiboa izan duela, eta, EAEn, pobrezia larriaren adierazlea % 4,9aren inguruan egonkortu dela 2014 eta 2016 urteen bitartean.

¹⁷ Eurostat erakundeak ez du ematen Europar Batasuneko tasak lortzeko erabiltzen diren atalaseen gaineko informaziorik; beraz, ezin da jakin zer tasa legokiokeen EAEn atalase horiek erabiliz gero.

Taula Europa.1.

Pobreziaren, prekaritatearen eta desberdintasunaren adierazle konparatuak. EAE eta Europar Batasuneko estatu adierazgarrienak. 2015/2016

	Sarrerren medianatik beherako % EAEko tasa konparatzeko oinarri den lurraldearen atalasearekin		Sarrerren medianatik beherako % Lurralde bakoitzeko tasak		AROPE adierazlea %a	2 egunik behin proteinadun jatordurik ez dutenen %a	Ez ordaintzeen edo atzeratutako ordainketen %a	Tenperatura egokia mantentzeko arazoak %a	Arazo ekonomikoen -gatik oporrik gabe daudenen %a	Aparteko gasturik ordaindu ezin dutenen %a	GINI koef.	S80/S20 indizea	Pobreenen % 10aren guztirako sarrerren %a
	40%	60%	40%	60%									
C.A.Euskadi	4,9	16,4	4,9	16,4	20,6	3,4	6,3	8,9	19,0	18,2	25,8	3,9	3,5
EB-28			6,3	17,3	23,7	8,5	11,5	9,4	34,3	37,3	31,0	5,2	2,8
EB-15			6,0	17,0	23,3	6,9	12,0	8,4	33,7	36,2	30,9	5,2	2,8
Luxemburg	13,6	36,1	3,9	15,3	18,5	2,2	5,2	0,9	13,1	23,0	28,5	4,3	3,5
Frantzia	7,5	21,3	2,8	13,6	17,7	7,3	8,9	5,5	24,0	32,8	29,2	4,3	3,7
Austria	8,1	22,9	3,8	13,9	18,3	6,8	6,4	2,6	17,5	22,6	27,2	4,0	3,5
Finlandia	6,5	18,4	2,3	12,4	16,8	2,9	10,3	1,7	13,3	28,4	25,2	3,6	4,1
Belgika	7,1	19,5	3,4	14,9	21,1	5,1	6,9	5,2	26,4	25,7	26,2	3,8	3,7
Suedia	7,6	21,4	4,1	14,5	16,0	1,3	4,7	0,9	6,9	15,8	25,2	3,8	3,5
Danimarka	7,5	21,3	4,3	12,2	17,7	1,7	6,3	3,6	16,3	26,5	27,4	4,1	3,2
Herbeherak	5,9	17,5	3,0	11,6	16,4	2,2	5,6	2,8	16,6	22,7	26,7	3,8	3,8
Alemania	7,4	20,8	5,0	16,7	20,0	7,1	5,2	4,1	19,7	30,4	30,1	4,8	2,9
Brit.Handia	4,5	15,4	4,8	16,7	23,5	6,5	10,2	7,8	28,9	38,4	32,4	5,2	2,8
Eslovenia	2,6	10,2	3,9	14,3	19,2	6,4	19,2	5,6	28,2	42,9	24,5	3,6	3,8
Txekiar Err.	1,3	5,5	2,6	9,7	14,0	11,4	4,5	5,0	32,4	36,0	25,0	3,5	4,1
Zipre	2,5	10,0	3,9	16,2	28,9	3,9	31,6	28,3	53,5	60,5	33,6	5,2	3,3
Irlanda	2,6	10,6	4,1	15,6	27,6	3,5	19,4	8,9	47,9	54,5	30,8	4,8	3,1
Hungaria	0,5	1,4	4,5	14,9	28,2	23,8	21,7	9,6	55,3	72,2	28,2	4,3	3,3
Eslovakia	1,0	3,3	5,7	12,3	18,4	20,1	7,5	5,8	46,6	36,7	23,7	3,5	3,3
Polonia	1,1	3,6	6,3	17,6	23,4	8,2	11,0	7,5	44,0	42,3	30,6	4,9	3,0
Italia	2,6	10,7	9,0	19,9	28,7	11,8	14,9	17,0	47,3	39,9	32,4	5,8	2,1
Portugal	0,9	2,6	8,5	19,5	26,6	3,5	10,2	23,8	51,3	40,7	34,0	6,0	2,5
Espainia	2,0	8,4	11,2	22,1	28,6	2,6	11,4	10,6	41,5	39,7	34,6	6,9	1,7
Grezia	0,5	1,6	10,1	21,4	35,7	12,9	49,3	29,2	53,7	53,4	34,2	6,5	1,9

Iturria: GZE-GPI 2016 eta Eurostat

Europako datuak 2013koak dira; salbuespen dira, hala ere, Irlandako 2012ko datuak eta EAEko 2014ko datuak. Herrialdeak ordenatzeko kontuan izan da EAerekin alderatuta pobrezia larrienak duen eragin txikiena edo handiena.

Konparatzeko oinarri den lurraldearen atalaseak kontuan hartzen dituzten pobrezia eta prekaritate tasak ateratzeko, EAeri atalase horiek aplikatu zaizkio, erosteko ahalmenaren parekotasunean doituta.



EAEn, pobrezia larriaren arriskuko adierazle doituak, 2016. urtean, Alemaniakoa baino 2,4 puntu gorago dago, Belgika, Herbehereak, Danimarka eta Suediakoa baino 2,9 eta 3,7 puntu bitartean gorago, eta Frantzia, Luxemburg, Austria eta Finlandiakoa baino 4 puntu gorago.

Egia da adierazlea egonkortu egin dela 2014 eta 2016 urteen bitartean, eta herrialde aurreratuekiko distantzia handitu dela, baina pobrezia larriaren tasa, EAEn, 28 herrialdeko EBren eta garai bateko 15 herrialdeko EBren tasen azpitik jarraitzen du 2016an (% 4,9 da EAEkoa eta, beste baina, % 6,3koa eta % 6koa, hurrenez hurren). EAEn aldeko diferentziala handiagotu egiten da, gainera, aintzat hartuta datua % 4,9koa zela 2014an, eta gertuago zituela 28 herrialdeko EBren % 5,7a eta 15 herrialdeko EBren % 5,5a. Horrek adierazten du pobrezia larriaren adierazleak, 2014tik aurrera, hobertantz egin duela herrialde aurreratuenetan, egonkortu egin dela EAEn, baina nabarmen okertu dela Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan.

- * Europaren egoera orokorrari begiratuta, eta pobrezia arriskuaren gaineko Eurostat adierazleek diotena aintzat hartuta, ikusten da desberdintasunak EAEn duen eragina, 2008az geroztik okerrera egin duen arren, EBko datu orokorren azpitik jarraitzen duela. Egoera hori areagotu egin da 2014 eta 2016 urteen bitartean, bilakaerak oso bestelako bideak hartu baititu EAEn eta Europan. Desberdintasunak murriztera egin du lehenean, eta zertxobait handitu da bigarrenean. Horren ondorioa da Gini koefizienteak bilakaera hau izan duela: EBk 2014an zuen ehunetik 3,5 puntu behera zegoen EAEn (27,1 Erkidegoan, 30,5 EB-28 eta 30,4 en la UE-15), eta 5 puntutik gora dago 2016an (25,8 izan da Erkidegoan, 31 izan da 28ko EBn, eta 30,9, azkenik, 15eko EBn).
- * Azaldu diren adierazle guztietan, EAEk handitu egin du Europa hegoaldeko herrialdeekiko duen alderatze-egoera positiboa, pobrezia larriaren arriskua eta datu erlatiboak apalagoak baitira EAEn. Pobrezia larriari eta Espainiako atalase-datuei begiratuta, ikusten da EAEk % 2ko tasa duela, eta tasa hori % 11,2koa dela estatu osoan. Ildo horri berari jarraituta, eta EAPren pareko baliokideari begiratuta, EAEko datua baino hiru aldiz gorago ageri da Italiakoa (% 9koa da hura, eta % 2,6koa EAEkoa). Alde edo diferentzia horiek berak ikusten dira ongizate-gabeziaren adierazleetan (estatu espainiarreko 2016ko atalaseari erreparatuta, EAEn diru-sarreraren medianaren % 60tik behera daude pertsonen % 8,4, eta Espainian, berriz, % 22,1 dira egoera horretan; bestalde, Italiako EAP baliokideei begiratuta, % 19,9 dira egoera horretan daudenak herrialde horretan, eta % 10,7 EAEn).

Alde edo diferentzia horiek adierazten dute desberdintasunek herrialde horietan baino eragin askoz ere txikiagoa dutela EAEn. Hori horrela, % 20 aberatsenak, Euskal Autonomia Erkidegoan, % 20 pobreenak baino 3,9 aldiz handiagoko diru-sarrerak ditu. Aldea, Italian, 5,8koa da, eta Espainian, berriz, 6,9koa. EAEn, biztanleriaren % 10 pobreenaren diru-sarrerak sarrera guztien % 3,5 osatzen dute; datu hori % 2,1koa da Italian eta % 1,7koa Espainian.

- * Adierazi behar da, azkenik, arrisku-adierazle orokorretan ikusten direla alde nabarmenenak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Europako herrialde aurreratuenen artean. EAEn irudi askoz ere positiboagoa ematen dute zuzenean pobrezia larriaren bizipenarekin lotzen diren adierazleek, hala nola elikadurarekin lotutako arazoaren eraginena, ordaindu gabekoena eta ordainketa atzeratuena. Adierazle horietan, Luxemburg, Herbehereak eta Suedia soilik daude EAE baino egoera beti hobean. Euskal Autonomia Erkidegoko datuak nabarmen urruntzen dira Europako batez bestekoetatik, honako adierazle hauetan: bi egunez behin proteina-janaririk ez dutenak % 3,4 dira EAEn, % 8,5 dira 28 herrialdeko EBn, eta % 6,9 dira 15 herrialdeko EB izandakoan; ordainketa atzeratuak edo egin gabeko ordainketak dituztenak % 6,2 dira EAEn, % 11,5 dira 28 herrialdeko EBn, eta % 12 dira 15 herrialdeko EBn.

Aparteko gastuei aurre egiteko gutxieneko aurrezkiak dira EAEk konparazioan duen egoera edo kokapen onaren beste ataletako bat. Gastu horiei aurre egiteko baliabiderik ez duten familien datua % 18,2koa da EAEn, % 37,3koa 28 herrialdeko EBn eta % 36,2koa 15 herrialdeko EBn. Suedia da, % 15,8ko datuarekin, adierazle horretan EAEn azpitik dagoen herrialde bakarra.



ERANSKINA: Adierazleen eta definizioen glosarioa

Eranskin honetan, labur-labur daude bilduta txostenean garatutako edota kontuan hartutako adierazleei dagozkien alderdi nagusiak, lotutako definizio nagusiak aintzat hartuta¹⁸.

1. Pobrezia eta prekarietatea mantenuari edo diru-sarrerei dagokienez

Egoera ekonomiko txarra zenbait modutan nabarmentzen da. Zenbait etxekoen unitatetan, eskura duten errenta-maila edota diru-sarrera maila nahikoa ez izanik, nahiko zaila gertatzen da ohiko gastu-mailak mantentzea eta premiei aurre egitea. Hain zuzen ere, arestian aipatu dugun mantentze-estutasun hori etxekoen unitate horietan jasaten duten arazoekin lotuta dago.

Herritarrek eskura dituzten diru-sarrerak edo errentak ez dira etxekoen unitateen baliabide ekonomiko bakarrak (kontuan hartzekoa da beharrezkoa izanez gero, ondasun-baliabideetara edo kreditura, edo kanpoko beste edozein laguntzatarara jotzeko aukera ere badagoela). Horrenbestez, mantentze-problematikek zerikusit handiagoa dute estutasun-egoera potentzialekin premiei aurre egiteko benetako egoerekin baino. Azken buruan, mantentze-arazoak arrisku-egoerak direla esan dezakegu.

Funtsean, PGDI honetan aintzat hartu diren mantentze-arazoak bi multzo hauetan banatzen dira:

- a) Pobrezian erortzeko arrisku-egoerak. Zenbait etxekoen unitatetan eskura dituzten diru-sarrerak urriak izan daitezke premiarik funtsezkoenen gastuei aurre egiteko –elikadura, etxebizitza, jantzi eta oinetako gastu ohikoekin zerikusia dutenak, bereziki–.
- b) Ongizate-gabeziaren arrisku-egoerak. Kasu honetan gauza ez da oinarrizko premiei aurre egitera mugatzen. Ongizate-gabeziaren arrisku-egoeran dauden pertsonak bestelako arazoa dute; hain zuzen, beren diru-sarrerak urriak izan daitezke gizarte jakin batek ezarritako gutxieneko ongizate- eta erosotasun-mailak mantentzeko beharrezko ohiko gastuei aurre egiteko (kasu honetan, euskal gizarteak jarritakoei aurre egiteko).

Mantenu-pobrezia eta ongizate-gabeko egoerak neurtzeko era asko dago; horri buruzko metodologia bakar bat ez dago, beraz. Txosten honetan azaltzen diren datu nagusiak, funtsean, Eusko Jaurlaritzak erabilitako metodologiaren arabera zenbatu dira, 1986an garatutako azterketatik abiatuta (PGDI metodoa). Dena dela, mantenu-pobreziaren azterketara hurbiltzeko beste metodo batzuk –bereziki, Europar Batasunak eta Eurostatek, eta Leydenen eskolak garatutakoak– aplikatuz lortu den informazioa ere eskaintzen da.

¹⁸ Eranskin honetan garatzen ez diren beste definizio batzuk kontsultatu nahi izanez gero, jo Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak argitaratutako *1984-2008. 25 urtez pobretasuna ikertzen Euskadin* dokumentura.

1.1. Definizioak

Mantenu-pobreziaren aurrean etxekoen unitateen posizioa aztertzeko garaian, PGDIan hiru egoera bereizten dira: pobrezia-egoera; ongizate-gabezia egoera, baina ez pobreziarena; eta azkenik, ongizate-egoera.

a) Mantenu-pobrezia

Mantenu-pobrezia baliabide ekonomikoen eskasia-egoerarekin loturik dago; hain zuzen ere, oinarrizko premiak (bereziki elikaduraren, etxebizitzaren, jantzien eta oinetakoen gastuekin loturikoak) era erregularrean betetzeko adina baliabide ez izatearekin. Pobrezia-arriskuan daude honako hauek: aintzat hartutako erreferentzian, oinarrizko premiei aurre egiteko ezarritako atalaseen azpiko diru-sarrerak dituzten pertsona, familia edo etxekoen unitateak.

b) Ongizaterik eza, mantenuari dagokionez

Mantenuari dagokionez, ongizate-gabeziarekin loturiko arazoak baliabide ekonomikoen eskasia-egoera adierazten du, epe motzera, gizarte jakin batek ezarritako gutxienerako ongizate- eta erosotasun-mailak mantentzeko beharrezko ohiko gastuei aurre egiteko. Praktikan, gizarte jakin horren bizimodu, ohitura eta jarduera arruntetan parte hartzea ahalbidetzen dute, gutxienerako baldintzetan bada ere. Ongizate-gabezia arriskuan daude honako hauek: aintzat hartutako erreferentzian, bizi diren gizartean gutxienerakotzat hartutako ongizate-maila lortzeko ezarritako atalaseen azpiko diru-sarrerak dituzten pertsona, familia edo etxekoen unitateak.

c) Ongizatea, mantenuari dagokionez

Egoera horretan daude, mantenuari dagokionez, ongizate-gabeziaren edo pobreziaren arazorik ez duten pertsona, familia edo etxekoen unitateak. Epe motzera, ez dute baliabide-eskasiaren egoerarik izaten oinarrizko premiak betetzeko, ezta ezarritako ongizate-egoerara iristeko beharrezko gutxienerako gastuei aurre egiteko ere.



1.2. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak

PGDIk Leydenen erregresio-eredua aplikatzen du bi atalase osagarri lortzeko: pobreziarena, zentzu hertsian, eta ongizate-gabeziarena. Atalase bakoitza zehazteko ekuazioa hauxe da:

$$Y^*_{\min} = \hat{a}_0 + \hat{a}_1 fs + \hat{a}_2 g$$

Osagaiak ondorengoak izanik:

Y^*_{\min} : pobreziaren edo ongizate-gabeziaren atalasea, kasuaren arabera

fs : Familiaren neurria

g : Familietako ohiko gastua

Gerturatzeko honetan, y_{\min} aldagaiak (horretatik eratortzen da y^*_{\min} aldagaia) honako galderekin elkarrizketatutako etxeek emandako erantzunei dagozkien eremu-lanetatik lortutako emaitzak ditu abiapuntu:

* *Zuen etxeen unitatearen egungo egoeran, zein da, egiaz, hilaren amaierara iristeko beharrezko gutxieneko diru-sarrera? (ongizaterik ezaren atalasea kalkulatzeko) eta;*

* *Zuen etxeen unitatearen egungo egoeran, zein da, egiaz, oinarritzko premiak betetzeko beharrezko gutxieneko diru-sarrera? Janaria, arropa eta zapatak; eta benetan oinarritzkoak diren gainontzeko gauzak (pobrezia-atalasea kalkulatzeko).*

Gastuaren g aldagaia, honako galdera honi etxeen unitateek emandako erantzunetatik abiatuta lortzen da: *Batez beste, zenbatekoak dira familia honen hileko gastuak?*

PGDIren metodoak pobrezia gainditzeko edo, norberaren bizi-zikloaren unearen arabera, ongizate-maila nahikora iristeko beharrian-atalase desberdinetara jotzen du. Ondorio praktikoetarako, bizi-zikloa etxeen unitateko erreferentziatzko pertsonaren adinean oinarrituta neurtzen da. Hiru etxeen unitate mota hartzen dira aintzat, etxeen unitateko erreferentziatzko pertsonaren adinaren arabera: 45 urtetik beherakoak, 45-64 urtekoak eta 65 urtetik gorakoak. Aipatu behar da, 2012tik nolabaiteko konbergentzia nabaritu dela adineko atalaseetan.

Metodoaren aplikaziotik honako atalase hauek deribatzen dira 2016an:

Mantenu-pobreziaren eta ongizate-gabeziaren atalaseak, PGDI metodoaren arabera. 2016
(Datuak euroetan)

Etxekoen unitatearen tamaina	< 45 urte		45-64 urte		> 65 urte	
	Pobrezia	Absentzia Ongizatea	Pobrezia	Absentzia Ongizatea	Pobrezia	Absentzia Ongizatea
Lagun 1	850,21	1.210,38	777,82	1.138,43	666,16	944,94
2 lagun	1.080,99	1.526,01	1.023,96	1.504,90	861,98	1.243,88
3 lagun	1.244,03	1.747,54	1.202,63	1.771,76	1.002,22	1.460,86
4 lagun	1.374,41	1.923,96	1.348,01	1.989,33	1.115,35	1.637,40

Iturria: GZE-BSI, 2016.

1.3. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen Eurostat adierazleak

PGDIan Eurostaten honako adierazle hauek erabiltzen dira, mantenu-pobrezia eta -prekarietatea neurtzeko:

a) *Pobrezia larriaren adierazlea:*

Eskuragarri dauden diru-sarrera garbien batez bestekoaren % 40 baino gutxiago duten pertsonak edota etxekoen unitateak, *per capita* errentaren baliokide

b) *Diru-sarrera apalen edota pobrezia-erlatiboaren adierazlea:*

Eskuragarri dauden diru-sarrera garbien batez bestekoaren % 60 baino gutxiago duten pertsonak edota etxekoen unitateak, *per capita* errentaren baliokide

Metodoak honako baliokidetasun-eskala baliatzen du (ELGA eskala zuzendua):

- Lehenengo heldua: 1,0
- Heldu osagarri bakoitza: 0,5
- 14 urtez azpiko seme-alaba bakoitza: 0,3

Hauk dira gerturatze honi dagozkion atalase espezifikoak:

Diru-sarrera txikien eta pobrezia larriaren atalaseak, Eurostat metodoaren arabera. 2016
(Datuak eurotan)

Etxekoen unitatearen tamaina	Pobretasun larria	Pobrezia erlatiboa Diru-sarrera txikiak
Lagun 1	572,00	858,00
2 lagun	858,00	1.287,00
3 lagun	1.029,60	1.544,40
4 lagun	1.201,20	1.801,80

Iturria: GZE-BSI, 2016.

0,5 eskala bigarren pertsonarentzat eta 0,3 gainerako pertsonentzat.



PGDIk, era berean, pobrezia- eta bazterketa-tasei dagokien informazioa ere biltzen du (ARPE). Tasa horien esanahiaren xehetasun metodologien berri izateko, ikus Eustaten orri hau:

http://www.eustat.es/documentos/datos/PI_metod/INDES_europa2020_80_e.asp#axzz3AUyl4xde

1.4. Pobrezia- eta prekaritate-adierazleak tratatzeko erabilitako indizeak

Bai PGDI metodoan, bai Eurostaten, pobrezia- eta prekaritate-adierazleak hainbat indize estatistiko kontuan hartuta zehatz daitezke. Hauek dira nagusiak:

a) H indizea, edota pobrezia- edota ongizate-gabeziaren tasa orokorra

PGDI txostenetan eta tauletan baliatu ohi den adierazleak pobrezia-arriskuaren edota ongizate-gabeziaren tasari egiten dio erreferentzia. Honela zehazten da:

$$H = q / n$$

Osagaiak ondokoak izanik:

q : kontuan hartutako egoerak eragindako populazioa.

n : populazio osoa.

b) Foster, Greer eta Thorbecke (FGT) indizeak

Indizeok honako formula dute oinarri:

$$FGT_{\alpha} = (1/n) \sum_{i=1}^q (g_i / z)^{\alpha-1}$$

Hala definitzen dira, α -ri esleitutako balioetatik abiatuta, FGT(1), FGT(2), FGT(3) eta FGT(4). FGT(1) H pobrezia-tasaren berbera da.

Gainerako FGT adierazleei dagokienez, txostenean FGT(2) indizea baliatzen da, HI indizearen baliokidea

$$HI \text{ indizea} = H * I$$

Osagaiak ondokoak izanik:

H: pobrezia-tasa (edo ongizate-gabeziarena).

I: Sen indizea.

PGDIan, HI edo FGT(2) indizea erabilgarritasun handiko indizetat hartzen da mantenu-pobrezia eta -prekarietate egoeren segimendua egiteko. Indize horrek, hain justu, pobrezia neurtzeko kontuan hartu beharreko elementuak hartzen ditu aintzat: intentsitatea, distantzia eta barne-desberdintasuna. Gainera, interpretazio soziala erraza da transmititzen; izan ere, indizea pobrezia edota ongizate-gabeziaren tasa teoriko baten baliokide da, non eragindako guztiak erabateko bitarteko-gabezia kasuan leudekeen, hau da, batere diru-sarrerarik gabe.

c) Sen I indizea (income gap ratio):

$$I = (g / qz)$$

Osagaiak ondokoak izanik:

$$g: \sum_{i=1}^q g_i = z - y$$

g_i honako hauen baliokidea da: ezarritako pobrezia edota ongizate-gabeziaren arteko lerroaren (z eta etxeko diru-sarreraren (y) arteko distantzia.

g osagaiak, berriz, diferentzia hauen arteko batura biltzen du, analisisian kontuan hartutako egoera bizi duten populaziorako.

q: kontuan hartutako egoerak eragindako populazioa.

z: batez besteko pobrezia-lerroa (edo ongizate-gabeziarena).

Adierazle horrek adierazten du prekarietate-egoeran dauden etxekoen unitate edo pertsona multzoak metatutako distantzia, kontuan hartzen diren pobrezia eta ongizate-gabezi atalaseekiko. Ehunekotan neurtzen da.

1.5. Erabilitako sarrera kontzeptua

Mantenu-pobrezia eta -prekarietatea kalkulatzeko eta neurtzeko, honako honi egiten dio erreferentzia etxekoen unitateen sarreraren edo errenta erabilgarriaren kontzeptuak, PGDIk erabilitakoak: lau iturritatik datozen diru-sarrera **garbien** baturari, hilabeteka kalkulatuta. Hona hemen iturriok:



- a) Diru-sarrera propioak, lanetik eta kapitalaren etekinetatik etorritakoak.

Lanetik eta kapital propioa ustiatzetik etorritako mota guztietako diru-sarrera gordinak sartzen dira, Ogasunaren ordainketei edo itzulketei lotutako doikuntzak barne.

- b) Gizarte Segurantzaren prestazioetatik etorritako diru-sarrerak eta antzekoak.

Honako hauek sartzen dira: erretiroagatiko, alarguntzagatiko, zurtasunagatiko, familiarteko mesedeagatiko edo baliogabetasunagatiko Gizarte Segurantzaren prestazioak, ordaindutakoaren araberakoa edo ordaindutakoaren araberakoa ez dena; erretiroa aurrez hartzeagatiko prestazioak; langabeziagatiko prestazioak edo subsidioak, lanbide heziketari, enplegu-sustapenari, mugikortasuneko subsidioei eta berrinstalazioari lotutakoak barne; eta familia zaintzeagatiko (jaiotza, amatasuna, haur edo helduen zaintza) eta norberaren kargura dauden seme-alabak zaintzeko aldizkako prestazioak.

- c) Gizarte-laguntzatik etorritako diru-sarrerak eta beste gizarte-laguntza batzuk.

Honako hauek sartzen dira: Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentatik, Etxebizitzarako Prestazio Osagarritik eta Gizarte Larrialdiko Laguntzatik datozen diru-sarrerak; Emantzipazioko Oinarrizko Errenta (oraindik indarrean dagoen partean); jaiotzagatiko edo adopzioagatiko ordainketa bakarreko prestazioak; ikasketa-beken, adingabeentzako laguntzaren eta bestelako laguntza asistentzial publikoen (udalek, aldundiek eta abar emandakoak) ondoriozko diru-sarrerak.

- d) Gizarte zibilaren laguntza osagarrietatik etorritako diru-sarrerak.

Honako hauek sartzen dira: senideek, lagunek edo bizilagunek zuzenean emandako laguntzetatik etorritako diru-sarrerak, bai eta laguntza-erakunde partikular edo pribatuak (Cáritas, Gurutze Gorria eta tankerakoak) emandakoetatik etorritakoak ere.

Kontaketa egiteko, etxeoen unitatea (edo etxeoen unitatearekin pareka daitekeen etxeoen unitatea) hartzen da aintzat, oro har. Horrekin loturik, hertsiki pertsonalak diren sarreretan oinarritutako berariazko adierazleak eskaintzen direnetan izan ezik, honako prozedura hau jarraitzen du PGDIk banakako adierazleei dagokienez: pertsona bakoitzari etxeoen unitateko kide guztiei dagokien errentaren zati proportzionala ematen dio. Pertsona bakoitza pobrezia edo prekarietateren arriskupean nola, hala egongo da etxeoen unitatea bere osotasunean.

1.6 Gabetze-adierazleak

Elikadura egokia izatekoa arazoak

a) USDAREN (FSS) ADIERAZLEAK

2000. urtean, «Short Form of the 12-month Food Security Scale» (FSS) eskala erabiltzen hasi ziren, eta hori aplikatzearen ondorio dira adierazleak. Estatistika-metodo hori Ameriketako Estatu Batuetan diseinatu zuten komunitate jakin baten elikadura-arazoak neurtzeko eta Estatu Batuetako Nekazaritza Sailak (USDA) puntualki erabiltzen du herrialde horretan. Metodoa, sinplifikatutako bertsioan, sei galderaz osatuta dago, eta helburua hiru biztanle-kategoria handi mugatzea da, elikadura-premien estalduran izandako segurtasun-posizioaren arabera. Hona hemen kategoriak:

- * Elikadura-premien estalduran segurtasuna duten etzekoen unitateak.
- * Segurtasunik gabeko etzekoen unitateak, baina elikadura-premien sarbideari dagokionez muturreko estaldura-gabeziako egoera bat (elikadura-arazo larriak) islatzen duten elkarturiko adierazlerik gabeak.
- * Segurtasunik gabeko etzekoen unitateak, elikadura-premien sarbideari dagokionez muturreko estaldura-gabeziako egoera bat (elikadura-arazo larriak) islatzen duten elkarturiko adierazleekin. Errealitate hori gose-egoeren edo gertuko egoeren pertzepzioarekin lotzen da (elikadura-arazo oso larriak).

Azken bi kategoriek elikadurari lotutako segurtasunik ezeko arazoak dituzten etxeen (etxeko pertsonen) osotasuna definitzen dute.

Kategoriak definitzeko, inkesta egin aurreko urteko egoera hartzen da aintzat.

FSS galdetegia aplikatzeko, gosearen pertzepzioari zuzenean lotutako galdera bat aurreikusten da: *Gose izanik, geratu zarete jan gabe behar adina janari lortu ez izanagatik?*



b) EU-SILCen adierazlea

2004ko eragiketaz geroztik, elikadura-segurtasunik ezaren arazoetara hurbildu gara; horretarako, Europako EU-SILCen sartutako elikadura-adierazle nagusia hartu dugu aintzat. Adierazleak bi egunez behingo funtsezko otordu bat ordaindu ezin duen populazioaren proportzioa jasotzen du (janari proteinaduna: haragia, arraina, edo baliokidea, barazkijaleen kasuan).

PGDIn, adierazle hori lortzeko, honako galdera hau hartu da oinarri:

Ba al duzu bi egunean behin haragia, oilaskoa edo arraina duen otordu bat egiteko adina diru (edo baliokidea, barazkijale izanez gero)?

Inkesta egiteko unea erabiltzen da erreferentzia bezala adierazle horri buruzko informazioa gehitzeko. Beraz, gaurko egoera islatzen du, ez azken urtean zehar izandako esperientzia

Zorpetze-arriskua

Zorpetze-arriskua ageri den egoeretan, honako baldintza hauek betetzen dira:

- * Etxekoen unitateko hileko gastuak diru-sarrerak baino handiagoak dira.
- * Ez dago hurrengo hileko ohiko gastuei aurre egiteko aurrezkirik, edo aurrezkiak ez dira nahikoa.

2. Metatze-pobrezia eta -prekarietatea (bizi-baldintzak eta erreserbako ondarea).

Estutasun ekonomikoak metatzea diogunean, gure gizartearen ohiko estandarretatik beherago dauden bizi-baldintzak aipatzen ari gara. Bizi-baldintza horiek oinarritzko ondasunak eskuratzeko ahalmenarekin dute zerikusia; ondasun horiek zehazten dute etxekoen unitateen epe luzeko esparrua zer-nola mamitzen den. Horren haritik, metatze-prekarietateak etxekoen unitateen kontsumo iraunkorreko ondasunak eta zerbitzuak —epe luzera bizitza-maila egokia mantentzeko beharrezkoak— eskuratzeko ezintasunarekin du zerikusia.

Metatze-prekarietatea honekin ere lotzen da: etxekoen unitateek, diru-sarrerako egoeraren arabera krisialdietan, bizi ekonomiko normalizatuari eusteko aurre egiteko beharrezko gutxieneko ondare-baliabideak metatzeko dituzten zailtasunak.

Egoera honetan, metatze-pobrezia horrek ezaugarri hauek dauzka: batetik, erreserba-ondare ia baliogabea, eta, bestetik, bereziki, bizitza baldintzen gabezi larriak ohiko etxebizitzaren ezaugarriekin zerikusia duen guztiarekin (bizigarritasuna, instalazioak eta ekipamenduen maila). Ongizate-gabezi egoerak lotzen zaie epe luzeko kontsumoko ondasun eta zerbitzuak —horiek bermatzen dute, epe luzera, gizarteak espero dituen ongizateko bizi-egoerak— lortzeko zailtasunei.

Metatze-pobrezia eta prekarietatearen egoeretara hurbiltzeko, etxeen egoera aztertzen da PGDI, bizi-kalitateari dagozkion adierazle batzuk aintzat hartuta; batetik, etxebizitzaren instalazioak eta ekipamenduak aztertzen dira, eta, bestetik, ondare-baliabideak (etxebizitza, bestelako ondare-ondasunak, metatutako aurrezkiak eta ibilgailuak). 2012tik aurrera, Europar Batasunak ezarritako gabetze-adierazleen sistema hartzen da kontuan AROPE-adierazleak finkatzean, eta adierazleak hartzen dira aintzat metatze-dimensioan prekarietatearen neurketarekin lotutako gabeziatarako.

2.1. Definizioak

a) Metatze-pobrezia

Metatze-pobreziak egoera espezifiko bat baino egoera orokor bat adierazten du; hain zuzen ere, behar adinako bizi-mailari epe ertain eta luzean eusteko beharrezkoak diren kontsumo-ondasun iraunkorrak lortzeko prekarietate-egoera diferentziala, bereziki, etxebizitza egokia eta ongi hornitua lortzeko gaitasunari dagokionez, betiere gutxieneko bizigarritasun-arauak betez. Epe ertainean eta laburrean prekarietate-agertoki gisa, metatze-pobrezia honako hauekin ere lotzen da: diru-sarreraz krisialdi-edota larrialdi-egoera berezietan, etxekoen unitateek bizimodu normalizatu bati aurre egiten jarraitzeko beharrezkoa duten gutxieneko ondare-bitartekoak metatzea, horrekin nolabaiteko segurtasun ekonomikoa ziurtatuta.



b) Prekarietatea metatze-dimentsioan

PGDIk hainbat prekarietate-egoera mugatzen ditu metatze-dimentsioan. Honako prekarietate-egoera hau biltzen du: pobrezia-egoeratzat hartzerik ez dagoena, baina gizartean ohiko hartzen diren epe ertaineko eta luzeko kontsumo- eta zerbitzu-ondasunei sarbiderik eza bereizgarri duena.

2.2. Metatze-pobrezia eta -prekarietatearen PGDI adierazleak

2012tik aurrera aplikatutako PGDI adierazlea

AROPE adierazle-sisteman gabeziarekin lotura duten alderdiak balioetsi izanak bide berriak ireki ditu PGDI n pobrezia eta metatze-prekarietatearen azterketa eguneratzeko premiazko prozesuan. AROPE sistema aintzat hartzeak bide ematen du, bereziki, pobrezia-rekin hertsiki lotuta ez dauden ongizate gabeziako hainbat egoera hobeto bereizte aldera aurrera egiteko. Errealitate berri hori kontuan harturik, metatze-pobrezia eta -prekarietateko PGDI adierazlea eguneratu da 2012ko eragiketatik aurrera.

Adierazle berriak mugatutako kategoriak ondorengo arrisku egoera hauen presentziaren edo presentzia ezaren arabera ezarri dira, pobrezia eta prekarietateari buruz dagoen gizarte pertzepzioarekin duen erlazioa aztertu ostean:

* ARRIS1

Etxebizitzan zenbait **oinarrizko instalazio** edukitzea balioesten du: ur beroa, argindar instalazioa, eta komuna eta bainuontzia edo dutxa.

1eko balioa hartzen du etxebizitzak instalazio horietakoren bat edo gehiago ez badauzka.

* ARRIS2

Ondoren zerrendatzen diren etxebizitzako **oinarrizko ekipamenduetakoren** baten gabezia balioesten du: hozkailua, sukaldea (etxetresna), arropa-garbigailua, labea edo mikrouhin labea, telebista edo telefonoa.

2ko balioa hartuko du esandakoetatik bi elementu edo gehiago falta badira, eta 1eko balioa, bat falta baldin bada.

* ARRIS3

Ondorengo alderdi hauekin zerikusia duten **etxebizitzako beste arazo batzuen** presentzia balioesten du: hezetasun-arazoak (itoginak; hezetasunak horma, zoru, sabai edo zimenduetan; usteldurak leiho-markoetan, ateetan edo zoruan); etxebizitzaren azalera kide kopurua bider 20 m² baino txikiagoa izatea; zarata eta kutsadura arazoak; eta etxebizitza iluna, nahiko argirik gabea, edo argi natural urrikoa izatea.

1eko balioa du aipatutako gabezia horietako bi edo gehiago izanez gero.

2ko balioa hartuko du, aurreko baldintza betetzeaz gainera, ongi ekipatutako, zaindutako eta kontserbatutako etxebizitza baten baldintzak inondik ere betetzen ez dituen etxebizitza baldin bada.

Era berean, 2ko balioa izango du bi gabezia edo gehiagoren presentzia betetzen bada, komun eta/edo bainuontzi/dutxa ez edukitzearen arazo erantsiak kontuan hartuta. Aipatutako gabeziak nahikotzat har ez daitekeen etxebizitza bati lotzen zaizkio (ongi ekipatutako, zaindutako eta mantendutako etxebizitza den edo ez kontuan hartzean).

* ARRIS4

Hamar urtez azpiko ibilgailu bat ez izatea balioesten du.

1eko balioa du, ezaugarri horietako ibilgailu bat, gutxienez, ez baldin badu, arrazoi ekonomikoengatik.

2014ko estatistikan, hurbilketa doitzen da alderaketa denboran mantendu ahal izateko.

* ARRIS5

Epe ertaineko nolabaiteko aurrezte maila metatzeko ahalmenaren adierazle den neurrian, **ohiko bizilekutik kanpo astebeteko oporraldia** gutxienez izatea balioesten du.

1eko balioa du horrelako oporraldirik izan ez bada, azkeneko 12 hilabeteetan, arrazoi ekonomikoak direla medio.

* ARRIS6

Erreferentzia unitateak zenbat hilabetez eutsi ahal izango liokeen ohiko gastu-mailari eskuragarri dituen aurrezkiekin eta ondasunekin, ohiko etxebizitza salbuetsita (**erreserba-ondarea**).

1eko balioa dauka, baldin eta aurrezkiekin gastuari eusteko gaitasuna 3 eta 13 hilabete artekoa bada.

2ko balioa dauka, baldin eta gaitasunik ez badauka edo 3 hilabeterako baino gutxiagorako badauka.

Bazterketa-arrisku horiek eta esleitutako balioak kontuan izanik, honako egoerak zehazten dira pobrezia-ongizatea eskalan:



1. Pobrezia

Pobrezia-egoerak honako arriskuetako baten presentziarekin lotzen dira, edo arriskuen konbinazioarekin, aurretik definitu ditugun moduan:

- * $ARRIS1 = 1$.
- * $ARRIS2 \geq 2$.
- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 \geq 3$.
- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 \geq 6$.
- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 = 5$ ETA $[(ARRIS4 + ARRIS5 \geq 1$ ETA $ARRIS6 = 2)$ EDO $(ARRIS4 + ARRIS5 = 2$ ETA $ARRIS6 = 1)]$.

Horrek esan nahi du metatze-dimentsioan pobrezia-egoerak honako egoerekin edota zirkunstantziekin lotuta daudela:

- * Etxebizitzaren oinarrizko instalazioetan gabeziaren bat agertzea.
- * Etxebizitzaren oinarrizko instalazioetan bi gabezia edo gehiago agertzea.
- * Oinarrizko instalazioetan, oinarrizko ekipamenduetan edota etxebizitzaren beste arazo batzuetan, 3ko balioa edo handiagoa.
- * Adierazlea eraikitzeko kontuan hartzen diren gabezia multzoan 6 puntuko edo gehiagoko balioa.
- * Adierazlea eraikitzeko kontuan hartzen diren gabezia multzoan 5 puntuko balioa, gehi honako hiru zirkunstantzia hauek ere agertzea:
 - Ohiko gastu-mailari urtebetez baino gehiagoz eusteko behar beste erreserba-ondare ez edukitzea;
 - Etxebizitzaren instalazioekin eta ekipamenduarekin lotuta ez dauden epe ertaineko eta luzeko kontsumo-ondasun eta -zerbitzuak izateko oinarrizko gabezia bat, arrazoi ekonomikoak direla-eta (hamar urte baino gutxiagoko ibilgailua edota etxetik kanpora gutxienez hamar eguneko oporraldia egiteko aukera);
 - Eta 3 puntuko edo gehiagoko balioa azkena aipatutako ondasun eta zerbitzu mota horiek izatearekin eta erreserba-ondarearekin lotutako adierazle multzoan.

2. Ongizate-gabezia

Metatze-dimentsioan ongizate-gabeziarekin lotutako arazoak aurreko kategorian bilduta ez dauden arazoekin dute zerikusia, eta etxekoan unitateko arrisku-metatzen honen presentzia erakusten dute:

- * $ARRIS1 + ARRIS2 + ARRIS3 + ARRIS4 + ARRIS5 + ARRIS6 \leq 4$ ETA $[(ARRIS4 + ARRIS5 \geq 1$ ETA $ARRIS6 = 2)$ EDO $(ARRIS4 + ARRIS5 = 2$ ETA $ARRIS6 = 1)]$.

Arazo mota hori agerikoa izango da, adierazlea eraikitzeke kontuan hartzen diren gabezia multzoan 4 puntuko balioa izateaz gain honako hiru zirkunstantzia hauek ageri badira:

- Ohiko gastu-mailari urtebetez baino gehiagoz eusteko behar beste erreserba-ondare ez edukitzea;
- Etxebizitzaren instalazioekin eta ekipamenduarekin lotuta ez dauden epe ertaineko eta luzeko kontsumo-ondasun eta -zerbitzuak izateko oinarrizko gabezia bat, arrazoi ekonomikoak direla eta (hamar urte baino gutxiagoko ibilgailua edota etxetik kanpora gutxienez hamar eguneko oporraldia egiteko aukera);
- Eta 3 puntuko edo gehiagoko balioa azkena aipatutako ondasun eta zerbitzu mota horiek izatearekin eta erreserba-ondarearekin lotutako adierazle multzoan.

3. Gutxieneko ongizatea

Metatze-dimentsioan gutxieneko ongizate egoera batera iristen garela esango dugu, baldin eta aurreko kategorietan adierazitako zirkunstantzia problematikoak ageri ez badira baina adierazlea eraikitzeke kontuan hartzen diren gabezieta bat gutxienez ageri bada, betiere honako baldintza hau beteta:

$$\text{ARRIS1} + \text{ARRIS2} + \text{ARRIS3} + \text{ARRIS4} + \text{ARRIS5} + \text{ARRIS6} \geq 1.$$

4. Erabateko ongizatea (gabeziarik gabe).

Metatze-dimentsioan bada erabateko ongizate-egoera bat, aztertutako arrisku-adierazleetan batere gabeziarik ez dagoenean, osagaiak honakoak izanik:

$$\text{ARRIS1} + \text{ARRIS2} + \text{ARRIS3} + \text{ARRIS4} + \text{ARRIS5} + \text{ARRIS6} = 0.$$



3. Benetako pobrezia eta prekarietatea

Baliteke batzuetan metatze- eta mantenu-pobreziaren adierazleek arrisku-egoera ez erakustea, konpentsatzeko joera ager baitaiteke hainbatetan; adierazle horiek ez bezala, benetako pobrezia- eta prekarietate-adierazleek **beharrak asetzeko benetako eskasia-egoeratzat har daitezkeenak** zehazten dituzte –gizartearen ikuspegi orokorra aintzat hartuta–. Kasu horietan, pobrezia edota prekarietatea bizitzea errealitatea da gizartean nagusi diren kontzepzioak aintzat hartuta (baina ez nahitaez eragindako pertsonen pertzepzioaren arabera).

3.1. Definizioak

Pobrezia errealtzat hartuko ditugu honako zirkunstantzia hauek: oinarrizko premiak asetzeko ezintasunaren arrisku-egoera nabari denean eta egoera hori ez denean behar beste konpentsatzen biztanleen eguneroko bizimoduan, ez, behintzat, gutxieneko ongizate-mailara iristeko moduan, pobreziatik kanpo.

Gainerako benetako prekarietate-moduek beste egoera batzuei egiten diete erreferentzia: hain zuzen, gizartean itxaroten den gutxieneko ongizate-maila izateaz hitz egiteko **nahiko elementu konpentsatzaile** ageri ez direnean, eta ongizate-gabezia egoera benetakoak islatzen direnean (ez nahitaez pobrezian bizitzearekin lotuta).

3.2. Benetako pobreziaren PGDI adierazlea

PGDI 2012 adierazlea

PGDI 2012 adierazleak kontuan hartzen du 2012tik aurrera sartutako metatze-pobreziaren adierazle berria, eta gerturatze hertsiki objektiboa aukeratzen du benetako pobrezia- eta prekarietate-egoerak mugatzeko garaian.

Adierazlea eraikitzeko, mantenu- eta metatze-adierazleen posizioaz gain, tankerako beste prekarietate-elementu batzuk ere kontuan hartzen dira. Esanguratsuen azken urtean agertutako gabetze-egoerak agertu izana da. Gabetze-egoera horiek gertatzeko, honako zirkunstantzietan agertu behar dute:

- * Elikadura-arazo oso larriak.
- * Elikadura-arazo oso larriak, bigarren eskuko jantziak eskuratu beharra edota negu-partean etxebizitzan tenperatura egokia mantentzeko zailtasunak izatea arazo ekonomikoak direla-eta, guztia ere oinarrizko gastuak murriztearekin lotuta.
- * Elikadura-arazo oso larriak izan ez, bigarren eskuko jantziak eskuratu beharra eta negu-partean etxebizitzan tenperatura egokia mantentzeko zailtasunak arazo ekonomikoak direla-eta, hauxe oinarrizko gastuak murriztearekin lotuta.

Beste prekarietate-adierazle batzuk ere ikusten dira: oinarrizko beharrak asetzeko etxekoan unitatean behar dena baino ohiko diru-sarrera txikiagoak izatea, edota zorpetzeko arriskudun egoerak.

Kontuan hartu beharreko egoera posible bakoitzaren inguruan nagusi den gizarte-pertzepzioa ikusirik, benetako pobrezia- edo prekarietate-adierazle definitutako kategoriak, eta haietako bakoitzak bildutako egoerak, honako hauek dira:

1. Benetako pobrezia

Honako egoera hauek biltzen ditu:

- * Mantenu- eta metatze-pobrezia biak agertzea.
- * Mantenu-pobreziako egoera bat eta metatze-dimentsioan ongizaterik ez izateko arazoak.
- * Mantenu-pobreziako egoera bat eta gutxieneko ongizate-errealitateak metatze-dimentsioan, errealitate hori azken urteetan izandako gabetze-arazoekin lotuta datorrenean. Horietan ohiko diru-sarrerak ez dira oinarrizko beharrianak asetzeko edota zorpetzeko arrisku bati erantzuteko bestekoak.
- * Mantenu-ongizaterik gabeko eta metatze-pobreziako egoera bat.
- * Mantenu-ongizateko egoera bat eta metatze-pobrezia, errealitate hori azken urteetan izandako gabetze-arazoekin lotuta datorrenean. Horietan ohiko diru-sarrerak ez dira oinarrizko beharrianak asetzeko edota zorpetzeko arrisku bati erantzuteko bestekoak.

2. Benetako ongizate-gabeziaren beste era bat

Pobrezia-kategorian kontuan hartutako egoerak albo batera utzita, kategoria honek honako egoerak biltzen ditu:



- * Ongizate-gabeziako egoera bat agertzea mantenu- eta metatze-dimentsioetan.
- * Metatze-pobreziadun beste mantenu-ongizateko egoera batzuk, benetako pobrezia-kategorian bilduta ez daudenak.
- * Ongizate-egoera bat mantenu-dimentsioan eta metatze-dimentsioan ongizate-gabeziarekin lotutako arazoak, errealitate hori azken urteetan izandako gabetze-arazoekin lotuta datorrenean. Horietan ohiko diru-sarrerak ez dira oinarritzko beharrianak asetzeko edota zorpetzeko arrisku bati erantzuteko bestekoak.

3. Ongizate- eta arrisku-elementuak

Pobreziarik eta ongizate-gabeziarik ez da gertatutako, ongizate-elementu nagusiekin baina arrisku-elementuekin, baldin eta aurreko kategorietan kontuan hartu gabeko zirkunstantzia hauek ageri badira:

- * Metatze-dimentsioan gutxieneko ongizate-errealitadedun mantenu-pobreziako beste kasu batzuk, aurreko kategorietan bildu gabeak.
- * Mantenu-pobreziako eta erabateko ongizateko egoera bat metatze-dimentsioan.
- * Mantenu-ongizaterik gabeko egoera bat, gutxieneko ongizate-mailarekin edota erabateko ongizatearekin metatze-dimentsioan.
- * Metatze-dimentsioan ongizate-gabeziako arazoak eta mantenu-dimentsioan ongizate egoera ageri duten beste kasu batzuk, aurreko kategorietan bildu gabeak.

4. Ia erabateko ongizatea

Kategoria honetan, mantenu-ongizatearen egoera bat gutxieneko ongizate-mailarekin lotuta ageri da (baina ez erabateko ongizatea) metatze-dimentsioan.

5. Erabateko ongizatea.

Kategoria honetan, mantenu-ongizatearen egoera bat erabateko ongizatearekin lotuta ageri da metatze-dimentsioan.

4. Desberdintasun-adierazleak

PGDIk, era berean, gizarte-desberdintasuneko adierazleak ere ematen ditu, eskuragarri duten errenta aztertuta batik bat.

Hauek dira PGDIk kontuan hartzen dituen desberdintasun-adierazleak:

a) S80/S20 erlazioa

Errentaren banaketan *per capita* errenta baliokidearen maila handiena duten pertsonen % 20ren eta errenta txikiena daukatenen % 20ren arteko erlazioa.

b) Gini koefizientea

Errentaren arabera banatutako populazioaren pisu metatuaren eta eskuragarri duten errentaren pisu metatuaren arteko erlazioa, formula honen arabera lortua:

$$G = \left| 1 - \sum_{k=0}^{k=n-1} (X_{k+1} - X_k)(Y_{k+1} + Y_k) \right|$$

Osagaiak ondokoak izanik:

X: eragindako populazioaren proportzio metatua.

Y: errentaren edo diru-sarreraren proportzio metatua.

Koefizientearen balioa 0 eta 1 artekoa da: 0 erabateko berdintasun-egoera litzateke, eta 1, berriz, desberdintasun maximoko egoera. Datuak ehunekotan ematen dira.

PDGIn, errentaren banaketarekiko hurbiltzea diru-sarrera baliokideei dagokienez egiten da, ELGA eskala zuzendutakoarekin bat.

c) Errenta osoko diru-sarreraren lehen dezilaren parte-hartzea

Adierazle honek %10 pobreena jasotzen du, populazio osoa kontuan hartuta; ikertu den gizartearen sarrera baliokide osoari dagokionez.



AURKIBIDEA

0. Eraitza nagusien laburpena	3
1. Pobreziaren eta prekarietatearen inpaktu orokorra	17
1.1. Mantenu-pobrezia eta -prekarietatea (diru-sarrera eskuragarriak)	17
1.1.1. Pobreziaren eta ongizaterik ezaren adierazleak	17
1.1.1.1. Eurostat adierazleak	17
1.1.1.2. PGDI adierazleak	19
1.1.2. Gabezia-adierazleak	20
1.1.3. Tarte edo distantziako eta desberdintasuneko PDGI adierazleak	26
1.2. Pobrezia eta prekarietatea metatze-alorrean (ondarea eta epe luzeko bizi-baldintzak)	28
1.2.1. Metatze-pobreziaren PGDI adierazleak	28
1.2.2. Gabeziaren eta metaketaren adierazleak	29
1.3. Benetako pobreziaren eta prekarietatearen adierazle sintetikoak	35
1.3.1. Alderdi orokorrak	35
1.3.2. DSBE/EPO/GLL sistemaren eragina	38
2. Arrisku-egoera larrienean dauden gizarte-taldeak eta eremuak	45
2.1. Benetako pobreziaren eragina, demografia-aldagaien arabera	45
2.2. Benetako pobreziaren lurralde-eragina	66
3. Desberdintasun-adierazle nagusiak	73
4. Pobreziaren eta beste prekarietate mota batzuen ezaugarriak adingabekoengan	77
5. Ezkutuko pobrezia 18 eta 44 urte bitarteko biztanleengan	81
6. Euskadiren kokapena Europan	89
ERANSKINA: Adierazleen eta definizioen glosarioa	93
1. Pobrezia eta prekarietatea mantenuari edo diru-sarrerei dagokienez	93
1.1. Definizioak	94
1.2. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak	95
1.3. Mantenu-pobreziaren eta -prekarietatearen Eurostat adierazleak	96
1.4. Pobrezia- eta prekarietate-adierazleak tratatzeko erabilitako indizeak	97
1.5. Erabilitako sarrera kontzeptua	98
1.6. Gabetze-adierazleak	100
2. Metatze-pobrezia eta -prekarietatea (bizi-baldintzak eta erreserbako ondarea).	102
2.1. Definizioak	102
2.2. Metatze-pobreziaren eta -prekarietatearen PGDI adierazleak	103

3. Benetako pobrezia eta prekarietatea	107
3.1. Definizioak	107
3.2. Benetako pobreziaren PGDI adierazlea	107
4. Desberdintasun-adierazleak	110